

## aurkibidea

---

|  |     |
|--|-----|
| <i>Zenbaki honetan</i> .....   | 3   |
| MEES, L.: Alemania berria Europa berrian.....  | 7   |
| GARITAONANDIA, K.: Euskal prentsa, 1936ko uztailaren<br>18aren aurretik.....         | 35  |
| RAMIREZ, Tx.: 1989ko urriko hauteskundeen islada Hego<br>Euskadiko egunkarietan..... | 87  |
| ZUBIAUR, J.R.: Euskal hizkuntz ideiak XVI. mendean:<br>Zaldibia, Garibai, Poza ..... | 107 |

---

## Gaiak

|   |     |
|---|-----|
| ITURBE, J.: Euskara Euskal Herriko Unibertsitatean .....                              | 133 |
| MATANZAS, J.M.: Euskal preso politikoek sakabanaketa:<br>helburuak eta ondorioak..... | 149 |

---

## ... hainbat aburu

|   |     |
|---|-----|
| IRAOLA, R.: Gogoetarik gogoeta.....                   | 161 |
| AZURMENDI, J.: Politikatik zer itxaron kulturari..... | 169 |

---

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanez  
inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria.

**JAKIN**

aldizkari irekia da eta  
ez dator nahitaez  
idazleen eritziekin bat

**Zuzendaria**

joan mari torrealdei

**Idazkaritza eta administrazioa**

Tolosa hiribidea, 103, 1-C  
20009 Donostia. Tel. (943) 21 80 92

**1990eko prezioak**

| barruan                    |                | kanpoan               |                  |
|----------------------------|----------------|-----------------------|------------------|
| harpideduna                | ez-harpideduna | harpideduna           | ez-harpideduna   |
| harpidetza...3.300 pta.    | —              | 3.800 pta. (190 FF)   | —                |
| ale arrunta...550 pta..... | 850 pta.       | 650 pta. (35 FF)..... | 950 pta. (50 FF) |

Jabegoa: Jakinkizunak S.A. Donostia. Lege-gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211-495X.  
Inprimaketa: Lizarra S.L. Lizarra (Nafarroa)

## ZENBAKI HONETAN

---

*Eskuetan duzun hau, bigarren aldiko 58. zenbakia da eta 1990eko hirugarrena.*

*Urteko hirugarren zenbakia, dakikezunez, gai soltez osaturikoa izan ohi da gure aldizkariaren tradizio txoan. Oraingo honetan ere honelaxe da, nahiz eta azalean zenbakia irekitzen duen artikulua izena azaldu letra handitan.*

*Lehen artikulua, bada, Alemaniako batasunaren historia, orainaldia eta etorkizuna aztertzen ditu. Egilea, Ludger Mees historigilea da, alemana eta euskaldunberria.*

*Karmelo Garitaonandia katedratikoak luze eta sakon aztertuak ditu 1936-1939 urtealdiko prentsa idatzia, irratia eta zinema. 1936ko uztailaren 18aren aurretiko euskal prentsa interesatu gara gu oraingo honetan.*

*Prentsa idatzia gaitzat duen beste ikerlan bat da hurrengo artikulua ere. 1989ko urriko hauteskundeetan Hego Euskal Herriko egunkarietan aztertu du Txema Ramirez kazetariak, Doktorego ikas-taroen barruan.*

*Laugarren artikulua ere Doktoregoarekin du zerikusia. Donostiako EUTGn buruturiko tesi doktoralaren laburpena eskatu diogu egileari berari: XVI. mendeko euskal hizkuntz ideiak aztertzen ditu Jose Ramon Zubiaur-ek, Zaldibia, Garibai eta Pozaren lanetan berrera.*

***Gaiak** sailean bi lan aurkezten ditugu, bi giza multzo handirentzat eta gizarte osoarentzat garrantziko. Lehenean, euskararen egoera Unibertsitatean deskribatzen du Jazinto Iturbek, oraintsu arte Euskal Herriko Unibertsitatearen euskararako iharduerazko errektorordea izan denak.*

*Bigarrenean, euskal preso politikoei herrikitik ezarritako sakanaketa-politikak zein oinarri juridiko eta zein helburu politiko dituen azaltzeko eskatu genion, lanbidez arazoa ongi ezagutzen duen, Txema Matanzas abokatuari.*

*Eta azkenik, ...**hainbat aburu** sailean, erantzun-artikulu bat dakargu., hasteko. Joxe Azurmendik duela bi zenbaki agerturiko zenbait ideia eztabaidatuz idazten du Rufino Iraolak.*

*Bestalde, Joxe Azurmendiren beste artikulua bat ere badakargu, ekainaren 25ean, Arriaga Teatroan, HBren kultur txostenaren aurkezpenean emandako hitzaldia, hain zuzen ere.*

# Alemania berria Europa berrian

Alemaniako batasunaren historia, orainaldia eta etorkizuna

Ludger Mees

## I.

Iraultza ororen adierazgarririk nabarmenetarikoa aipatzekotan, matxinada hauetako prozesu historikoaren ikaragarriko abiadura litzateke, zenbait kasutan historiaren gorabeherak protagonista politikoaren kontroletik at gelditzen direlarik. Egun batean erabakitakoak hurrengoan ez du balio, eta politika ez da epe luze eta ertainekin jokatzeko plangintza eta estrategiaren ondorio, minutuz minutu bapatean asmatu beharrekoa baizik. Ez dago ezer erabakita eta bide guztiak irekiak daude. Gizakia historiarekin lehian sartzen da eta norgehiagoka honetan etorkizuna jokoan dagoelako, inoiz baino grina eta pasio gehiago sortzen dira.

Orain arte, liburuetatik ezagutzen genituen iraultza horiek, Frantziakoa edo Errusiakoa, esate baterako. Gorbatchovek etorri behar zuen guk liburuak alde batera utz genitzan eta mass-mediaren bitartez iraultza baten partehartzaile bihurtu ginatezen. His-

torialariak lan dezente izango dugu Europako ekialdean garatzen ari den iraultzaren mamia aztertu, eta ezagutzen ditugun beste iraultzekin parekatuz tipifikatzeko. Dena den, ekialdeko iraultza oraindik pil-pilean egonik, azterketa horiek gerorako utzi beharko dira. Momentuz, garbi dagoen gauza bakarra Europako ekialdeko herriak neoestalinismoaren menpetik askatzeko altxatu egin direla da. Zerekin trukatu nahi dute azken berrogei urteotan bizi izan duten gizartea? Hauxe da gakoa. Zenbateraino esan genezake matxinada hauek sozialismo (demokratikoaren) kontrakoak eta kapitalismo (manchesterianoaren) aldekoak direla? Gaur egun Ekialdean aurkitzen dugun koktail ideologikoaren osagaiak, herriz herri errezeta desberdin baten arabera nahasten dira: eskubide politiko demokratikoen eskaera, ongizate sozialaren eta kontsumo gizartearen idealizazioa eta burujabetasunaren aldarrikapena -azken hau, Sobiet Batasuneko zenbait errepublikatan helbururik nagusia. Hauexek dira momentuz antzeman daitezkeen joerak. Hauetaz gain, ezer gutxi eta batez ere epe luzearako egitasmo edo plangintza sakonei dagokienez. Hau ez da harritzekoa, historiaren martxak protagonista guztiak ustegabeen harrapatu bait ditu, gehienek aitortzen duten bezala. Nahiz eta alderdi politikoak eta bere eskaintza programatiko eta ideologikoak egon badauden, ez dakigu oraindik zenbatekoa den bakoitzaren pisua gizartemailan. Hori jakin ahal izateko normalizazio-prozesu luze bat burutu beharko da, hauteskunde libre eta demokratikoak barne izango direlarik.

Ekialdeko Alemania, iraultza demokratikoaren azken kidea izatetik horren aitzindari izatera pasa da. Martxoaren 18an Ekialdeko estatu batean antolatuta izan diren lehendabiziko hauteskunde demokratikoak, Sobiet Batasuneko zenbait herritan egindako hauteskunde partzialak kontutan hartzen ez baditugu, bertan burutu bait dira. Sekulan ez zaie hauteskunde batzuei, bai politika, bai prentsaren aldetik, horrelako garrantzi eta arretarik eskaini; eta hau, arrazoi batengatik izan da: Bigarren Mundu-Gerran erabakitako Alemaniako banaketan sustraitzen bait zen, neurri handi batean, bi bloketan oinarritutako orain arteko munduaren oreka politiko, ekonomiko eta militarra. Azken

berrogei urteotan gainditu ezinezko zirudien bi Alemanien arteko muga desagertuz gero, Europari pakea eman zion gerra-osteko ordenu politiko eta militarra bertan behera geldituko da. Ikuspuntu honetatik begiratuta itxaropenak baino gehiago kezka sor daitezke; izan ere, aliatuek 1945ean behin-betirako desagindako Prusia indartsu, inperialista eta militarista bere errautsetatik berpiztuko ote da? Zer gertatuko ote da munduari hainbat kalte eragin zion nazionalismo alemanarekin? Zer egin OTAN-ekin? Zer-nolako ondorioak izango ditu Alemaniako batasunak Europako batasunaren eraikuntzan? Kolokan al dago 1945az geroztik lortutako bi etsai historikoen arteko "entente" franko-alemana, orain arte Europako batasunaren bultzagile eta babesle izandako ardatza? Baztertu egingo ote da Europako hegoaldea ekialdearen mesedetan?

Zalantza guzti haucn aurrean oraingoz erantzun zehatzik ez dagoela esan beharrean gaude. Halere, gure iritziz, historia lagungarri gerta dakiguke, zalantza horiek erabat argitzeko ez bada ere, egunerokotasunak sortutako ikuspegi estua zabaltzeko. Abia gaitezen, beraz, historian zehar Alemaniako batasunaren oinarrian bila, gaur egungo egoera eta etorkizunean eman litezkeen aukerak argitzeko baliagarri izango zaizkigulakoan. Artikulu honek bi atal nagusi izango ditu: lehenbizikoan, Alemaniako batasunaren prozesu historikoa azalduko da XIX. mendearen hasieratik 1989ko iraultza iritsi arte; bigarreanean, berriz, Alemaniako batasunak zenbait arlotan izan ditzakeen ondorioak aztertuko dira.

## II

"Alemania, baina non dago?"

"Nazio bat bihur zaitezten, hauxe da, Alemanok, alferrik espero duzuen. Presta zaitezte, hori bai ahal duzuela, libreki gizakiak izateko."

(Goethe - Schiller 1796)

(“¿Deutschland? Aber wo liegt es?” “Zur Nation euch zu bilden, ihr hofft es, Deutsche, vergebens. Bildet, ihr könnt es, dafür freier zu Menschen euch aus”).

Alemaniano batasun politikoari buruzko bi idazle alemaniar horien iritzi ezkorra ongi oinarrituta zegoen beraiek ezagutzen zuten errealitatean. Estatu Batuek bere independentzia 1776an lortu ondoren, eta Frantziak 1789an estatu bat osatu zuenean, ez zirudien Alemanian ezer mugitzen zenik. Alemania XVIII. mendean ez zen nazio politiko bat. Ia mila urte zituen “Inperio aleman-erromano sakratu” handi horretan zeuden 1.800 erakunde politiko subiranoen artean (kondaduak, dukesadoak, apezpikutegiak, hiri libreak, eta abarretan), horietako asko ez ziren, ez historiak, ez kulturaz eta ezta hizkuntzaz ere, alemanak.

Frantziako iraultzaren ostean, eta bereziki Napoleonen soldaduei esker, Europako ordenu politikoa birmoldatu egin zen. 1789 Europako liberalismoaren ordua izan zen, eta baita Alemaniako nazionalismoarena ere. Zenbait intelektualek, hala nola Herderrek, F. Schlegelek, Humboldtkek, Fichtek eta goian aipatutako Schillerekek eta Goethek, 1789ko iraultzak sortutako krisialdi politiko eta sozialetik atera eta Alemaniako herriari identitate berri bat eman nahian, nazio alemana aurkitzeari eta definitzeari ekin zioten. Lan hori behar-beharrezkoa izan zen, batez ere, kontutan hartzen badugu lehendabizi Napoleonek eta ondoren Vienako Kongresuak, Inperio Aleman-Erromano Sakratuan mila urtetan zehar garatutako urte gutxitan erabat hankaz gora jarri zutela, Inperioa deuseztatzean (1806) eta “Alemaniako Federazioa” sortzean (1815). Aldaketa sakon honen adierazgarri, esan dezagun, 40 estatu eta hiri autonomo alemanak izan zirela, 1806 baino lehenago zeuden 1.800 erakundetatik 1815 ondoren mantendu ziren bakarrak.

Alemaniano nazionalismoak bere historiaren lehen fase horretan hiru ezaugarri nagusi izan zituen, besteak beste, gero ere garrantzi handikoak izango zirenak. Alde batetik, Inperio zaharreko ahultasun politikoarengatik, intelektual nazionalistek historian eta kulturaren aurkitzen zuten nazio alemanaren esentzia. Beren teoriaren arabera, nazio alemana ez bait zen etorkizunean



garatu beharreko zerbait, historian betidanik aurki zitekeen eta absolutismoaren menpean izkutuan geratu beharreko fenomeno baizik. Ziotenez, Alemania nazio politikoa ez bazen ere, nazio kultural indartsua zen. Bestetik, lehen nazionalista alemanak liberalak ziren, absolutismoaren aurkakoak eta konstituzioaren aldekoak. Azkenik, aipa dezagun nazionalismo alemanaren frankofobiarekiko lotura historiko estua. Dena den, ez da harritzekoa lotura hau, Napoleonen politika inperialista zela eta, identitate nazional berri bat sortzean kanpoko etsaiek izan ohi duten garrantzia kontutan harturik.

Nazionalismo alemanaren bigarren fasea 1815etik 1848ra bitartean kokatu behar dugu. Hasierako intelektualei burgesia industrialaren parte bat, burgesia txikia eta zenbait langile gehitu zitzaizkien. Mugimendu nazionalistaren protagonistak Unibertsitateko ikasleak izan ziren batipat, baina baita ere, toki guztietan Jahnen gidaritzapean sortutako gimnasi elkarteak. Napoleonek erbesteratua izan ondoren, Metternichen Europa errestituzionista horretan Alemaniako aristokrazia ez zegoen nazionalistek amore emateko prest. Federazio berriak ez zituen haien nahiak ezta urrutitik ere betetzen. Bi estatu handienak, Prusiak eta Austriak hain zuzen ere, batere konstituziorik gabe jarraitzen zuten, ez zegoen ez hauteskunde demokratikorik, ezta askatasun politiko edo kulturalik ere. Federazioak, nahiz eta Frankfurten legebiltzar batua egon, ez zeukanez ejekutiborik, ezta epaimahai nazionalik ere. Kanpo-politika estatuen menpean zegoen, hots, Federazio Alemana ez zen nazionalistek lortu nahi zuten estatu batua, baizik eta Antzinako Erregimenaren botereen agintea luzatzeko, eta oposizio liberala eta nazionalista zapaltzeko tresna politikoa.

Halere, errepresio zorrotzak ezin izan zuen nazionalismoaren garapena geldierazi. Kanpoko zenbait burruka nazionaliek bultzaturik (1821etik 29ra: Grezia Turkiaren kontra; 1830ean: Polonia Errusiaren kontra), Alemanian identitate nazionala betiko identitate partikularistaren (Prusiaren, Sajoniaren, Bavieraren eta abarren) kaltetan hedatuz zihoan. 1840an Frantzia eta Alemaniaren arteko krisi berri bat sortu zenean, lehenda-

bizikoak Rhinen ezkeraldeko zenbait lurralde bereganatu nahi izan zuen, nazionalismo alemana piztu egin zen, aurrerantzean masen mugimendu bihurtu zelarik. Urteotan, esate baterako, idatzi zuen *Hoffmann von Fallerslebenek* "Deutschlandlied" beranduago Alemaniako himno nazionala izango zen poema.

Halere, mugimenduaren hazkunde honetatik nazionalistek ezin izan zuten fruiturik atera, beraien artean erabat zatiturik aurkitzen bait ziren. Tradizio partikularista hemen ere antzeman daiteke. Ez zegoen adostasunik nazionalismoaren helburuei buruz, eta bai zalantza gehiegi: Alemaniako batasuna Austriarekin edo Austriarik gabe lortu behar zen? Nolakoa izan beharko luke Alemaniako Estatu batuak? Errepublika demokratikoa? Monarkia konstituzionala? Ala zegoen Federazioa, herritua? Zer erantzun eman behar zitzaien estatu nazionalarekin batera erreforma sozialak eskatzen zituzten behemilako klase sozialei?

Indar faktikoeak, hau da, aristokraziak, militarrek eta neurri batean administrazio konserbatzaileak, etekina etera zioten zatiketa honi, 1848ko iraultzan liberalen eta nazionalisten nahiei herriz ere uko egiteko. Iraultzak porrot egin zuen, nahiz eta liberalek zenbait helburu lortu (Konstituzioak, baita Prusian ere, nekazal erreforma, garapen industrialak bultzatzeko zenbait neurri eta politika sozialaren hastapenak, besteak beste). Halere, askatasun politikoa, sistema politiko eta sozialaren erreforma burgesia berriaren mesedetan, eta Alemania batua, beste baterako gelditu ziren. Mugimendu nazional eta demokratikoa iraultza honetatik guztiz ahulduta atera zen. Batetik, nekazal erreforma bukatu zenean, nekazarien arteko jarraitzaileak galdu egin zituen; bestetik, iraultzaren ostean liberalismoaren frakzio burgesak aristokraziarekin bat egin zuen iraultza sozial bat iritsiko ez ote zenaren beldur; eta azkenik, jendearen arteko kontzientzian, hori bai, konserbatzaileek ederki bultzaturik, liberalen eta nazionalisten irudia txartu egin zen. Hauen porrot berria ikusita, honako argudioak zabaltzen hasi ziren: ez omen zirela politika egiteko gauza; beraiengandik ezin omen zela ezer

espero; honen ondorioz, politikak agintean zeuden eliteen esku gelditu behar omen zuela, etab. Hemen isladatzen da gero Alemaniako historian garrantzia handia izango zuen ideologia autoritario baten sustraia. Nazionalisten artean etsipena zen nagusi eta batek baino gehiagok Napoleon aleman batekin egiten zuen amets, Alemaniako batasuna egia bihutu ahal izateko.

Napoleon aleman hura laster iritsiko zen: Otto von Bismarck izena zuen. Prusiako ekialdeko nekazal lurraldeetan ia feudalismo-garaian bezala agintzen zuen aristokraziaren ("Junker") kidea zen eta 1862an Prusiako lehendakari izendatu zuten. Bere egiteko nagusia liberalek Prusiako parlamentuan sortutako eta Prusiako militarismo eta neo-absolutismoaren kontra zuzendutako krisi sakonari ("Verfassungskonflikt") irteera bat bilatzea izan zen. Hori lortzeaz gain, presidente berriak zenbait pauso garrantzitsu eman zituen batasun nazionalerako bidean, estrategia politiko berezi batez baliaturik: barneko arazoak atzerrian konpondu. Izan ere, 1864ean Danimarkaren aurkako gerrari ekin zion iparraldeko "Schleswig" eta "Holstein" lurraldeak Prusiaratzeko. Borroka sinboliko horrekin liberalen eta nazionalisten laguntza zihurtatu zuen, bi kondadu horiek kulturaz eta hizkuntzaz nagusiki alemanak bait ziren. Bi urte beranduago Austriaren aurkako gerrari eman zion hasiera, Prusiako nagusitasuna Alemanian behin-betirako sendotu asmoz. Bismarckek, Prusiako ejerzitoak Moltkeren gidaritzapean Königgrätzen irabazi ondoren, Federazio Alemana deuseztatu egin zuen Austriarik gabeko Federazio Ipar-Alemana sortzeko; eta Austriarekin batera borrokatu zuten estatuak konbenio sekretu batzuen bitartez Prusiarekin lotzeko. Ekonomi mailan lotura hori "Zollverein"en (estatu alemanen arteko aduanarik gabeko merkatua zihurtatzen zuen erakundea) jadanik bazegoen. Liberalek Austria batasun alemanaren kontrako etsairik indartsuentzat jotzen zuten eta horrexegatik hain zuzen ere bereganatu zituen Bismarckek haien sinpatiak, bide batez Parlamentuko iskanbilak baretuz eta alderdi liberal handienaren ("Fortschrittspartei") zatiketa lortuz. Horretaz gain, eta garaipen hau oraindik borobiltzeko asmoz, herriaren baitan hain zabaldua zegoen frankofobiaz baliatu zen Bismarck 1870/71n Frantziari erasotzeko. Alemaniako nazionalis-

moa berpiztu egin zen eta Frantzia menperatu ondoren, Prusiako erregea, Guillermo, Versailleseko gazteluan Alemaniako Inperioaren Enperadore proklamatu zenean, mugimendu liberal eta nazionalistak mendearen hasieratik lortu ezinezko ametsa bete zuen Bismarckek.

Inperio aleman-prusiar honek estatu guztiak elkartzen zituen, Austria ezik, baita alemana ez zen zenbait ere. Bere barneko egiturari ezaugarri autoritarioek pisu handikoak ziren, betiko elite sozialek, batipat Prusiako aristokraziak, militarrek eta burokraziak, burgesiaren laguntzaz agintea kontrolatzen jarraitzen bait zuten. Ejekutiboak "Kaiser"aren eta kantzilerraren esku zegoen, enperadoreak kanpo-politikaren nondik norakoak markatzen zituelarik. Botere Legislatiboak hauteskunde demokratiko eta librean bidez osatutako legebiltzarrek zeukan. Prusian, Inperioko estaturik handienean, aldiz, 1918 arte hiru klasetako hauteskunde-sistema errestriktiboa mantendu zen. Alderdi politikoek teoriarik askatasunean lan egin zezaketen, baina errealtatean, sistemaren aurkako eritziek errepresio zorrotza jasotzen zuten: horra hor lekuko, sozialisten kontrako lege bereziak 1878tik 1890era bitartean. Horrezaz gain, beste oztopo bat aurkitzen zuten langileek legebiltzarrean parte hartzeko, legebiltzarkideek ez bait zuten inolako soldatarik jasotzen, eta soldata bati esker bizimodua aurrera atera behar zuena nekez bihur zitezkeen politiko profesional.

Tradizio partikularista ez zen Inperioan sorkundearekin deuseztatu. Estatuak zenbait konpetentzia (hezkuntza, osasuna, polizia, besteak beste) beren menpe gorde bait zituen. Bigarren parlamentuan, "Bundesrat"en alegia, estatuaren ordezkariak elkartzen ziren, horien artean Prusia, nola ez, nagusi izanik (17 botu 58tatik). Bere osotasunean "Reich"ek 25 estatu aleman eta lehen Frantzia izandako lurralde berezia (Elsaß/Lothringen) biltzen zituen<sup>1</sup>.

## III

Alemania batusunaren sorkundea zein baldintzatan garatu zen aztertu ondoren, hausnarketa orokor batzuk burutzeko unea heldu da, urte horietan gertatutakoak Alemaniako eta Europako historian garrantzi handia izango zuelako:

1.- Alemaniako batasun nazionala "goitik" lortu zen, eta ez herriko mugimendu baten bitartez, Frantzia edo Estatu Batuetan gertatu zen bezala. Honen ondorioz, jendearen artean autoritatearenganako errespetu itsua eta itxaropen ia milenarista zabaltzen hasi zen. Joera horrek autoritarismoari eta totalitarismoari bidea ireki zien.

2.- Alemanian batasunarekin ez zen demokratizazioa etorri. Prusiako antzinako botere faktikoek, oro har, bere betiko eragina mantendu egin bait zuten, neurri batean "goitik" erreforma batzuk burutzeko prest egon zirelako, eta horrelaxe liberalismoaren zati handi bat bereganatzeko gauza izan zirelako. Alemaniako bigarren "Reich", Europako beste estatuekin konparatuta ekonomi mailan modernoa eta aurrerakoia izan zen, baina politika-mailan errepresiboa, atzerakoia eta tradizionalista. Historiografian "Alemaniako bide berezia" ("Deutscher Sonderweg") deitutako desoreka horrek sortu zituen gatazketan, diote historialariek, bilatu behar direla Inperioaren porrotaren, Weimarko Errepublikaren ahultasunaren ("Errepublikanorik gabeko Errepublika") eta azken finean, nazionalismoaren diktaduraren arrazoiak.

3.- Behin Estatu batua lortu ondoren, nazionalismoak 1848/49an hasitako bere funtsezko eboluzio ideologikoa jarraitu zuen: indar liberal, demokratiko eta neoabsolutismoaren kontrako izatetik Bismarckek burututako sistemaren legitimatzailea izatera iritsi zen. Kontzeptu nazionalistetan baliorik handiena ez zen nazioa, baizik eta, -Hegelengan oinarrituta-, estatua. Nazionalismo berriaren adibide gisa, aipa dezagun Treitschke historiagilea. Honek bere "Deutsche Geschichte" (1879) lan horretan Estatu Prusiako koroarekin identifikatzen zuen eta berak goraipatutako estatuari gizarte pluralista —Treitschkeren iritzi,

ordenua eta pakea kolokan ipintzen zituelako— onartu ezinezkoa kontrajartzen zion. Nazionalismo kontserbatzaile berriarentzat Parlamentua gizartearen burruken ispilua zen eta han ematen zen "kaos" arriskutsuari bidea isteko, gizartearen interesen gainetik omen zegoen koroa zen epailea. Hona hemen berriro autoritarismoaren itzala.

4.- Kontutan harturik batasun estatala agintariek ezarria eta ez gizarte-mailan emandako eboluzio luze eta sakon baten ondorio izan zela, eta Inperio berriaren sortzaileak armak izan zirela, eta ez kontzientzia, ez da harritzekoa estatu berri bat sortzeko sendotzeko behar-beharrezkoa den oinarritzko kontsentsurik eman ez izatea Alemanian biztanleen artean. Kontsentsu horretatik kanpo gelditzen ziren benetazko liberalak, demokratak, intelektual gehienak, kontserbatzaile partikularistak eta langile organizatuak, besteak beste. Alemanek bere estatua eduki bazeukaten ere, alemana izatea zer zen ez zekiten. Identitate nazionala sortzeko arazo asko zegoen. Zentzu honetan esanahi handia daukate honako datu hauek: 1892ra arte ez zuen Alemaniak bandera nazionalik izan; lehendabiziko munduko gerraren bukaera arte ez zen himno nazionala ofizialki onartu; Frantziaren aurka Sedan-en lortutako garaipenaren eguna jai nazionala deklaratu zenean, protesta ugari entzun zen; artistek, monumentu nazional bat eraikitzeko eskaera jasotzen zuten bakoitzean, galduta ibiltzen ziren, askotan irtenbidea, sinbolo nazional baten ezean, monumentua Bismarcki dedikatzea izaten zelarik. Identitate nazionala ahul izanik, alemanok, gure identitatea sendotzeko, barne eta kanpoko etsaien beharrea aurkitzen ginen nonbait (sozialistak, komunistak, judutarrak, frantsesak). Guzti honengatik, nazionalismo aleman berriaren izaera neurri batean autoritarioa eta agresiboa zen. Izaera hori aldatzeko, Alemaniak, berak eragindako bi mundu-gerratako katastrofeetatik pasa behar izan zuen.

## IV

1945. urtea Europako, eta batez ere Alemaniako historian, garai historiko berri baten hasieraren mugarrria da. Gerra-ostean sortutako mundua beste gerra batean sartuko zen, "gerra hotzean" alegia, gerra honetan nazio guztiak bi bloketan banaturik geldituko zirelarik. Zatiketa honen ondorioz latzena Alemaniak jaso zuen, 1871n lortutako batasun estatala deuseztatua izan bait zen eta mundua bezalaxe bi zatitan, bi estatutan banaturik gelditu bait zen. Alemaniako zatiketa, aldiz, ez zen gerraren ondorio zuzena, Gerra Hotzaren fruitua baizik. Kleßmann historialariak erakutsi zuen bezala, 1945etik 1949ra bitartean, Alemaniako etorkizunari zegokionez aliatuek ez zeukaten plangintza zehatzik, bide politiko asko irekita mantentzen zituztelarik. Bi puntutan bakarrik iritsi ziren adostasun batera: Alemaniak aurrerantzean kalte gehiagorik eragin ez zezan neurriak hartu beharra zegoela eta bigarrenik, Alemaniak gerran beste herriei eragindako kaltea berak ordaindu behar zuela. Lehendabiziko helburua egia bihur zedin, Alemaniako berrindartzeari eta herrindustrializazioari behin-betirako uko egin behar zitzaiola pentsatu zuen zenbaitek. Ildo honetatik zihuan Estatu Batuetako Finantz(eta)ko ministraria, Morgenthau, 1944ean Alemania estatu nekazari bihurtzea proposatzean, Plangintza honen mamia honela laburbildu zuen: "Germany's road to peace leads to the farm" ("Alemaniaren bakeranzko bidea baserrira doa"). Nahiz eta Churchill eta Roosevelt hasiera batean ados egon, laster konturatuko ziren, Alemaniak industria behar zuela aliatuek bere bigarren helburua lortu nahi baldin bazuten behintzat, hau da, jasotako kaltearen truke nahi zituzten erreparazioak kobratzeko.

Erreparazioak eskuratzeko, desmilitarizazioa kontrolatzeko eta gizarte alemanean oraindik bizirik mantentzen ziren nazismoaren azken arrastoak garbitzeko, Estatu Batuek, Sobiet Batasunak eta Britainia Haundiak Yaltako bileran (1945eko otsailean) Alemania lau lurraldetan banatzea erabaki zuten, hiruetako bakoitzak eta Frantziak lurralde bat bere menpean hartzen zutelarik. Lau botereen arteko harremanak estutzeko eta

lau lurralde alemanen arteko lotura lortzeko, Berlinen gobernu gisa "Aliatuen Kontrol-Kontseilua" sortu zen. Polonia izan zelako gerran gehien nozitu zuen herria (6 milioi hildako), eta aurrerantzean Alemaniarekiko bere muga hobeto defendatu ahal izateko, Yaltan aliatuek Prusiako ekialdeko lurralde bat eman zioten, Oder eta Neiße ibaietatik harantza zegoena, hain zuzen ere.

Erabaki hauek beranduago, Potsdameko bileran alegia, baieztatu egin ziren. Horretaz gain, erreparazioak ordaintzeko modua zehaztu egin zen: Potsdametik aurrera aliatu bakoitza libre gelditzen zen berak okupatutako lurralde alemanean ordaindu beharreko erreparazioen kopurua finkatzeko. Poloniar zego-kionean, Oder/Neiße inguruko muga berriari oneritzia eman zitzaion, biztanle alemanak lurralde polako berri horietatik irten zitezen neurriak hartuz. Honela, Prusiako zati handi hau 'de facto' poloniar bihurtu zen. Halere, eta hori izan zen Potsdameko bileraren akatsik handiena, behin-betirako izango zen mugaren finkapena aurrerantzean ospatzekoa zen bake-itun baterako utzi zen. Klausula honetan oinarritzen da Alemaniako errebantxisten eskaera: Oder/Neißeko lurraldeak Alemaniarentzat berreskuratzeko. Kontutan hartu behar da, 1945etik 1951ra bitartean Oder/Neißen inguruetatik 3,5 milioi alemanek alde egin behar izan zuela. Hauei gehitu behar zaizkie Txekoslovakiatik alemaniaratu ziren 3 milioiak eta Ekialdeko gainerantzeko herrietatik etorritako beste 2 milioiak.

Jadanik Potsdamen nabari zitezkeen lehen desadostasunak aliatuen Alemaniarekiko politikan. Frantzia bileratik kanpo gelditu zen, ez bait zuen beste hiru botereek Alemaniarentzat erabakitako politika ekonomiko batua onartu nahi. Frantziak federalismo erradikal bat proposatzen zuen, eta gobernuaren erantzunak, Alemaniako ekonomia batua Frantziarentzat arriskugarri izan zitezkeen, Alemania indartzeko lehendabiziko pausua izan bait zitezkeen. Stalin, aldiz, kontzeptu zentralistaren aldekoa zen, Alemania osoan Errusiaren eragin politikoa eta batipat erreparazioen ordainketa zihurtatzeko. Estatu Batuek eta Britainia Handiak zentralismoari uko egiten zioten. Haien ustez, sistema zentralista bat errazago bihur zitezkeen autoritario. Oso



gertu zeukaten oraindik Hitlerekin izandako esperientzia; izan ere, bere diktadura sendotzeko, Hitler 1932an Alemaniako sistema federalaren oinarri guztiak pausoz pauso desegiten hasi bait zen, diktadura zentralista lortu arte.

Azkenean, Frantziaren betoarekin, beste hirurak printzipioz ados jarri ziren batasun ekonomikoaren arloan. Halere, adostasun hori Gerra Hotzaren hastapenak zirela medio, laster kolokan jarri zen. Gerra Hotzaren arrazoiak aztertzerakoan, historiografiaren mailan hiru eskola desberdin daitezke. "Tradizionalistentzat" 1917an hasitako Errusiako espantsionismoan datza Gerra Hotzaren zergatia. "Errebisionistentzat" berriz, gatazkaren sortzailea Estatu Batuetako sistema ekonomikoa izan zen. Atzerriko merkatu zabala zihurtatzeko beharrak eraginda, Estatu Batuetako espantsionismo ekonomikoa Sobiet Batasuneko segurtasun-interes sakonaren aurka zebilen. Hirugarren historialari-talde batek bigarren teoria abiapuntutzat hartzen du, teoria berri batera iristeko; beraien ustez, Gerra Hotza "mekanika erreaktibo" baten ondorioa izan zen. Batak bestearen benetazko interesak ezagutzen eta ulertzen ez zituelako, besteak burutzen zuen politika oker interpretatzen zuen eta nehurri errepresiboak hartu beharrean aurkitzen zen, horrela ekintzak kontraekintza kate konfliktibo luze bat sortuz. Kate edo espiral honen amaiera Gerra Hotza izango zen. Eskema honen arabera Estatu Batuetako agintarien begietan, Sobiet Batasuneko segurtasun-politika mugarik gabeko espantsionismoaren adierazgarri zen. Errepresio gisa uko egin zieten Sobiet Batasunak eskatutako kooperazioari eta diru-laguntzei. Stalinek, bestalde, Estatu Batuetako kooperazioari eza kapitalismo inperialistaren erasotzat jo zuen. Erasoa honi aurre egiteko bere sekurtasun-politika gogortu eta zorrotz egin zuen Ekialdeko herrietan.

Gerra Hotzaren pausorik garrantzitsuenak ezagunak izanik, hemen labur-labur aipatuak izango dira: Trumanen doktrina, Marshallen plangintza ekonomikoa eta alderdi komunisten aliantza "Kominform" (1947); Berlingo blokeoa (1948); OTANen sorrera (1949); Koreako gerratea (1950) eta Varsobiako Paktuaren sorkundeak (1955).

Alemaniaiko arazoa Gerra Hotzaren sortzailea ez bazen ere, Alemania izango zen munduko zatiketa berri horren ondorioak gehien nozitu zituen. Aliatuen arteko kooperazioa amaitzen zen neurrian, Stalinek bere menpean zegoen Alemaniari sistema totalitarioa eta zentralista ezarri zion, beste ekialdeko herrietan egin zuen bezalaxe. Eredua toki guztietan berdintsua izaten zen: alderdi sozialista eta komunistaren arteko batasuna, neurri handi batean bortxatuta, disidenteen aurkako errepresio bortitza, industria eta bankaren nazionalizazioa, nekazal erreforma eta kulturaren instrumentalizazio politikoa. Kontestu horretan argi zegoen, ekialdeko zonan agintzen zuen alderdi komunista berriaren batasun nazionalaren aldeko propagandak beste zonatan ezetza jaso behar zuela. 1947ko apirilean bildutako Alemania osoko presidente erregionalen batzarrak porrot egin zuen, batasun nazionala lortzeko azken aukera galtzen zelarik. Sobiet Batasunaren menpeko Alemanian zenbait hauteskunde antolatu eta manipulatu egin ziren, ondoren 1949an "Alemaniako Errepublika Demokratikoa" sortzeko. Hiru urte berandua go, estatu sozialista berriaren federalismo alemanaren tradizioa hautsi egin zen zentralismoaren mesedetan. Bost "Länder" deuseztatu egin ziren 14 distritu sortuz. Erreparazioei dagokienean, Sobietarren politika RDA-n askoz zorrotzagoa izan zen beste hiru botereena RFAn baino. Lantegi osoak kendu eta Errusiara eramane zituzten; beste batzuk, nahiz eta Alemanian bertan utzi, Estatu Sobietarraren jabeago bihurtzen ziren. Politika honi amaiera 1953an eman zitzaion, mendebaldean, herriz, bi urte lehenago. Zenbait kalkuluren arabera, Yaltan Alemania osorako erabakitako erreparazio-kopurua 10 mila milioi dolarretakoa izan bazen ere, Sobietarrek Alemania osoari zegokion kopurua kobratu zuten bere menpeko lurraldean; RFAk, herriz, mendebaldeko botereek hasiera batean pentsatutakoaren ehuneko 40a bakarrik ordaindu behar izan zuen. Politika honek eragindako egoera latzaren aurka protestatzeko 1953ko ekainean 400.000 langile altxatu ziren RDAko herri gehienetan. Tanke sobietarrek matxinadei aurre egin zieten, langileen artean 21 pertsona hilik gertatu zirelarik. RDA 1956an Varsobiako Paktuan sartu zen. Biztanlegoaren protesta isilari, mendebalderako ihesari

alegia, harresia ezarri zitzaion Berlinen 1961ean, horrela "Lehen langileen eta nekazarien estatua lurralde alemanean" ekialdeko blokean erabat integraturik gelditzen zelarik.

Bitartean, amankomuneko antikomunismoa zela eta, mende-baldeko hiru botereek beren eritziak hurbildu egin zituzten. Morgenthauk proposatutako plangintza behin-beitirako haztertz, komunismoaren hedapena geldierazteko mendebaldeko Alemania indartsu bat behar zutela zioen Byrnes-ek, Estatu Batuetako kanpo-arazoetarako ministroak, 1946an Stuttgarten emandako bere hitzaldi famatuan. Helburu hori lortu ahal izateko, eta bide batez Alemaniako arazo ekonomikoak konpontzeko, Britainia Haundiaren eta Estatu Batuen menpeko bi lurralde alemanen batasun ekonomikoa eta administratiboa aurkeztu zuen ("Bizone"). Sobietarren eta Frantsesen protestek ez zuten ezertarako balio izan. Urtebete beranduago, Marshallen plangintza ekonomikoaren bidez, Ingalaterra eta Frantzia nola edo hala parte hartzera behartu zituzten, bestela, diru-laguntzarik gabe haiek okupatutako lurralde alemanetan konpondu ezinezko arazo ekonomikoak izango bait zituzten. Estatu Batuetako laguntza ekonomikoa onartzean, Frantziak eta Britainia Haundiak ondorio politikoak ere onartu behar izan zituzten, hau da, Trumanek bultzatutako mendebaldeko estatu aleman batua.

Aipatutako "Bizone"tik "Errepublikak Federal"era pauso gutxi gelditzen ziren. 1948ko otsailean Londresen "sei botereek" (Frantziak, Estatu Batuek, Britainia Haundiak gehi Beneluxek) mendebaldeko Alemanian gobernu batua osatzea erabaki zuten. Hori egin aurretik, udan moneta-erreforma burutu zen, Sobietarren haserrea eta Berlingo blokeoa probokatuz. Alemaniako antzinako tradizio federala berpiztuz eta sendotuz, lehen-go estatuen eta beste zenbait sortu berriren autonomia errespetatu egin zen, horien parlamentuetan hauteskunde libreak antolatu zirelarik. 1948ko irailean bildu zen Bonnen "Länder"-etako hauteskundearen emaitzen arabera osatutako "Kontseilu Parlamentarioa" ("Parlamentarischer Rat"). Adenauer demokristauren gidaritzapean... Kontseilu honetan konstituzio berria eztabaidatu eta 1949an onartu zenean, abuztuan RFAko lehen

hauteskunde nazionalak burutu ziren. Parlamentu berriak Adenauer hautatu zuen kantziler, lider demokristauak bere buruari emandako botu baten bidez lortutako gehiengoari esker. Aurreantzean, aliatuak Alemaniarekiko zeukaten kontrol-eskubidea gutxiago erabiltzen hasi ziren, 1955ean RFA OTANen sartu arte, orduan utzi bait zioten erabat beren kontrol-eskubideari.

Beraz laburbilduz, Alemaniako batasun nazionala 1949an hautsi izan bazen, zatiketa hori aurreko mendean sustraitzen dela esan genezake. Batetik, nazioaren eraikuntza gaizki burutu zen, batasunaren lorpena erregimenetik, "goitik" inposatua izan zelako, eta bestetik, botere neoabsolutistek 1871n sortutako estatu batuan indar gehiegi gorde zutelako. Guzti honengatik, estatu hori kontsentsurik gabe, ahul eta autoritarismoari irekia jaio zen. Egoera horren emaitza bi mundu-gerrak izan ziren, horietako azkena batasun nazionalaren horrero gertatu zelarik. Alemanok 40 urtez itxaron behar izan dugu historiaren martxa, batasunerako bidetik berriro abiatzeko<sup>2</sup>.

## V. Alemania batasunerako bidean. Aukerak eta arazoak

Leninek alemanei buruz honako txiste hau kontatu omen zuen: aleman talde bat tren-geltokian bilduta eta iraultza burutzeko nonbaitera abiatu beharrean dagoela, ez litzateke taldeko inor trenera igoko, aurretik "Txartelak, non saltzen dira?" galdetu gabe. Alemanon leialtasun prusiano hori 1989ko ekialdeko Europako iraultza demokratikoan ere antzeman zitezkeen. Sobiet Batasunean, Polonian, Hungarian eta Txekoslovakian Gorbachoven Perestroikak aspaldi erreformak eginak zituela, RDan Honecker-ek eta bere klan neoestalinistak protesta gehiegirik gabe ospatzen zuten estatuaren 40garren urtebetzea. Halere, ekialdeko alemanen protesta-bide tradizionalak eta isilak, atzerirako ihesak alegia, estatuaren ekonomiari kalte izugarriak eragiteaz gain, bertan gelditutako herrikideen sistemarekiko haserrea handitu egin zuen. Azkenik, Leipzigen zenbait ausartek eliza protestantearen habesean bere protestak kaleratzea erabaki

zuenean. Honeckerek berea egina zuen. Politburok lider zaharri kendutako konfidantza izan bait zen sistemaren hiltzoriaren hasiera, lurralde aleman horretan 1932z geroztik antolatutako lehendabiziko hauteskunde demokratiko hauek, momentuz, sistemaren amaiera markatu dutelarik. Bi datu horien bitarteko prozesu politikoa prentsari esker ongi ezaguna dugunez, ez dugu hemen errepikatuko. Gertakizunen nondik norakoak alde batera utziz, datoen lerrootan Alemaniako bigarren batasunaren zenbait arlotako ondorio posibleen azterketa egingo da, Alemaniatik at agian ezagutzen ez den zenbait datu eta eritzi emanaz, eta era berean hainbat gogoeta analitiko eginez<sup>3</sup>.

### Arlo politikoa

Aurtengo martxoaren 18an antolatutako hauteskundeen emaitzek argi eta garbi utzi dute ekialdeko alemanen gehien-goaren nahia: bere estatuaren desagertpena, RFArekin estatu aleman bakarra osatu ahal izateko. Ez da helburu hau defenditu ez duen alderdirik izan. Inkesta guztien aurka, hiru alderditako aliantza demokristau-kontserbatzailea atera zen garaile, botu gutxigatik gehiengo absolutua lortu ez zuelarik. Hiru alderdiok hurbiltzeko, RFako Kohl kantzilerraren koalizioaren aldeko eritzia erabakikorra izan zen. Koalizioa oso berandu osatua zen, bere alderdi nagusia 40 urtetan zehar erregimenaren zutabe bat izan zen, eta horrezaz gain, bere liderrik ezagunenak polizia sekretuarekin ("Stasi") izandako harremanengatik dimititu behar izan zuen. Guzti hau kontutan harturik, inork ez zuen lortutako garaipen biribila espero. Ustegabeko emaitza hau aztertzean, hiru faktore dira aintzakotzat hartu beharrekoak. Alde batetik, Hungariako hauteskundeek ondoren konfirmatuko zuten bezala, "Sozialismo" hitzak Europako ekialdean lortutako izen txarrarengatik, demokratizatzeako antolatutako hauteskundeetan ezkerreko alderdiak desabantaila handiz abiatu dira. Bestetik, eskuineko alderdiek garaipena eskuratu dute, botu-emaileen begietan alternatiba garbiena, erradikalena eta, kontsumismoari dagokionean, tentagarriena delako. Azkenik, eta argudio honek Alemaniako

egocera berezian pisu handia du, RDA tarrek kontserbatzailei eman diete bere konfidantza, hain zuzen ere Bonnen kontserbatzaileak agintean daudelako, eta alderdi berekoak izanik, Berlin eta Bonnen arteko ardatzak RDAk hain premiazko daukan diru-laguntzaren beharra errazago konponduko delakoan. Bonnen agintean beste alderdi bat izan balitz, hauteskundeetan emaitzek beste norabide bat har zezaketela hipotesi posiblea da.

Hasierako poza baretu ondoren, Kohlen jarraitzaileen artean beldurra agertu da. Oskar Lafontaineek, sozialdemokraten liderak, kontserbatzaileen lasaitasuna hautsi egin zuen. "RDAn lehendabiziko hauteskundeetan garaile ateratzen denak", zioen bere porrota ezagutu eta berehala, "izugarritzko lana egin beharko du hurrengoetan galtzaile ez ateratzeko". Izan ere, Kohlek hauteskunde-kanpainan zabalduko promesak eta itzaropenak orain bete egin behar ditu, Alemaniako alde batean eta bestean, RDAkoek lehenbailehengo batasuna, ekonomiaren birmoldaketa eta kontsumo-gizartearen abantailak espero badi-tuzte, RFAkoek ez dute guzti hori egia bihurtzeko zerga gehiagorik ordaindu nahi, Kohlek prometitua zuen bezala. RFAn giro politiko eta soziala batasunaren aldekoa bada ere, batasuna dagoeneko, eta batez ere behemilako klaseei, zama handia bihurtu zaie. Arazo eta zalantza hauen aurrean, Kohlek moteldu egin du bere politikaren martxa. Bere hasierako plangintza, RFAn abendurako konbokatutako hauteskundeak Alemania Batuko lehendabizikoak izatea, alde batera utzi du. Moneta-erreforma martxorako edo apirilera pentsatuta bazegoen ere, ekainerako atzeratua izan da eta gauregun data hori ere kolokan dago. Batasun politikoa, Kohlen eritziz, RDAko gobernu berriaren lehen eginbeharra bazen ere, orain moneta-erreformaren ondorioz beranduago iritsiko dela dio. Teoriaz "batasunerako bide azkarra", hau da RFAko Oinarritzko Legearen 23. artikulua irekitzen duena, defenditzen jarraitzen badu ere, ez du inork noiz aplikatuko den zehazten.

Izan ere, artikulua honek eztabaida handia sortu du Alemaniako zirkulu politikoetan. Artikulu honen arabera RFAtik kan-

poko edozein lurralde aleman bere parlamentuaren botazio baten bidez RFAn sar bait daiteke, 1957tik 1959ra Frantziaren menpean zegoen "Saargebiet"-ekin gertatu zen bezala. Batasun politikoa burutzeko beste aukera, RFAko Oinarrizko Legearen 146. artikulua ematen duena da: "Oinarrizko Lege honen iraupena herri alemanak aukera librean beste konstituzio bat onartzen duenean bukatuko da". Arazo juridiko honen atzetik gatazka politiko-ideologiko bat ikus daiteke. 23. artikulua aldekoentzat Alemania Batua RFA handia litzateke, oraingo sistema politiko, ekonomiko, sozial eta militarrekin. 146. artikulua defenditzen dutenentzat, ordea, Alemania Batuak estatu herri bat izan beharko luke, edo behintzat RFA handia, baina berritua. Orain bi zatitan banatutako herri osoak parte hartu behar duela estatu berriaren eraikuntzan, diote, eta ez bakarrik RFAko alemanek. Helburu hau lortu ahal izateko Alemania osoko hauteskundeak, parlamentu batuaren osaketa eta, RFAko Oinarrizko Legea eredu eta abiapuntutzat hartuz, konstituzio berriaren eztabaida eta onarpena eskatzen dituzte. Bide honetatik joanez gero, aleman guztion arteko kontsentsuan oinarritutako estatua lortuko litzateke, eta horrezaz gain, RFAko Oinarrizko Legea baina hobea den konstituzioa, azken honek zenbait eskubide berri garantizatuko litzukeelarik, hala nola: ekologiarri edo emakumeen berdintasunari dagozkionak, edo gobernuaren aurka erreferendum bat burutzeko posibilitatearena, besteak beste.

Hasiera batean kontserbatzaileek 23. artikulua bidea eta ezkertiarrek 146garrenarena defenditzen bazuten ere, hauteskuntzeen emaitzak ikusita, gutxi izan dira 146garrenarekin gelditu direnak, sozialdemokratik ere, eritziz aldatzen hasiak bait dira. Gauzak horrela izanik, kontserbatzaileak nagusitu egin dira eta dirudienez, azkenik hartutako irtenbidea RFA 23. artikulua bitartez handitzearena izango da, aldi berean Oinarrizko Legea gutxienez aldatuta bat sartuko delarik. Izan ere, Oinarrizko Legearen sarrerak dioenez, batasun nazionala burutu arte behin-behineko konstituzioa da. Horrexegatik hain zuzen ere, deitu zitzaion 1949an, "Oinarrizko Legea" ("Grundgesetz") eta ez "Konstituzioa". Behin batasun nazionala buruturik, behin-

-behineko ezaugarri hori kendu beharko zaio, etorkizunean erre-bantxistek ateak hertsirik izan ditzaten. Hau egiten ez bada, Alemania III. "Reich"eko mugetara zabaldu nahi dutenek konstituzioa lagungarri izango lukete.

## Arlo Ekonomikoa

Konstituzioaren inguruko eztabaidak baretu ondoren, ekonomia da istilu gehienak sortzen dituen arloa. Kohl presidenteak eta Waigel bere finantzetako ministro babaroak moneta-erreforma batasun politikoaren ezinbesteko baldintzatat jo zutenetik, ez da erreforma burutzeko ideia herririk gabeko egun bat ere pasa. Momentuz proposamen asko egon badaude ere, ez da oraindik plangintza zehatzik aurkeztu. Kohlek hauteskunde-kanpainan txanponen trukea 1 : 1 izango zela ziurtatu zuen. Orain, aldiz, bere banku nazionalak ("Deutsche Bank") 1:2ko trukea proposatu du, hau da, marko federal bat ekialdeko bi markoren truke, horrela ekialdeko alderdi politikoen hurbilketa eta gobernu berrian sozialdemokraten sarrera posiblea probokatuz. Alde batetik, Kohlek datozen hauteskundeetan bere gehiengoa ez badu kolokan jarri nahi, bere hitza bete beharko duela argi dago. Bestalde, nola kontrolatu 1:1eko trukeak zalantzarik gabe sortuko duen izugarritzko inflazioa? Markoaren ahultzeari munduko merkatuetan nola aurre egin, RFAko ekonomia neurri handi batean esportazioari esker bizi dela kontutan harturik? Arazo honen oinarria RDAko herritarrek banketxeetan gordetako dirutza da, orain arte beraien soldatak zertan gastatzerik ez bait zeukaten. Momentu honetan diru hori balio gutxikoa bada ere, RDAko soldatak bezala, RFAko markoetara trukatzan den egunean, egoera hori erabat aldatuko da. Merkatuetan milioika marko sortuko da, industriak kontsumo-eskaera horri aurre egin ezin izango diolarik, behar adinako produkturik ez bait da izango eta inflazioa eta markoaren devalorizazioa emango dira.

Dena den, RFAko enpresagizonek ez dute moneta-erreforma burutu arte geldirik egon nahi. Zenbait ahots kritikok dioenez



RDAko kolonizazioa jadanik hasita dago. RDAko ekonomia lur jota utzi bait dute Honeckerrek eta bere kideek. Mendebaldeko soziorik aurkitzen ez duten lantegiak desagertu egingo dira. Baina nola pribatizatu legerik gabe orain arte "herriko jabegoa" izandako enpresak? Pribatizatu behar ote dira denak ala komeni ote da zenbait arlotan enpresa estatalak mantentzea edo beste formula batzuk, kooperatibak esate baterako, asmatzea? Zalantza guztien gainetik, lehendabiziko enpresa-erosketak edo kapital-sartzeak praktikan jarri dira, kotxe-industria aitzindari izan delarik. Volkswagen eta Opel etxeek RDAko "IFA" konbinatu estatalaren parte handi bat erosi dute. IFAn orain arte "Wartburg" eta "Trabant" kotxeak egiten ziren eta, batazbeste, erosle batek horietako plastikozko kotxe bat eskuratu ahal izateko 12 edo 14 urte itxaron behar izaten zuen. Gauregun, nahiz eta produkzioa oraingoz bere osotasunean mantendu, ez da kotxe bat ere saltzen, Administrazioari ez bada, IFAko zuzendariak orain dela gutxi publikoki aitortu duen bezala. "RDAko kotxegintzan", gaineratu du Voigt zuzendariak, "100.000 lanpostu dago arrisku biziari". Gauza bera esan daiteke beste arlo ekonomikoetat, non RFAko kapitala buru-belarri lanean ari den, hala nola: AEG, munduko tren-bagoi enpresarik handiena, RDAko "Kombinat Maschinentriebbau" erosi nahian dabil; Alianza aseguru-etxeak RDAko aseguru estatalarekin lortu du aurre-akordio bat; Krupp, Mannesmann eta Thyssen heste hainbat enpresarekin negoziatzen ari dira, etab.

Halere, hasierako euforia baretu ondoren, kezkek eta zalantzak dira nagusi enpresa-gizonen eta politikoen artean. Atzerriko inbertsioak erakartzeko azpiegitura sendo bat ezinbesteko baldintza bada, RDAn baldintza hori ez da urrutitik ere betetzen. Telex edo Telefax apenas ezagutzen da, gerraurreko telefono-sarea erabat zaharkituta dago eta interferentziarik gabeko linea mirari bat da RDAn. Ildo honetatik jarraituz, autopista-sarearen ehuneko 75 Hitlerren garaikoa da eta gauregun traktoreentzat baliagarria bada, ezin daiteke gauza bera esan kotxeentzat. Trenbideen sarearen egoera ez da hobea. Tren gehienak ez dira elektrikoak, ikatz-energiak mugitzen direnak baizik. Abiaduraren topea gehienetan 100 km orduko izaten da.

Industria lur jota badago eta modernizazio-prozesua buruzteko azpiegitura falta bada, nekazarien egoera oraindik ilunagoa da. Adu guztiak ados daude RDAko 700.000 nekazariak Europako merkatuan habesik gabe galduta daudela diotenean, beraien produktuak Europako nekazal produktuak baino hiru bider garestiagoak bait dira, batzaz beste.

Azkenik, banka-arloari buruzko beste datu bat. Orain dela gutxi aurkitu dute RDAko Banku Estatalak inolako dibisa-erreserbarik ez daukala. Estatuaren diru-zorrak, RFAko "Bundesbank"ek bere gain hartu beharko dituenak, 20.000 milioi markotakoak dira. Nola bete diru-hutsune hau? Horixe da gakoa. Defizita konpontzen ez bada, kalte ekonomiko eta sozialak izugarriak izango dira.

### **Arlo soziala**

Alemaniko alderdi politiko guztiak bat datoz erreforma ekonomikoak eta erreforma sozialak batasun nazionalerako bidean banatu ezinezko bikotea osatu behar dutela esatean. Ekonomiaren birmoldaketak sortutako arazo latzenetariko bat RDAn orain arte ezezaguna izan den langabezia izango da. Azken kalkuluen arabera, hasierako urteetan gutxienez 800.000 eta gehienez 1,5 milioi langabetu izango da. Langabezia RDAn orain arte fenomeno ezezaguna izan dela kontutan harturik, arazo honi aurre egiteko azpiegitura osoa ezerezetik eraiki behar da, hala nola enplegu-bulegoak, langabezi aseguruia eta prestakuntza-ikastaroak. Proiektu horiek egia bihurtzeko behar diren milioiak nondik atera, zehatz-mehatz inork ez daki. RFAko finantzaketako ministroak, CSU alderdiko Waigelek hain zuzen ere, RFAko ekonomiaren martxa ezin hobeari esker estatuak gehiago kobratutako zergen bitartez konpondu nahi du arazoa. Dirudienez datorren legislaturarako prometitutako zergen gutxitzea ahaztu egin zaio. Reagani eta Thatcheri kopiatutako politika liberal hori nahitanahiez baztertu beharko du, langabetuak ezezik pentsionistak ere babestu beharko bait dira. Gauregun RDAko pentsionista batek 340 markotik 470era bitarteko marko-

tako pentsioa kobratzen du. Nahiz eta diru hori mendebaldeko markotan jaso (22.100-30.500 pezeta), bizitzeko ez litzateke nahikoa izango, klikadurak eta alokairuak nabarmenki gora egingo bait dute, estatuak subentzioak kentzean. RFAko Adituen Kontseiluko zuzendariak, Pohl katedratikoak hain zuzen ere, egindako ikerketa baten arabera RFAk urtero 30.000 milioi marko ordaindu beharko ditu, kalkulaturako 1,2 milioi langaberturi hilean 1.000 marko (65.000 pezeta) ordaintzeko eta pentsioak 500 markotan igo ahal izateko.

Halere, dirutza hori ez litzateke nahikoa izango. Ekialdeko Alemanian bizitzaren kalitatea zertxobait igo nahi bada, medikuntzaren egoera penagarria honako datu hauetan isladatzen da: azken hilabeteotan 2.000 sendagilek eta 1.200 dentistek egin dute alde. Europa mailan ekografia egiteko tresna bakoitzari dagokion biztanle-kopurua 2.500ekoa bada, RDAn 32.000koa da. RDAn medikuntza sendoa behar-beharrezkoa da, ekologiaren aurkako krimenak biztanleen osasunarengan eragindako kaltea izugarritzakoa bait da. Airearen kutsadura European neurtutako batezbestekoa haina hamar bider handiagoa da. Sulfuro dioxidoaren emisioa Europakoa baina hiru bider handiagoa izanik, zenbait lurralde industrialetan jaioberriengan deformazioak antzeman ziren, aldi berean hilkortasuna igotzen zelarik. Zenbait tokitan edateko uraren eskasia eman da, RDAko ibaien ehuneko 75 erabat kutsaturik bait dago.

Horrezaz gain justizia, administrazioa eta hezkuntz arloak goitik bera aldatu behar direla kontutan harturik, RDAn benetazko *iraultza* gertatzen ari dela esatea, ez da gehiegikeria. RDAn bertan emango den aldakuntza izugarria izango da eta aldakuntza horren ondorioak nazioarteko politikan ez dira txantxetakoak izango.

## Nazioartekoa

Goian aipatu dugun bezala, 1945az geroztik munduko ordenu berria neurri handi batean Alemaniako bi blokeen arteko banaketan zetzan. Alemania batasunerako bidean abiatu denetik

eta ekialdeko blokearen desagerpenaren hastapenekin, ordenu berria asmatu beharko da. 1945ean bezalaxe, Alemaniak jokutzen duen rola berriro garrantzi handikoa eta berezia da, mendebalde eta ekialdearen arteko zubia eta oreka bait da. Momentuz, ez dago ezer erabakita eta munduko egitura berria ezagutzeko eta bertan, Alemaniak zein status izango duen jakiteko "4 gehi 2" bileretan erabakitakoaren zain egon beharko dugu. Gaia berez zaila izanik, Kohl kantzilerrak bere hankasartze traketsuekin oraindik gehiago korapilatu egin du. 40 urte asko izanda ere, gertatutakoa ahazteko ez dira nahikoak. Nola ez dituzte Poloniarrek Kohlen Oder/Neiße mugari buruzko azalpenak haien segurtasunaren aurkako erasotzat joko? Ahaztutako erreparazioen gaia berriro plazaratzean ere ez da oso trebe ibili. Errefuxiatu elkarteak nahiak bete edo eskuin erradikalari botuak kendu badizkio ere, estrategia honek nazio artean fantasma zaharrak berpizteko balio dio. Havel presidentek garbi hitz egin du, bere herrian, Alemanekiko beldurra oraindik egon badagoela esatean. Txekoslovakian horrela bada, Polonian eta beste zenbait herritan zer esanik ez.

Halere, Kohlek berak behin baino gehiagotan ziurtatu duenez, Alemania handia ez da laugarren "Reich" bat izango, eta gizarte alemanean politika espantsionista eta militaristarentzat ez dago inolako oinarririk. Kohlen hankasartzeak prentsa kontserbatzailearen barruan ere kritikatu izan dira disimulurik gabe, eta Kohlen aholkularien arteko kontsentsu izkutuaren arabera, atzerriko politika, askoz finago eta zuhurrago mugitzen den Genscherrri, kanpo-arazoetarako ministroari alegia, utzi behar zaio. Izan ere, azken urteotako bake-mugimendu indartsuaren arrastoak Alemaniako gizartean edonon aurki daitezke; aipa dezagun adibide gisa, "Der Spiegel" astekari politiko garrantzitsuaren azken ale batean bere erreportaia nagusian "Soldaduak, zertarako oraindik", galdetzen zuela. Ekialdeko arriskurik gabe, generalek eta soldaduek ez dakite zer egin, noren aurka defendituko dute beren herria? RDAko "Volksarmee"aren egoera dirudienez berdintsua da. Aurtengo urtarrilean 55.000 gaztek koarteletan aurkezteko deia jaso ondoren, horietako ehuneko hamarrak prorroga eskatu zuen, RDAko historian erabateko

errekorra markatzen zutelarik. RFAn ez dira bakarrik Berdeak eta Alternatiboak blokeen desagerpena eskatzen dutenak; zenbait aditu sozialdemokratak, hala nola "Ostpolitik"aren ideologoa den Egon Bahrek ere gauza bera eskatzen bait du. Genscherek OTAN eta Varsobiako Paktua "desmilitarizatu" eta "politizatu" egin behar direla esatean, sozialdemokratei abenduko hau-teskundeetan oso haliagarria izan daitekeen zubia luzatzen die. Izan ere, orain arte sistema militarrean galdutako dirutzari munduko egoera berri honetan beste hainbat arlotan askoz etekin hobe atera dakioke. Ez da harritzekoa beraz, ejerzitoen aurkako kritikak piztea eta desmilitarizazioaren aldeko eritzien hedapena.

Negoziaketen hastapenetan gaudenez, ez dago oraingoz munduko ordenu berria nolakoa izango den jakiterik. Halere, nire eritziz, honako hipotesi hauek aurrera daitezke:

1. Munduko ordenu berria baketsua izan dadin Moskuko segurtasuna errespetatzea ezinbesteko baldintza da. Baldintza hau beteko litzateke Alemania batuak egun dauden mugak behin-betirako ziurtatu eta era berean arma biologiko, kimiko eta atomikoei here lurrean uko eginez gero. Horrezaz gain, RFako Oinarizko Legean (Art. 26,1) azaltzen den gerra sortzeko debekua berriro onartu beharko luke.

2. OTANek here oraingo egitura militarra edukirik, OTANen erabat sartutako Alemania batua, sobietarren segurtasunaren aurka legoke. Beraz, komeniko litzateke status berezia asmatzea Alemaniarentzat. Irtenbideren bat Genscherek proposatutakoa litzateke, orain RDAkoa den lurralde alemanak OTANetik kanpo uztearena alegia. Beste aukera bat Alemaniako egitura militarra zeharo aldatzea litzateke, ejerzitoari eta armamentuari ezaugarri defentsibo hutsak emanez. Prozesu hau blokeen aldaketa orokor baten barruan emango da, aldaketa horren ondorioa izango delarik. Vienan eta Helsinkin aipatutako desmilitarizazioa lortuko balitz, Alemania eta mundu osorako bide berri asko irekiko dira.

3. Ez da oraingoz epe motzean Alemaniako neutralitatearen aukerarik ikusten, nahiz eta agian aurrerantzean Alemaniako biz-

tanleen gehiengoa helburu horrekin bat etorri. Alde batetik, Estatu Batuek ez lukete ardatz atlantikoaren ahultzerik onartuko, bestetik, Sobiet Batasunak eta beste zenbait estatuk ere ez dute Alemania neutralegia bihurtu nahi, kontrako iritzi publikoak behin baino gehiagotan entzuten badira ere. Alemania neutrala kontrola ezinezkoa bihurtuko ez ote denaren beldur bait daude. Arrazoi honengatik soldadu amerikar eta sobietar dezente geldituko dira Alemanian datozen urteotan, nahiz eta gauregun-go kopurua (245.000 amerikar, 380.000 sobietar) gutxitu egingo den.

4. Alemaniako batasunak Europako batasunaren bultzagile bihurtu behar du, ez bakarrik Europako herriei Alemania handiarekiko beldurra kentzearen, Adenauerrek eta Schumacherrek hasitako politika europarrak, Alemaniako azken 40 urteotako atzerri-politikaren ardatz nagusiak porrot egin ez dezan ere bai. Eta bide honetatik doazen Kohlen azken iniziatiben eta adierazpenen artean, hona hemen adibide gisa, Dublinen ospatu beharreko presidenteen arteko gailurraren proposamena. Horiei esker, Alemaniako kantzilerrak atzerri-politikaren arloan galdutako zenbait puntu berreskuratu egin du.

## VI. Konklusioak

Alemaniako batasun nazionalaren arazoa ez da gauregungo fenomeno, azken bi mendetakoak baizik. Batasun nazionala eta estatala 1871n baldintza txarretan lortua izateagatik, agresibo eta autoritario bihurtutako nazionalismo alemanak ondorengo hamarkadatan bai Alemanian bertan, bai Alemaniatik at arazo ugari sortu zuen, Bigarren Mundu-Gerraren ostean erabat deuseztatua izan arte.

1945az geroztik sortutako nazionalismo aleman berriak, ordea, honako ezaugarri nagusiak zeuzkan: nazionalsozialismoaren historiaren ahantzia, antikomunismo bortitza, Estatu Batuetako baloreen arabera orientazio politiko eta morala eta

azkenik, arrakasta ekonomikoak eragindako harrotasur "ekonomiko nazionala".

Gauregun, bere osotasunean gelditzen den ezaugarri bakarra azkena dela esan daiteke. Batetik, 1968az geroztik Alemaniako historia, eta III. Reichekoa batipat, alemanon kontzientziara itzuli da; bestetik, Willy Brandten "Ostpolitik"ek ideologia antikomunista ahuldu egin du; eta azkenik Vietnamek, eta Europaren eta Estatu Batuen arteko tentsioak alemanon Estatu Batuekiko mi-respen itsua moteldu egin dute.

Habermas filosofoak "DM (=Deutsche Mark) Nationalismus" deitutako identitate ekonomiko nazional hori, Kohlen politikari prepotentean isladatzen da, esate baterako Poloniako muga erreparazio-eskaeren ukoarekin trukatu nahi izatean. Bide hone-tatik jarraituz gero, gure arazo nazionala historian zehar lehenda-biziko aldiz askatasunean konpontzeko aukera galdu egingo genuke alemanok, estatu berria oinarririk gabe, kontsentsurik gabe eta egoera ekonomiko berezi bati esker jaioko litzateke-lako, bere barruan berriro galtzaileak eta irabazleak egonik. Hau ezin litzateke identitate nazional demokratiko baten hasiera izan. Batasunerako bidean dauden oztupo guztiak gaingiditzaiek ez du pena mereziko, historiari ikasteko eta identitate demokratikoaz hornitutako estatu berria eraikitzeko ez bada. Helburu hori lortu ahal izateko, nazio-kontzeptu klasikoak alde batera utzi beharko ditugu, nazio etniko eta historikoari baino, gizarte moderno, ireki, demokratiko eta pluralistari gure arreta eskainiz. Hau lortuz gero, lurperatu egingo dira betirako fantasma zaharrak eta bai Alemania eta baita Europa ere aberatsagoak izango dira.

*L.M.*

<sup>1</sup> 1848 baino lehenagoko Alemaniako historiari buruzko azterketa orokorrik onenetarikoak Hans-Ulrich Wehlerena da: *Deutsche Gesellschaftsgeschichte*, bi ale (I: 1700-1815; II: 1815-1845/49), München 1987 (Goethe eta Schillerren aipamena 41. or.); 1848 ondorengo historiari dagokionez, ikus, Craig, Gordon A.: *Deutsche Geschichte 1866-1945*, München 1980 (bertsio ingelesa; Oxford U.P. 1978); Wehler, Hans-Ulrich: *Das Deutsche Kaiserreich 1871-1918*, Göttingen 1980; Nazionalismo alemanaren funtsezko aldaketa eta Alemaniako "bide berezia"ri buruzko tesiak Heinrich-August Winklerrek azaltzen du: *Liberalismus und Antiliberalismus. Studien zur politischen Sozialgeschichte des 19. und 20. Jahrhunderts*, Göttingen 1979. Bere tesiak Berdahlek burututako hausnarketa batean oinarritzen dira: Berdahl, Robert M.: *New thoughts on German Nationalism*, In: *American Historical Review* 77, 1972, 65-80. or.

Gaztelaniaz Alemaniako historiari buruz ezer gutxi dago argitaratuta, esate baterako: Droz, J.: *La formación de la unidad alemana 1789/1871*, Barcelona 1973; Guillen, P.: *El Imperio Alemán (1871-1918)*, Barcelona 1973; León Conde, Angel / Gutiérrez de Benito, Eduardo: *Alemania desde la unificación hasta 1914*, Madrid 1985.

<sup>2</sup> Alemaniako zatiketari buruzko liburuak onena eta berriena honako hau dugu: Kleßmann, Christoph: *Die doppelte Staatsgründung. Deutsche Geschichte 1945-1955: horrezaz gain ikusi Loth, W.: The American Non-Policy towards Eastern Europe 1943-1947*, Tromsø 1978. Gaztelaniaz ikus daiteke García de Cortázar, Fernando / Lorenzo Espinosa, José María: *Historia del mundo actual 1945-1989*, Madrid 1989, Hitlerren politika zentralista azaltzen da In: Broszat, Martin: *Der Staat Hitlers*, München 1978, ikus, bereziki 130-172. or. Gaztelaniaz Collottiren liburua aipatu behar da: Collotti, Enzo: *La Alemania Nazi*, Madrid 1972.

<sup>3</sup> Datozen erroetako iturria nagusia Alemaniako hainbat egunkariak (Frankfurter Rundschau, Frankfurter Allgemeine Zeitungek), aldizkariak (Der Spiegel, Der Stern, Die Zeit) eta telebistak (SAT 1-k, RTL-k) azken hilabeteotan emandako informazioa da.



# Euskal prentsa 1936ko uztailaren 18aren aurretik

Karmelo Garitaonandia

## 1. Sarrera

Hogeitamargarreneko hamarkadan, Hego Euskal Herriko prentsa, arlo politikoko alderdi edo korrante ideologiko guztiek eragindako enpresek bultzatutako komunikabidea zen (*El Noticiero Bilbaíno*-ren salbuespen bakarrarekin). Irakurle bakoitzak, edo eta gutxienez ere irakurle politiko bakoitzak, bere egunkaria zeukan, Donostiako sektorerik integristarenetik hasi (*La Constancia*) eta errepublikartasun bizkaitarreraino (*El Liberal*) eskuinetik (*El Pueblo Vasco*) eta nazionalismotik (*Euzkadi*) pasata. Alderdiek artean, egunkaria zuten beren ideiak zabaltzeko funtsezko tresna.

Prensa espainiarrak orokorki, eraldaketa sakonak izan zituen XIX. Mendearen amaieratik eta kazetal enpresa garrantzitsuak

sortu ziren (*ABC*, *El Debate*, *El Sol*, *La Vanguardia*, etab.), baina kontzepzio informatzaileago batetik abiatu arren, egunkaria artean, gizarte zibilean alderdien ideologiak eta kritzi-korronteak sartzeko tresna zen. Hego Euskal Herria ere ez zen salbuespena. Bizitza publikoan eskua sartzeko erizpide horrek, *Euzkadi*, *La Tarde* eta *Excelsior* egunkariak sortzera eraman zuen nazionalismoa ere, *El Pueblo Vasco* sortzera (1910) maurismoa, *El Diario Vasco* sortzera (1934) Gipuzkoako *Renovación Española*, etab.

Gerra zibila iritsi arte, Gobernuak prentsari buruz jarraitutako politika, libertate formalen ikuspegi liberal batean oinarritutakoa izan zen, nahiz eta kontrapuntu bat baino gehiago egon. Lehenik, *Ley de Defensa de la República*, zegoen 1931ko Urrian onetsia eta honek isunak eta suspentsioak ezartzen zituen, besteren artean, ondorengoak egiten zituztenentzat: *incitaran a resistir las leyes o las disposiciones de la autoridad; la difusión de noticias que pudieran perturbar la paz o el orden público* eta *la apología del régimen monárquico*. Lege horretan oinarrituta jasan zituzten etenaldiak Hego Euskal Herrian zenbait alditan *La Gaceta del Norte*-k, *Euzkadi*-k, *El Pueblo Vasco*-k eta beste hainbatek, nahiz eta egia bada ere, eskuindarren egunkari guztiek eta EAJko nazionalistek (hauek erregimen errepublikarreko lehenengo lau urteetan bakarrik), Errepublikarekiko aurkako jarrera azaldu zutela.

1931ko abenduan Konstituzio Errepublikarraren onespenuk, Bigarren Errepublika espainiarra aldarrikatu eta zortzi hilabete geroago, ez zuen batere hobetu egoera hori, izan ere, edozein komunikabiderentzat ere adierazpen-askatasuna aitortu eta bermatu arren, bere bigarren xedapen iragankorrak indarrean mantentzen bait zuen Errepublikaren Defentsarako Legea (*Ley de Defensa de la República*), informazio- eta eritzi-askatasunari buruzko hermetasunak eraginik gabe utziz. Xedapen hau, Ordena Publikoko Legea (*Ley de Orden Público*) onestean (1933-7-28) derogatu zen; honek ordeza salbuespeneko bi egoera aldarrikatzeko ahalbidea aurrirakusten zuen, askatasun publikoen arloan hiritarren hermetasunentzako ondorio oso garrantzitsuekin. Prebentzio-Egoeran (*Estado de Prevención*), zirkulazioan jarri aurretik ordubete lehenago egunkariak gordailuratu beharra

ezartzen zuen (28. art.), hau da, *aldez aurretiko zentsura* gisakoa eta Alarma-Egoeran (*Estado de Alarma*), agintaritzaz zibilak, aldez aurretiko zentsurapean jar zitzakeen inprimaki guztiak, argitarapenak eten zitzakeen eta aleak bildu (39. art.). 1933ko Abendutik aurrera eta gerra zibilerarte, Espainiako estatu osoan batzutan eta probintzia batzuetan beste batzuetan, salbuespen-egoerak etengabeak izan ziren, beraz, ezinezkoa izan zen konstituzio-bermetasunak normalki gozatu ahal izatea.

1936ko Urtarrilaren 7an, Niceto Alcalá Zamora Estaturburuak, Gorteen deuseztapen-dekretua sinatu zuen. Hauteskunde orokorrak, Otsailaren 16rako deituak zeuden. Egun horretan bertan kendu zen Alarma-Egoera (Asturiasen, Madrilan eta Bartzelonan) eta halaber Prebentzio-Egoera (Gironan, Tarragonan, Zaragozan, Leonen, Palentzian, Bizkaian eta Zeuta eta Melilla-ko subiranotasun-plazetan). Beraz, konstituzio-bermetasunak berrezarri ziren eta prentsarentzako aldez aurretiko zentsura kendu zen.

Fronte Popularraren hauteskunde-garaipenaren ondoren, Uztailaren 18rarte koalizio horrek gobernatu zuen hilabete murriztuz horietan ere ez zen egoera asko hobetu. Altxamendu militarra gertatu zenean, aldez aurretiko zentsura jadanik ezarrita zegoen, aurreko egunetako Alarma-Egoeraren aldarrikapena zela bide.

Gerra zibilak, sakonki aldatu zituen Hego Euskal Herriko prentsaren egitura eta komunikazioaren politika. Errepublikaren agintepean gelditu zen lurraldean (Bizkaia eta Gipuzkoako herrialdeak) epe ertainera desagertu egin zen prentsa eskuindarra edo alderdi gabea eta beren tailerretan alderdi nazionalista edo frontepopulisten egunkariak argitaratzen hasi ziren. Kasurik nabarmenena Gipuzkoakoa izan zen, ezen zegoen prentsa guztia ezkutatu bait zen eta egunkari bakarra argitaratu: *Fronte Popular*, Donostia erori arte (Irailaren 13rarte) Defentsa-Juntaren *Comisaría de Comunicaciones, Informaciones y Propaganda* zeritzana arduratu zen eta.

Alderantziz, Bizkaiko egoera zeharo desberdina izan zen. Herrialde honetan, ez zen saialdi faxistarik izan (gehienera ere,

Garellanoko koartelean izandako tirabira batzuk aipa daitezke baina benetako ezertara iritsi gabekoak) eta agintari errepublikarrek lehenengo unetik kontrolatu zuten egoera. Lehenagotik Alarma-Egoera aldarrikatuta egonik praktikatzen ari zen alde zurretiko zentsurak jarraitu egin zuen eta egunkari eskuindarrak interbenitu egin ziren (*La Gaceta del Norte* eta *El Pueblo Vasco*, *El Nervión* argitaratzen utziz).

Hego Euskal Herriko gerra zibilaren bigarren aroan, egoera aldatzen hasi zen. Lehendanik, Eusko Jaurlaritzaren erantzukizunak, Euskal Administrazioa sortzeko aukera eman zuen eta horren zati garrantzitsu bat, komunikazio-eginkizunez arduratu zen: *Lehendakaritzaren* bere propaganda-kabinete desberdinekin (inprimakiak, zinematografia eta argazkiak), *Defentsa* gai militarretako zentsuraz arduratu zen, *Gobernazioa*, prentsaren zentsura zuzentzeaz eta egiteaz, *Lan*, *Prebista* eta *Komunikazioak*, komunikazioaren puntuz puntuko antolamendu eta zaintzaz (Postaz eta Gutuneko Zentsuraz, Telefono, Telegrafo eta Irratitelegrafiaz) eta baita masa-komunikaziorako bitarteko batzuek ere (irratiek eta Fronteko Bozeramaileek), *Gizarte-Asistentzia*z, zineez, etab.. Aparailu administratibo honek, alderdiek berek zituztenekin batera, behar adina bitarteko izan zuen egunkari eskuindarrei, irriti-estazioei eta zine eta ikuskizun-aretoei egindako inkautazioetatik eratorriekin.

Erreboltariak kontrolatutako Hego Euskal Herriaren zatian (Uztailaren 18tik Araba eta Nafarroa; Irailaren azken hamabostalditik Gipuzkoa ere bai; eta 1937ko Ekainaren azkenalditik Hego Euskal herri osoa), egoera gauetik goizera eraldatu zen. Garrantzi gutxienezko aldaketak, mintzamolde frankistetan "traidore" izan ez ziren bi herrialdeetan izan ziren, izan ere, tradizionalismoaren eta eskuinaren pisua handia bait zen. Nafarroan, *La Voz de Navarra* egunkari nazionalista inkautatu egin zuten eta bertan argitaratu zen *Arriba España* lehenengo egunkari falangista, beste bi egunkariak (*Pensamiento Navarro* tradizionalistak eta *Diario de Navarra* eskuindarrak) beren argitarapenekin jarraituz. Araban, bi egunkariak jarraitu egin zuten hasieran: *El Pensamiento Alavés*-ek hegibistako arrazoiengatik, tradizionalista zenez eta *La Libertad*-ek erregimen berriari

makurtu zitzaiolako eta bertan Falange-ak eskuhartu zuelako, nahiz eta bere jabe eta zuzendari zen Luis Dorao, errepublikar erradikala izana izan.

Gipuzkoan eta Bizkaian alderantziz, informazioaren egiturak, ehun eta laurogei gradutako bira eman zuen. Bi probintzietan ere, izenburu-multzo garrantzitsua desagertu zen (nazionalista eta frontepopulista guztiak eta arrazoi desberdinengatik argitaratzen jarraitu ez zuten eskuindar batzuk). Gipuzkoako hiriburuan, uztailaren 18az aurretiko prentsatik, *El Diario Vasco*-k bakarrik segitu zuen argitarapenarekin, *Unidad* izeneko orientazio falangistakoa eta *La Voz de España* karlista lagun zituela, azkeneko hau *La Voz de Guipúzcoa* errepublikarraren inkautaziotik eskuratua. Hau ere Mugimenduko Prentsaren partaide izatera pasa zen 1937ko Apirilko batasun-dekretuaren ondoren. Bizkaian ere beste horrenbeste gertatu zen. *La Gaceta del Norte* egunkari katolikoak eta *El Pueblo Vasco* kontserbadoreak ere jarraitu egin zuten eta goizeroko alderdi bakarreko berri bat agertu zen: *Hierro*, *El Liberal*-aren aretoa eta *Euzkadi*-ren makineria inkautatu izanaren ondoriozko ekoitzi gisa. Urtebete eskas inguru, beste bi egunkari ere argitaratu ziren: *La Nueva España*, *El Noti*-ren oinordekoa eta *El Correo Español* falangista, 1938an hurrenez hurren *Hierro* eta *El Pueblo Vasco*-ri atxeki zitzaizkienak. Azkeneko honek, gaur egun oraindik ere mantentzen duen *El Correo Español-El Pueblo Vasco* izena hartu zuen.

*Junta de Defensa Nacional* deituak Gerra-Egoera aldarrikatu zuenean (1936ko Uztailaren 28an), bere kontrolpean zeuden lurralde guztientzat aldeaz aurretiko zentsura ezarri zen. Irailean, zera, *la incautación de bienes patrimonio de los partidos y agrupaciones que integraban el Frente Popular y su paso a propiedad del Nuevo Estado*, zioen agindua eman zen, nahiz eta dekretu horren aurretik ere eragozpenik ez izan *La Voz de Navarra* edo *La Voz de Guipúzcoa* inkautatzeko. 1940ko Uztailean, kazetal ondare guzti hori, *Delegación Nacional de Prensa y Propaganda de la FET y JONS*-en kontrolpera pasa zen.

Hego Euskal Herrian, katea falangistak, *Arriba España* izan zuen Nafarroan, *Norte* (1937ko Urtarriletik) Araban, *Unidad* eta

*La Voz de España* (batasun-dekretutik) Gipuzkoan eta Bizkaian berriz, *Hierro* eta *El Correo Español* (*El Pueblo Vasco*-rekin batu arte, batze horretan Ibarretarren familiaren pisua nagusitu zelarik eta Bigarren Mundu-Gerraz geroztik berriro ere enpresa-kazeta bihurtu).

Gerra aurretik oso garrantzitsua izana zen prentsa karlista (falangistarekin konparatuz gero are gehiago, honek ez zuen egunkari batik ere eta), altxamenduaz geroztik eta FET eta JONS-en batze-dekretuaz geroztik batez ere, oso leku apala izan zuen.

Prentsaren kontrolak, 1938ko Apirilaren 22ko Prentsa-Legearen (berez dekretua) onspenarekin izan zuen bere santzio juridikoa. Serrano Suñer-en lege honek, behin-behinekotasunez –hogeitamar urtez indarrean egon arren– baina era oso samar batean, prentsa eta kazetaritza-ogibidea arautu nahi izan zituen, Estatu Berriaren zerbitzutan jartzeko. Honi egotzi zitzaion *la organización, vigilancia y control de la Institución Nacional de la Prensa Periódica* ondorengo helburuarekin: *de despertar en la prensa la idea de servicio al Estado y de devolver a los hombres que de ella viven la dignidad material que merece quien a tal profesión dedica sus esfuerzos, constituyéndose en apóstol de pensamiento y de fe de la nación recobrada a sus destinos*. Aldez aurretiko zentsura ezarri zen, derrigorrezko oharren argitarapena, argitarapenaren zuzendaria Barne-Ministraritzak izendatzea –enpresak proposatuta–, Kazetarien Erregistro Ofiziala, etab.

Komunikabideen informazio-kontrola Estatuak egikaritzeko ikuspegi hau, bai bitarteko pribatuen edukinarena eta baita Falange-koen kudeaketarena ere, 1938ko Azaroan EFE Agentzia sortuz osatu zen, urtearen amaieran eremu nazionalako FABRA Agentzia ere irentsiz<sup>1</sup> eta horrekin, *Alianza de Agencias Telegráficas*-ekin (D.N.B., Stefani y Havas) harreman eksklusiboak irabazi zituen, nazioarteko informazio-trukeetan nahiz estatu barrukoetan egoera ia-ia eksklusibo eta bakarra bereganatuz. EFEren gizarte-helburua zera zen: *difundir la verdad española en el mundo y proporcionar a España información internacional*.

## 2. Hego Euskal Herriko egoera politikoa altxamendu militarren bezperetan

1936ko Otsaileko hauteskunde orokorrak, Estatuko gainerako lekuekiko funtsezko desberdintasunez planteiatu ziren Hego Euskal Herrian. Espainian hauteskunde-borroka orokorki eskuincko koalizioaren (barruti askotan erdiko taldeak ere sartuta) eta Fronte Popularraren artean polarizatu zen bitartean, Hego Euskal Herrian, hiru izan ziren norgehiagokan sartu ziren indarrak: eskuindarrak<sup>2</sup>, euskal nazionalistak eta ezkerak, hots, bi koalizio handi eta alderdirik indartsuena: EAJ.

Hiru korronte handi horiek lortutako diputatu-kopurua, kideko samarra izan zen: bederatzi diputatu lortu zituen EAJk (1933an baino hiru gutxiago); zortzi eskuindarrek, bost tradizionalista, bi CEDAko eta independente bat (1933an baino bi gutxiago); eta zazpi Fronte Popularrak, hain zuzen ere, nazionalistek eta eskuindarrek galdutako bostak irabaziz.

Hauteskundeen emaitzetatik, korronte politiko desberdinek zuten garrantziaren eta lau herrialdeetan zuten eraginaren ideia zehatza ateratzen da.

Nafarroa, eskuindarren gehiengoak pisu nabarmena zuen herrialdea zen. Tradizionalismoak, botu-mota horren erdia baino gehiago jotzen zuen. Araba berriz, Nafarroa eta itsasertzeko beste bi herrialdeen arteko hauteskunde-egitura azaltzen zuen herrialdea zen, nahiz eta lehenengoarengana gehiago hurbildu besteengana baino. Herrialde arabarrean, indar nagusia eskuina zen, tradizionalismoa ere pisu handiko korrontea izanik, bere botuen ia bi herenak. Gipuzkoan eta Bizkaian aldiz, hauteskunde-egitura zeharo desberdina zen. Lehenengoan, ia bi herenek nazionalismoari eta Fronte Popularrari eman zioten botua eta bigarrenean berriz hiru laurdenak baino gehiagok.

1936ko Otsaileko hauteskundeek, bi funtsezko ondorio izan zituzten Euskadirentzat: preso eta atzerriratu politikoentzako amnistia eta 1934eko udako udalen auzia zela bide zigortutako euskal zinegotziak berriro birjartzea. Aldi berean, Hego Euskal

Herriko udal demokratiko guztiak berrezarriak izan ziren, gobernari zibilek izendatutako udal-gestoreak desagertuz.

Garrantzitsuena ordea eta zalantzarik gabe, eskuindarren hauteskunde-galera eta EAJko jarrerak ezkerretarantz izandako hurbilpena ziren, horrek, Fronte Popularra nagusi zuten Gorteetan Euskadirentzat autonomia lortzea ahalbidetzen zuen eta.

Hego Euskal Herriko hiru herrialdeetarako Autonomi Estatutuaren izapidaketa, Apiriletik Uztailerako hilabeteetan azeleratua izan zen. Errepublikaren aldarrikapeneko bostgarren urteurrenerako, diputatu bizkaitar, gipuzkoar eta arabarrek (Jose Luis Oriol tradizionalista arabarraren salbuespen bakarrarekin), Gorteetan aurkeztu zuten 1933ko Azaroaren 5ean bozkaturia izan zen Estatutu-proiektua. Ekainaren erdialdera, Batzordeak diktamena eman zuen eta Haziendari buruzko arloa bakarrik gelditzen zen Ministrari-Kontseiluak bere oneritzia emateko. Gobernuak Uztailaren 6an gaia eztabaidatu zuen arren, gerra zibila sortu zen gaiarekiko ebazpena eman baino lehen. Fronte Popularrarekin elkartuta Hego Euskal Herriko hiru probintziei beren autonomia lortzeko aukera emango zietenari buruz nazionalistek zuten ustea, giltzarria izan zen noski EAJ -zalantza batzurekin izanik ere- erregimen errepublikarraren alde jartzeko. Estatutuaren onespena baldintzatuz jarrita, Manuel Irujo nazionalista, kartera gabeko Ministrari legez sartu zen Largo Caballero-ren Gobernuan 1936ko Irailean. Estatutua, aldarriz onetsia izan zen Gorte espainiarretan 1936ko Urriaren 1ean. Hil berberako 7an, Jose Antonio Agirre eta Lekube, lehendakari hautatu zuten euskal zinegotziek eta bere kargua zin egin zuen Gernikako Batzarretxean. Bere Gobernua, kontzentrazio nazionalekoa izan zen eta bertan, hiru nazionalistek (Monzon, Leizola eta De la Torre-k), hiru sozialistek (Aznar, Gracia eta De los Toyos-ek), bi errepublikarrek (*Izquierda Republicana*-ko Aldasorok eta *Unión Republicana*-ko Espinosak) komunista batek (Astigarriak) eta *Euzko Abertzale Ekintza*-ko nazionalista batek (Nardizek) eskuhartu zuten.



### 3. Euskal Prentsaren egitura 1936ko Uztailaren 18az aurretik

Euskal Herriak, 1936. urterako, garapen handi samarreko eta ugaritasun ideologiko nahiz politiko zabaleko prentsa zuen, (Hegoaldeko) Lau herrialdeetan, hemeretzi egunkari argitaratzen ziren, astelehenetan Prentsa-Elkarteek argitaratzen zituzten egunkariak kontatu gabe.

Ia erdiak eskuindarrak ziren: *El Nervión*, *La Gaceta del Norte*, *El Pueblo Vasco*, *El Diario Vasco*, *El Diario de Navarra*, *La Constancia*, *El Pensamiento Alavés* eta *El Pensamiento Navarro*. Azken hirurak, joera karlistakoak.

Zati on bat berriz nazionalistek osatzen zuten: *Euzkadi*, *La Tarde* eta *Excelsius* kirol-egunkariak, guztiak ere, *Euzko Pizkundia* eta *Tipografía General* enpresenak, *El Día* eta *La Voz de Navarra*. Bere foruzaletasun eta autonomizaletasuna zirela bide, nazionalismotik gertu zebilen Donostiako Rafael Picavea eta Leguiaren *El Pueblo Vasco*. Egunkari nazionalista garrantzitsua izan zen halaber *Euzko Abertzale Ekintzak* argitaratutako *Tierra Vasca*, 1933tik 1934era argitaratua eta 1936ko Abendutik aurrera berriro ere argitaratu zena.

Prentsa errepublikazaleak, ordezkari itza murriztagoa zuen, nahiz eta hurrenez hurreneko probintzietan zehar kalitate eta zabalkunde ona zuten egunkariak izan. Bizkaian, Indalecio Prieto-ren *El Liberal* zegoen eta autore batzuk, bere jabearen ideologi esleipena zela bide edo, sozialistatzat definitzen badute ere, behin ere ez zen pasa egunkari errepublikar zalea izatetik. Uztailaren 18az geroztik bai, sozialismotik hurbilagoko jarrera hartu zuen. *La Libertad* zen bestea, Errepublikar aldarrikatu zenez geroztik, Alderdi Errepublikar Erradikalaren hurbileko jarrera hartu zuena. Gainera, *La Voz de Guipúzcoa* zegoen.

Erizpide ideologikoak jarraituz agian sailkatzeko zailenak ziren bi egunkari bakarrak, *Noticiero Bilbaino* eta Donostiako *La Noticia* ziren. *Noticiero Bilbaino*-ren jatorria, Errestaurazioaren hasieratik zetorren eta egunkaria Echevarria familiarena zen<sup>1</sup>.

Zalantzarik gabe, egunkari bizkaitarretan "apolitikocna" zen, informazioa eta ez ideologia ematearen zentzurik onenean eta aldi berean bizi zuen errealtate tragikoarekin konpromezurik ez hartzearen txarrean. Uztailaren 18an, bere idazpuruan ondorengo azpititulu hau idatziz jarraitzen zuen: *Diario imparcial, defensor de la Unión Vascongada*. Hiru bat aste pasa zituen altxamendu faxista gaitzesten, *Nuestra posición* (1936-08-07) izeneko editorial baten bidez egin zuen arte. *La Noticia* berriz, Zacarías del Pozo-k zuzentzen zuen goizeko egunkari "independentea" zen eta bere erredaktoreen artean, Antonio Huertas sozialista zeukan.

### BIZKAIKO EGUNKARIAK 1927AN

| Titulua             | Argitar. helburua   | Aleak            | Neurriak | Orriak | Erredaktoreak | Laguntzail. | Enplegat. | Inprimategia |
|---------------------|---------------------|------------------|----------|--------|---------------|-------------|-----------|--------------|
| Euskadi             | Informazio orokorra | 37.500           | 60x40    | 8-10   | 15            | 21          | 10        | 28           |
| La Gaceta del Norte | politiko-katolikoa  | 10.000<br>12.000 | 58x42    | 8      | 7             | 10          | 6         | 20           |
| El Liberal          | politiko liberala   | 30.000           | 82x55    | 6-20   | 11            | 4           | 9         | 22           |
| El Nervión          | informazio orokorra | 15.000           | 65x45    | 6-8    | 9             | 6           | 6         | 30           |
| Noticiero Bilbaino  | informazio orokorra | 35.000           | 61x40    | 8-12   | 10            | 7           | 8         | 23           |
| El Pueblo Vasco     | politiko-kontserb.  | 20.000           | 49x35,5  | 8-16   | 8             | 7           | 16        | 20           |
| La Tarde            | informazio orokorra | 22.000           | 60x40    | 6-8    | 6             | 5           | 9         |              |
| Excelsior           | informazio orokorra | 13.500           | 58x40    | 8-12   | 6             | 2           | 7         | 18           |

Iturria: 1927ko Egunkari-Prentsaren Estatistika Ofiziala<sup>4</sup>

#### 3.1. Bizkaiko Prentsa

1936ko uztailaren 18an, zortzi egunkari argitaratzen ziren Bilbon. Zabalkundearen arabera<sup>5</sup>, ondorengo ordena zuten: *Euzkadi*, *El Liberal*, *El Noticiero Bilbaino*, *La Gaceta del Norte*, *Excelsius*, *La Tarde*, *El Pueblo Vasco* eta *El Nervión*.

### 3.1.1. Egunkari nazionalistak

Prensa nazionalista zen ziurraski hobekien egituratuena eta gainera, zabalkunde garrantzitsua zuen. *Euzkadi*, FAJ-ren organoa, Euskal Herriko zabalkunderik handieneko egunkaria zen, 37.500 alerekin<sup>6</sup>. Hau ez zen harritzekoa, izan ere, prentsa politikoaren markoan jarrita, Euskadi osoan zituen ehun eta berrogeitamar mila hautesleek, kontutan hartzeko moduko irakurle potentziala osatzen bait zuten. Egunkari handi hone-taz gainera, prentsa nazionalista, arratsaldeko *La Tarde* eta *Excelsius* izeneko kirol-egunkariarekin osatua zen, hain zuzen ere, Bigarren Errepublika aurretik *Excelsior* deitu zenarekin.

*Euzkadi*, 1913ko Otsailaren 1ean argitaratzen hasia zen **Jaungoikoa eta Lagi-Zarrak** lemarekin. Alderdiaren eta euskal nazionalismoaren sortzailearen argazki bat argitaratu zuen lehenengo orrialdean. Hurrengo eguneko alean, ondorengo argi-tasuna eman zuen: *No será Euzkadi periódico de información, porque tiende a un fin más elevado, incomparablemente más noble que el frívolo noticieril*. Editorialen ardura eta gidaritzza, Engracio Aranzadi J.ari eman zion *Euzkadi Buru Batzarrak*.

*La Tarde*, Saturnino Lafarga Freixa-k, *Euzkadi* egunkariari lotutako Javier Gortazar-ekin eta *Naviera Sota y Aznar*-eko ikuskatzaile zen Mariano de la Torre Carricate-rekin batera 1914ean sortutako arratsaldeko egunkaria zen. Egunkari inde-pendente bezala hasi zen, berak hala zioen behintzat buruan. 1927an, Javier Gortazar-ek, *Euzko Pizkundia*-ri eskualdatu zizkion bere eskubideak eta nazionalismoa egunkariaren jabegoaren kargu egin zen, Eusebio Zuloaga zuzendari izen-datuz.

Primo de Rivera-ren Diktaduraldiko lehenengo hilabeteetan, *Excelsior* egunkaria azaldu zen (1924-3-31), Espainiako Estatuan argitaratu zen kiroletan espezializatutako lehenengo egunkaria hain zuzen ere *eta inolako zalantzarik gabe, hoberena*. Javier Gortazar-ek asmatua zen eta *Euzkadi* eta *La Tarde* argitaldari-taldean sartu zuen<sup>7</sup>. Jacinto Miquelarena-k zuzendu zuen eta ga-rrantzi handi samarra izan zuen, 20.000 ale botatzera iritsiz. Zifra hori hirukoiztu egiten zen garai jakin batzutan, lehenengo

*Vuelta Ciclista al País Vasco* antolatu zueanean bezala (1929). Bere edukina, futbolak, boxeok, ziklismoak, herri-kirolek, atletismoak, eta abarrek osatzen zuten, baina haatik ez ziren falta izaten herrietako, estatuko eta atzerriko informaziozko orri-alde bikainak, aldi berean kirol-lehiaketak eta folklorezkoak eraginez.

Egunkariaren sozietate argitaldaria, *Euzko Pizkundia-Renacimiento Vasco* zen eta sozietate inprimatzailea *Tipografía General*. Horietako bakoitzeko kapital soziala, bost mila pezetakoa izan zen, berrogeitamarna pezetako eramailearen ehun akziotan banatuta. Akzio hauek benetan ordea, halio izendatua bakarrik zeukaten eta EAJren zuzendaritzarekiko konfidantza osokoak ziren goimailako pertsona nazionalisten esku zeuden, aldi berean enpresa horietako Administrazio-Kontseiluetako partaide izanik.

Administrazio-modu hau, egunkariaren kontrolean arazo larri baten sorburu izan zen, 1930ean EAJtik *Euzko Abertzale Ekintza* izena hartu zuen talde errepublikazale akonfesionala bereizi zenean<sup>8</sup>. Arazoaren jatorria zera izan zen, Diktadura garaian nazionalisten kazeta-enpresek jasaten zuten egoera txarra zela bide, EAJk konfidantza osoko eta izaera biziko pertsona bat izendatzea erabaki zuela, enpresa-kudeaketarako botere zabalak emanik. Pertsona hori, Anacleto Orueta izan zen eta gainera akzioen gehiengoaren entregatu zitzaion<sup>9</sup>. Nazionalisten arteko gatazka sortu zenean (EAJ eta EAE), Oruetak uko egin zion akzioak entregatzeari, ezen berak zioenez, akzioen jabea nazionalismoa zen bere osotasunean eta ez EAJ. Arazoa are gehiago larriagotu zen bere gainera, ezen 1930ean *La Tarde*-ren zuzendaria Casimiro Ulibarri bait zen eta hau EAEn afiliatu zen eta *Excelsior*-eko zuzendaria ere, Jose Olivares Larrondo "Telligorri", *Ekintza*-ko buruzagietakoa suertatu zen. EAJk *Euzkadi*-ren zuzendaritza mantentzea lortu zuen *Euzko Pizkundia*-ren Administrazio-Kontseilua kontrolatzen zuelako, baina ez hala *Tipografía General*-ena eta hori zela bide, *La Tarde*-ren kontrola ere galdu egin zuen. Gainera, tailerrak sozietate inprimatzailearenak zirenez, *Euzko Abertzale Ekintzak* bere lehenengo kazeta ofizialak egin ahal izan zituen: *Nacionalista* eta *Acción Vasca* eta

handik gutxira *Euzkadi* egunkaria inprimategi hartatik kaleratu. 1931ko Apirilean, EAJk berriro ere bi sozietateak kontrolpean zituen, EAE-ANV-ren egunkaria kanporatuta<sup>10</sup>. *Excelsior*-en izenburua EAE-ANV inguruan zebiltzanek erregistratuta zeukatenez, EAJk titulu-aldaketa egin behar izan zuen eta 1931ko Urriaren 11n *Excelsius* argitaratu zen.

Kazetal enpresa nazionalistek, inolako arazorik gabe jarraitu zuten (1936ko) Uztailaren 18rarte, beno, *Ley de Defensa de la República* (1931-33) eta *Ley de Orden Público* (1933ko Urritik aurrera) bezalako arma boteretsuak zituen gobernu errepublikar baten aurrean, politika nazionalista egin nahi izatean sortu-takoetatik salbu baino ez eta hauek ez ziren gutxi izan, anitz suspentsio eta isun ekarri bait zizkieten.

### 3.1.2. El Liberal

Bilboko *El Liberal*, 1901eko Uztailaren 6an hasi zen argitaratzen Madrileko *El Liberal* kazetal enpresaren eskutik. Egunkari honek, irabazi onak eman zizkion eta beste egunkari batzuk sortzen eta erosten berrinbertitu zituen diruak. Urte horretan, izenburu bereko hiru egunkari sortu ziren: Bataartzelona, beste bat Sevillan eta bestea Bilbon. Murtzian *Las Provincias de Levante* erosi zuten eta 1902an bere senideen izen berbera hartu zuen. Horrela azaldu zen *Al público* deitutako editorial batean:

*"No es El Liberal de Bilbao, un periódico que nace al exclusivo calor de los intereses y necesidades de esta región honrada e industrial; es el propio El Liberal que ensanchando su esfera de acción y acomodándose a las crecientes exigencias del vivir moderno, busca aquí, como en Cataluña y Andalucía, el contacto directo y eficaz con la opinión y con el país..."*

Bilboko *El Liberal*, hamabost urte baino gehiagotan *El Trust*-ek<sup>11</sup> finkatutako lerro monarkiko eta demokratikoari fidel jarraitu zitzaion. Klase herrikoiek asko irakurtzen zuten egunkaria zen, giza intereseko informazio eta berrietan halako tonu sentsazio-

nalista bat berekin zuela. Mendearen lehen hamarkadan, zortzi eta hamar mila ale egiten zituen, nahiz eta gatazka larrien boladetan (1903ko eta 1906ko grebaldietan) tirada bikoiztu.

*Sociedad Editorial de España* deitua, krisialdian sartu zen 1916an, bere iraupenerako aurrikusitako epe minimoa agortu zencan. *El Imparcial* bereizi egin zen, izan ere Gasset familiak trustarekin ez bait zuen ikusi egunkariak zituen arazo ekonomikoen konponbiderik, baina agian *El Liberal*-eko zuzendaritzarekin arlo politikoko desadostasunak izateagatik ere gerta zitekeen. Kontestu honetan, egunkari bilbotarra, Horacio Echevarrieta bilbotar industrial aberatsari saldu zioten. Garai hori iritsi baino lehen, Prieto ere sartua zen egunkarian eta gorabide nabarmena zeraman, bai jabearen begietarako eta baita egunkariarenetarako ere. 1923tik aurrera, Indalecio Prietok bere zuzendaritza hartu zuen eta 1932ko lehenengo hilabeteetan, bere familiaren izenean erosi egin zuen.

Egunkari hau, batzu-batzuk sozialistatzat jotzen duten arren, egunkari errepublikarra izan zen beste asko bezalaxe. Behar-bada, gerra-urteetan hartutako planteiamendu errepublikar-sozialista edo sozializatzaileaz bakar-bakarrik hitz egin daiteke.

### 3.1.3. La Gaceta del Norte

*La Gaceta del Norte*, egunkari katoliko legez sortu zen, berak zioen bezala *nutrido como ninguno de información nacional y extranjera, de sana y variada lectura que no llevase al hogar perturbación alguna ni influencia dañosa, antes bien, fuese mantantial de enseñanzas, al par que heraldo de diarias nuevas*<sup>12</sup>. Ale bakoitzak, lau orrialde zituen eta bost xentimo kostatzen zen. Azaldu eta hurrengo egunean, honako hau zioen editorialean: *la gran acogida y vivísimo interés con que ha sido recibida nuestra publicación y los juicios favorables que de ella se han hecho en todas partes*. Urtebete geroago, tonu arroago eta erasotzaileagoan, beste hau esplikatzen zuen: *nos hemos abierto paso, abarcando un radio de acción inmenso y penetrando allí donde jamás soñó penetrar la prensa vocinglera, sin criterio y*

*sin Dios*. Edozein modutan ere, lehenengo ale haiek, "telefono" eta "telegrafo" bidezko berriemaileen kolaborazio eta berrien, iragarkien -lehenengo orrialdeko lerroak pezeta bat balio zuen- "usariozko" prezioetako eskelen eta gisakoen saski-naskia baino ez ziren, gizarte-bizitza, Bilboko Burtsa eta Aita Luis Coloma-ren *El Salón Azul* foiletina ahaztu gabe noski<sup>14</sup>.

Egunkariak, arrakasta handi samarra izan zuen irakurlegoarengan eta egunkari informatzaile katolikoaren eredu bilakatu zen, XIX. Mendean prentsa katolikoak zuen irudia etenez. *Editorial Vizcaína*, hiru urte geroago, *La Gaceta*-ren enpresa argitaratzaile bihurtu zen eta *El Debate* egunkariaren sorkuntzan lagundu zuen, lehenik, 1910ean, kapitalaren zati baten ekarpena eginez eta gero, *Editorial Católica*-ri dohaintzan eskualdatuz.

Esan dugun legez, egunkari arrakastatsua izan zen bere lehenengo urteetan, prentsa katoliko modernoaren eredu eta garai hartarako ale-kopuru garrantzitsua zuena. Azaldu eta hamar urtera, egunkari berberak honako hau zioen bere buruaz: *el de mayor circulación y de más completa información de Bilbao*, nahiz eta baieztapen horretan zegoen egiazko oinarriaren berririk ez jakin. *Instituto Geográfico y Estadístico*-ko Zuzendaritza Nagusiak emandako datuen arabera, *La Gaceta del Norte*-k, 20.000 ale egiten zituen 1913an, 30.000 1920an eta 10.000-12.000 bitartean 1927an.

Egunkari honen sustatzaile nagusia Jose Maria Urquijo izan zen, beti ere, bere sorkuntzaz geroztik ezaugarritu zuen lerro katolikoan mantenduz. *La Gaceta del Norte*-k katolikoaren batasun-politika defendatu zuen lehen urte errepublikarretan eta gustora sentitu zen nazionalistekin, harik eta hauek beren estaturua lortzeko politika tradizionalistekin eta eskuindarrekin planteiatu zuten bitartean.

Errepublikako urteetan, jarrera kritikoa mantendu zuen erre-gimenarekiko eta une batzutan gogortasun berezia azaldu zuen. Adibidez, Irungo mugan Gasteizko elizbarrutiko bikario zen Echeguren Gotzaina, penintsulatik Segura Kardinalarean doku-

mentu garrantzitsuak Mugica Gotzainari ateratzeko ahaleaginean atxilotu ondoren, altxamendurako deia eginez idatzi zuen editoriala: *Agotada ya la paciencia, debe ocupar su puesto la resistencia viril; la prudencia hoy deja ya de aconsejar el uso de la paciencia y manda empuñar las armas de la oposición varonil a la tremenda agresión de que está siendo víctima la Religión Católica en nuestro pueblo.* Jose Maria Urquijo egilea auziperatua izan zen eta Hego Euskal Herriko prentsa eskuindar eta nazionalista nahiz beste egunkari espainiar batzuk, suspendituak izan ziren.

1934ean Samper-en Gobernuarekin Hego Euskal Herriko Udalek izan zuten aurrez aurrekoak eta EAJk Autonomi Estatutua lortzeko sektore errapublikarretarantz hartutako joerak, *La Gaceta del Norte* euskal nazionalismoarekiko geroz eta kritikago azaltzea ekarri zuen:

*Este proyecto (el de la declaración de la huelga general de SOV-ELA y UGT en apoyo del movimiento municipalista y parlamentario) angustia a Urquijo que el 22 de agosto publicará un nuevo editorial **Nuestra inquebrantable posición** en el que pide a los nacionalistas que no se alinien con Esquerra Republicana de Cataluña y los republicanos para conseguir un Estatuto de Autonomía. Los días siguientes **La Gaceta** publica nuevos editoriales **Por su instinto de conservación**, **La trama de la conjura** y **Nuevo llamamiento a la reflexión** en los que pide a los nacionalistas que sigan yendo unidos con carlistas y católicos no nacionalistas para la consecución de un Estatuto. Esto le lleva a atacar duramente al nacionalismo con el que rompe definitivamente a finales de este mes, lo que causa que en las calles se puedan leer pintadas y carteles de **Urkixo, traidor**<sup>11</sup>.*

1909az geroztiko *La Gaceta*-ko zuzendaria, Aureliano Lopez Becerra *Desperdicios* izan zen eta kargua berrogeitabi urtez bete zuen gerra zibileko hamaika hilabeteetako hutsunean salbu.



### 3.1.4. El Pueblo Vasco<sup>15</sup>

*El Pueblo Vasco*, 1910eko maiatzaren leian azaldu zen eta bere hasierako proiektuan Alfonso XIII.aren dinasti adarraren arabeko egunkari monarkiko, kontserbadore maurista eta ikuspegi kristauetkoa izan zen. Bere jatorria, izen berarekin Donostian Rafaël Picavea-k 1903az geroztik argitaratzen zuen eta 1907 eta 1909ko hauteskunde-kanpainetan hainbeste arrakasta izandako beste batean izan zuen. Maurismoa Bizkaian egituratu zenean, Ybarra anaiek (Gabrielek eta Fernandok), beraiek finantzatu eta Picavea-k bultzatutako egunkari bat sortzea erabaki zuten. Horrela esplikatzen zuen bere lehenengo alean, zein izpirituk eragiten zuen:

*Convencidos de que en la alianza de las derechas tendrán su más firme contrapeso todas las rebeldías, dirigiremos preferentemente nuestros esfuerzos al afianzamiento de aquella unión para lo cual encarrilaremos nuestra política por términos de concordia; y combatiendo los actos y doctrinas vituperables, sean quienes fuesen los que los produjeran y ensalzando lo bueno, lo honesto sin diferenciaciones entre los partidos, entidades y personas, procuraremos ganar para esta causa, que será la nuestra, la mayor suma de voluntades, vengan de donde vinieren...*

Lehen Mundu-Gerra aldian, *El Pueblo Vasco*-k bere buruzagi Antonio Maura-k izan zuen noraezko jarrera berbera izan zuen, bere bigarren gobernualdian Frantzia eta Ingalaterraren arteko hurbilpena eragin bait zuen, baina ez zien aurre egin nahi hautesle kontserbatzaileek zituzten sentimentu germaniarzaleci. Kontraesaneko egoera horren aurrean, neutraltasunaren hautapena egin zuen<sup>16</sup>. Edozein moduz ere, *La Gaceta*-k zuen jarrera germaniarzale garbiarekin eta *El Nervión*-en jarrera bareagoarekin kontrastatzen zuena noski<sup>17</sup>.

Primo de Rivera-ren altxamendu militarren eta Erregek gobernu era zezan hartutako erabakiaren ondoren, egunkari monarkikoak, ondorengo zioen editorial batean: *Una autoridad apta y fuerte, ha realizado el prodigio últimamente anhelado*

*por la mayoría del pueblo español. Bigarren Errepublikak aldarrikatu zen egun bercean, aldarrikapen monarkikoaren azken keina egin zuen:*

*El triunfo alcanzado por los elementos subversivos en la jornada del domingo se lo han dado hecho, en gran parte, los que aparentemente son, o por lo menos debieran serlo, gentes de orden.*

*Por nuestra parte, seguimos firmemente en nuestras posiciones, conservando inalterable nuestra incondicional adhesión al rey, al que la nación debe la prosperidad y progreso alcanzados en estos treinta años de reinado, firmemente convencidos, por otra parte, de que España es monárquica, diga lo que quiera la expresión de un censo bandoleramente amañado.*

Bigarren Errepublikak garaian, eskuindarren batasuna defendatzen jarraitu zuen. Lehenengo urtean, Lizarrako Estatutuaren aldeko hautagaitzan, 1933an monarkiko-tradizionalistek *nuestro fervoroso anhelo ha sido quebrado por una decisión del Partido Nacionalista Vasco* deitoratuz eta 1936an, iraultzaren aurkako hautagaitzak bultzatuz. Edozein kasutan ere, Errepublikaren bost urteetan izan zuen jarrera, erregimen errepublikarraren aurkako argia izan zen. Sanchez Tabernerok irakasleak, zera idatzi du: *El 1 de Enero de 1936 esbozaba un resumen del año que acababa de concluir. Para el periódico, los últimos meses de la Republica se habían caracterizado por una amalgama de crisis, confusión, desgobierno y anarquía. También se lamentaba el diario de que las altas esferas de la Administración estimulaban a los revolucionarios en su empeño por culminar sus propósitos destructivos.* Garaipen herrikoien ondoren, erregimen errepublikarraren aurkako jarrera geroz eta handiago izan zen eta horrek, nazionalista, errepublikar eta sozialista bizkaitarren etsaigoa ekarri zion. Gerra zibila leher-turik, Batzorde Kalifikatzaileak, bere behin-behineko eta berehalako inkautazioa erabaki zuen, izan ere, Hego Euskal Herriko egunkarien artean, bere erantzukizuna bait zen "definitu eta argien" azaltzen zena errebolta-mugimenduaren prestakuntzan<sup>18</sup>.

### 3.1.5. El Nervión

*El Nervión*, 1891n, Sabino Goicoechea-k sortutako goizeko egunkaria izan zen<sup>19</sup>. Zabalkunde txikia zuen (15.000 ale inguru) eta orientazio monarkikokoa zen. Mende honen bigarren hamarkada hasi zenean, Bizkaian monarkismoaren hiru organo zuden: *El Nervión* eta *El Porvenir Vasco* goizeko egunkariak, azkenekoak *La Tarde* argitaratzean argitaratzeari utzirik eta *Luz y Taquígrafos* astekaria. Bere bigarren hamarkadako zuzendaria, Tomas Camacho izan zen.

1910ean Kandaduaren Legea (*Ley del Candado*) onetsi zenean eta Elkarteen Lege berri bat onetsi arte erlijioso-ordena berriak jartzea debekatuta gelditu, kanpaina behaztopatzaile egin zuen *La Gaceta del Norte* eta *El Pueblo Vasco*-rekin batera. Lehenengo Mundu-Gerran Inperio Zentralekiko bere zaletasunak azaldu zituen eta Primo de Rivera-ren estatu-kolpea, era honetan eraman zuen editorialera:

*El conjunto de graves circunstancias y el firme propósito de hacerlas desaparecer, han decidido a Su Majestad el Rey a otorgar su confianza a los que exteriorizaron con un resonante acto las aspiraciones del pueblo español.*

*Nuestro intenso amor a España, nuestra leal adhesión a la monarquía representada por Don Alfonso XIII, nuestro profundo respeto a la autoridad constituida han sido, hasta ahora normas de nuestra conducta y hay que decir que seguirán siéndolo<sup>20</sup>.*

Bigarren Errepublika ekarri zuten udal-hauteskundeetako kanpainan, ez zuen erreparorik izan *toda persona decente tiene ahora ocasión de demostrar su agradecimiento votando por la Monarquía* eta Errepublika aldarrikatu zen egun berean, honako hau zioen editorialean:

*En España, la mayoría del pueblo se pronunció por la Monarquía. Es innegable que en las capitales de provincia obtuvo la candidatura antidinástica un triunfo sobre la dinástica; pero ¿caso la voluntad nacional está concentrada sobre el electorado de la ciudad? ¿Es que la masa*

*rural, el campesino, el verdadero paria, el verdadero español, no significa nada?*

*... No es la hora de enfrentar doctrinas ni de discutir superioridades numéricas de fuerzas. Es hora de salvar a España y mirar a España por encima de todas las ambiciones. Son horas en que debe imponerse la serenidad, por deber patriótico...*

Errepublikaldian, eskuindarren politika bultzatzen jarraitu zuen, nahiz eta bere zabalkunde eskasak eta maila politiko koxkorrak, inolako itzalik ez egin *La Gaceta del Norte* eta *El Pueblo Vasco* bezalako egunkari kontserbadoreei. Altxamendu militarren ondoren ez zen gehiago argitaratu.

### 3.1.6. El Noticiero Bilbaino

*El Noticiero Bilbaino*, 1875eko Urtarrilaren 1ean azaldu zen, Hego Euskal Herria bigarren gerra karlistaren menpe zegoen bitartean. Bere jabe eta zuzendari, Manuel Echevarria<sup>21</sup> izan zen eta bere familiarena izaten jarraitu zuen gerra zibilean inkautatua izan arte. Era honetan azaltzen zituen berorren azalpen-arrazoak:

*Al parecer hoy El Noticiero Bilbaino no está en nuestro ánimo tomar parte alguna en las luchas políticas que trastornan a esta desgraciada nación, digna de mejor suerte.*

*Nuestra misión se reduce única y exclusivamente, a poner al corriente a nuestros lectores con completa imparcialidad, de todos los principales acontecimientos que ocurran en España y en el extranjero, ocupándonos en primer término de las noticias referentes a la mal tratada guerra civil que sigue asolando la Patria y más directamente a estas provincias vascongadas, un día tan prósperas y felices.*

*El Noti-k*, beti ezagutua izan den legez, *diario imparcial*-tzat azpituatzen zuen bere burua eta *defensor de la Unión Vascongada* lemarekin argitaratzen zen. Bere lehen aroan egiazki, foruen, euskararen eta usuario *vascongado*-en defentsan lerrotatzen zen argi eta garbi, baina aldi berean, karlismoarekin zerikusia zukeen edozein hurbilpen edo onarpen, gartsuki bazterreratzen zuen<sup>22</sup>.

Edozein moduz ere, egunkaria negozio gisa planteiatu zen batez ere eta informazioa emateaz arduratu zen batipat<sup>23</sup>, irakurlegoa urruneraz zezakeen politika ekidin eta publizitatea kontratatuz<sup>24</sup>. Sortzailearen hereniloba den gaur egungo *El Correo Español-El Pueblo Vasco*-ko kontseilari-ordezkarri den Alejandro Echevarria-ren hitzetan, bere birraitonaren merkatal politika, notiziak (*noticias*) eta iragarkiak (*anuncios*) ziren<sup>25</sup>.

Mende-hasieran, Bilboko tiradarik handienekotzat iragartzen zuen bere burua (10.000 ale inguru) eta agian izan zitekeen. 1920ko eta 1927ko estatistika ofizialek, 25.000 eta 35.000 aleko tiradak ematen zizkioten hurrenez hurren. *Euzkadi* eta *El Liberal*-ekin batera, agian Hego Euskal Herriko tiradarik handieneko egunkarietako bat izan zatekeen.

Bere informazio-bidea, salbuespena zen benetan garai hartako euskal ikuspegi politikoan eta aparteko bakuntasunez nabarmendu zen lehen mundu-gerran, benetako neutraltasun-politika mantenduz (Dato-ren gobernu kontserbatzaileak definitutako politika jarraituz) eta Bartzelonan nahiz Madrilan antolatutako alde bataren zein bestearen aldeko adostasun-manifestazioak salatuz. Errepublikaren etorrerak ere ez zuen bere aurkajarrerarik piztu, nahiz eta bere betiko neutraltasuna zerbait lausotua gertatu *con un leve dejo de amargura en el paladar de su rotativa*<sup>26</sup>. 1931n, Lizarrako Estatutuarekiko bere adostasuna azaldu zuen, *encareciendo a todos los vascongados que frente al momento histórico de la restauración de su derecho y de su personalidad, den una nueva y espléndida muestra de aquella unión sagrada de que hizo derroche espléndido cuando una ley vejatoria se los arrancara* (1931-6-3). Gerra zibila lehertu zenean, *El Liberal*-ek eztenkada jaurti zuen solte batean, *El*

*Noticiero Bilbaino*-k altxamendua gaitzesten hiru aste baino gehiago pasa izanaz eta egia esateko, Abuztuaren 7ko *Nuestra Posición* izenburua zeraman editorial bat argitaratu arte, ez zuen gaitzetsi altxamendu militarra.

### 3.2. Gipuzkoako prentsa

Errestaurazioaz geroztik, hogeitamahiru egunkari argitaratuak ziren Donostian. Horietako askok, bizi laburra izan zuen. 1936ko Uztailaren 18a baino lehen, sei egunkari baino ez ziren gelditzen. Eskuinak, 1936ko Otsaileko hauteskundeetan botuen herena lortu zuelarik, bi egunkari zeuzkan: *La Constancia* integrista eta *El Diario Vasco*, *Renovación Española*-ren hurbilekoa. Euskal nazionalismoak, *El Día* egunkaria zeukan eta Rafael Picavea-ren *El Pueblo Vasco* egunkari autonomizaleak begi onez ikusten zuen. Errepublikarrek egunkari bakarra zuten: *La Voz de Guipúzcoa*, prentsa donostiarreko zaharrena. Egunkari independente bakarra, nahiz eta eskuindar joera apur bat izan, *La Noticia* zen. Zabalkunderik handienetik txikienera ordenatutako egunkarien zerrenda, ondorengoa zen: *El Día*, *La Voz de Guipúzcoa*, *El Pueblo Vasco*, *La Constancia*, *La Noticia* eta *El Diario Vasco*.

#### 3.2.1. La Constancia

*La Constancia*, egunkari katoliko eta integrista izan zen, –*Diario Tradicionalista* azp titulatzan zuen bere burua– Alderdi Integristako buruzagi “nazional” (estatukoa alegia) zen Juan Olazabal-ek eta Ramery-k 1897an sortua, *El Fuerista*-ren<sup>27</sup> jarraitzailea, bizi laburreko egunkaria izan zen. Zuzendari anitz izan zituen: Víctor Martín Jiménez, Luis Ortiz de Estrada, Eustaquio Echarri, Rudesindo Bornás,... Altxamendu militarren aurreko urteetan, Juan Ortega zuen zuzendari, baina benetan zuzentzen zuena Juan Olazabal zen<sup>28</sup> berau zen eta, beste tradizionalistaren batekin batera, urtero galerak estaltzen zituen.

Egunkari apala zen, bi erredaktore zituen (Jose Goñi eta Alberto Pedrosa) eta dohaineko laguntzaile zenbaitzuk ahalbidetzen zuten egunero kaleratu ahal izatea. Kolaboratzailerik nagusiena Víctor Pradera izan zen.

Begibistakoa denez, jarraitu zuen informazio- eta editorial-bidea, Komunio Tradizionalistak eraman zuen politikaren hurbilekoa izan zen. Lehenengo mundu-gerran, *La Constancia*-rentzat, Frantziak ateismo ofiziala eta erlijio katolikoaren jazarpena irudikatzen zituen: *Es la única nación que en las circunstancias presentes no invoca el santo nombre de Dios*<sup>59</sup>. 1931ko Apirilaren 12an, zera joateko gonbitea egiten zuen:

*...a las urnas como un solo hombre a todos los que aspiran a que reine la paz y la tranquilidad sobre todas las violencias y procacidades de los que desde la acera de enfrente nos acusan de hechos delictivos.*

*Votad frente a ese republicanismo cuyas manifestaciones todas son de ruina y de exterminio de cuantos no piensan como ellos.*

Bigarren Errepublikaren garaian, Estatutuaren aldeko kanpainaren aurka ahalegindu zen, berorri foru-errebindikazioa kontrajarriz, baina gero, katoliko, tradizionalista eta nazionalistak elkartuta zituzten Lizarrako Estatutuaren aldeko hautagaitzak bultzatu zituen. Hurrengo urtean, *La Constancia*-k tradizionalismoak izandako orientazio-aldaketa azaleratu zuen, gestorek egindako Estatutuaren aurka jarritz.

*A nadie puede caberle duda de que Dios-Jaungoikoa se halla ausente por completo del Estatuto Vasco. Primero, porque así lo exige la Constitución, que es quien lo engendra; segundo, porque como hijo de tal madre ha tenido muy buen cuidado el Estatuto de no encomendarse a Dios. **El Estado Español no tiene religión oficial**, ha dicho el artículo 30 de la Constitución y el Estatuto tiene que ajustarse a esa triste exigencia...*

*Continúa en pie la oferta de nuestro periódico de gratificar con 5.000 pesetas al que encuentre escrito*

*una sola vez en el Estatuto el santo nombre de Dios. (La Constancia, 1932-5-21)*<sup>50</sup>.

Euskal Estatutua onesteko egindako (1933ko Azaroaren 5ean) erreferendumaren emaitza ezagutu ondoren, *La Constancia*-k zera idatzi zuen:

*Se consumó el atropello. Se ha realizado el plebiscito para la aprobación del Estatuto en tales términos de impudor y decoro que constituyen un vejamen, una vergüenza para la dignidad ciudadana y política del pueblo vasco. Nace el Estatuto ilegítimamente, fruto de las más burdas maniobras y tropelías.*

1931ko udan prentsa eskuindarraren aurka izandako erreprezioaldian, beste egunkari batzurekin batera suspenditua izan zen (*El Día, Diario de Navarra, La Tarde*, etab.) Ez ordea orduko hartan bakarrik. *Causa General*-ean aitortzaile izan zen batek, ondorengo dio:

*(Por su ideología) durante toda la República, especialmente durante la Presidencia de Azaña, La Constancia fue cerrada repetidas veces y en la misma se llegaron a colocar y estallar dos bombas explosivas que causaron desperfectos y una de las cuales estuvo a punto de matar al declarante*<sup>51</sup>.

*La Constancia* altxamendu militarra lehertu baino egun batzuk lehenago suspenditua izan zen.

### 3.2.2. El Diario Vasco<sup>32</sup>

Urriko iraultzaren ondoren eta aste gutxira, *Sociedad Vascongada de Publicaciones* argitarapen-enpresa eratu zen (1934-11-10). Sozietateak aitortua zuen helburua, egunkari, liburu eta aldizkariaren argitarapena zen, ondoren zein eratakoak izango ziren adieraziz:

*independientes de toda organización política, eminentemente católicos y derechistas, propugnando la defensa religiosa y social, los ideales monárquicos, la*



*unidad nacional, el concierto económico, las reivindicaciones forales y la unión de las derechas, entendiendo por tales a las que no participaron en el **Pacto de San Sebastián** y ostenten en su programa la unidad nacional*<sup>85</sup>.

Administrazio-Kontseiluak, Roman Lizarriturry, Vastameroliko Kontea zuen lehendakari eta bere kontseilarien artean, Jorge Satrustegui, *Renovación Española*-ko lehendakaria, Ramiro Maeztu, Genaro Larrache, Joaquín Churruca eta Calbetón zeuden, idazkari Federico Oliván Bago zuela. Lehendakariordetza, *Prensa Española*-ko ordezkariari gorde zitzaion, izan ere bere kapitala osatzen partaidetza garrantzitsua izateaz gainera egunkariaren zabalkundean lagundu bait zuen.

Azaroaren 27an kaleratu zen *El Diario Vasco*-ren lehenengo alea eta kaleratu aurretik Eusebio Zuloaga-k zuzendua izan zen, gero lehen hilabeteetan Pedro Pujol-ek zuzentzeko eta ondoren Ramon Sierra Bustamante-ren zuzendaritzapera pasatzeko. Bere lehenengo editorialean, Urriko iraultzatik erator zitezkeen kalteak deskribatu ondoren, lehen aipatutako baloreak aipatzen zituen etengabe:

*Guipúzcoa y San Sebastián se beneficiarán en nosotros de un diario consagrado a la defensa de los grandes intereses morales y materiales del país, alerta para el sostenimiento del Concierto económico y reivindicación de las queridas libertades forales, baluarte de la religión amenazada, conservador y restaurador de las buenas costumbres, que procure la guarda y fomento de nuestras industrias, cuya existencia está vinculada a la unidad y prosperidad de España.*

Egun batzuk geroago errepikatzen zuen legez, bere eginkizuna eskuindarren batasuna zen "iraultzaren" aitzineurri gisa eta editorial batean, *La Constancia*-ren kortesiazko esaldiak eskertuz, zera zioen: *Todo el que luche contra la revolución, todo el que pelee por el espíritu y las tradiciones de España y del país vascongado, venga de donde viniere, siempre que lo haga con talento y buenos modos, es para nosotros **de recibo**.*

Bere kolaboratzailek atzekien artean, Jose María Salaverria, Ramiro Maeztu, Angel M<sup>a</sup> Pascual, Jose María Arcilza, Wenceslao Fernandez Florez, Eugenio Montes, Rafael Sanchez Mazas, Eusebio Zuloaga, etab. zeuden.

Erregimen errepublikarrarekiko aurkako erasoen politika jarraitu zuen, Fronte Popularraren garaipenaren ondoren areagotu zena. 1936ko Uztailaren 18rarte suspentitu ez zuten arren, bere orrialdeetan etengabe azaltzen ziren zentsura-seinaleak, zuri-guneak edo orbanguneak; kasu batzuetan, oso esanguratsuak ziren **Viva España** batzurekin ordezkatzeko zirenak hain zuten ere.

### 3.2.3. El Día

Orientazio nazionalistako egunkaria zen, kapitalean sektore katolikoek eskuhartu arren. 1930eko Ekainaren 1ean azaldu zen. *El País Vasco* ordezkatu zuen, Primo de Rivera-ren Diktadura (1923-4-8) baino lehenagotik argitaratzen zen orientazio autonomizaleko egunkaria hain zuten ere. Egunkariak iraun zuen sei urteetan zeharreko zuzendaria<sup>41</sup>, Jose Lecaroz izan zen eta bere administratzailea -argitaratzaile- eta kudeatzaile-lanak eginez Ricardo Leizaola. Hala ere, bere animatzaile nagusia Jose Ariztimuño (*Aitzol*) apaiza izan zen. Erredakzioan, Jose Ormaechea-k, Jose Rodriguez Ramos-ek, Andoni Pertica-k eta Jose Arceche-k lan egiten zuten. Bere lehenengo aleko editorialean, bere joera esplikatzen zuten:

*La inquietud religiosa y vasca requería desde hace tiempo la aparición de un diario que, independiente de la acción directiva de todo partido político, persiguiera la realización de un periodismo moderno, con su finalidad inmediata en la actualidad informativa, sometida a un recto y estricto criterio católico y a un sentimiento sincero y lealmente vasco...*

*Periódico de igeología positiva, no pretende destruir sino edificar. Acata el legítimo principio del poder constituido, ateniéndose en esta materia a las normas dic-*

*tadas para el tiempo presente por la autoridad de la Iglesia. Se inspirará en la justicia y el orden social, cuya defensa propugnará con serenidad y constancia...*

Bigarren Errepublikan aldarrikatu zenean, zenbait editorialetan marko politiko berriarekiko zuen onarpena azaldu zuen eta aldi berean euskal askatasunen alde lan egiten jarraitu beharra ere bai. 14eko editorialean, zera zioen: *No nos asusta a los nacionalistas vascos la llegada de la República española, si tal es el deseo de los ciudadanos del Estado*. Eta 16ko beste editorial batean, zera gehitzen zuen: *La sociedad civil española está integrada por distintas y definidas realidades étnicas e históricas. Desconocerlas por el poder supremo es el suicidio; aceptarlas es prudente; devolverles la libertad es encadenarlas en la gratitud y el amor* 35. *El Día*-k ere, 1931ko udan prentsa katoliko, nazionalista eta eskuindarraren gainera erori ziren suspentsioak jasan zituen.

*El Día*-k informazioak euskaraz ere argitaratu zituen, garai hartako prentsan aparteko gauza zena bestalde. Bi zutabe zituen, bata lehenengo orrialdean eta bestea azkenekoan. *Eguneroko Xaltxa* zeritzon batari eta barneko orrialdeetan *Errietako Berriak* izeneko sekzioa zuen, probintziako herrietako berri laburrekin eratua.

Ziur aski, Gipuzkoako tiradarik handieneko egunkaria zatekeen, batezbesteko bere zabalkundea, 10.000/11.000 ale inguruan kokatuz.

### 3.2.4. El Pueblo Vasco

1903ko Abuztuaren 1ean Rafael Picavea eta Leguia-k (*Alcibar-ek*)<sup>36</sup> sortua izan zen eta agian, Mendearen lehen herenean eguneroko bizitza gipuzkoarrean eraginik handiena izan zuen egunkaria izan zen. Kazeta bare, katoliko, autonomizale eta eguneroko prentsa gipuzkoarrean lehenengo idazlan nazionalistak argitaratzeko oinarritzat zerbitu zuena (Engracio Aranzadi, Remigio Gandasegui eta Jose Arriandiaga). Era honetan deskribatzen du Saiz de Valdivielso-k nolako egunkari-mota zen:

*Picavea se propuso hacer del periódico, además de un trampolín potente y flexible hacia logros políticos personales, un órgano independiente en su enunciado; de derechas, en su orientación y de izquierdas en su redacción*<sup>37</sup>.

Lehenengo zuzendaria, Juan de la Cruz Elizondo irundarra izan zen, harik eta 1910ean Bilboko *El Pueblo Vasco*-ren zuzendaritzan sartu arte. Pedro Pujol-ek jarraitu zion eta urte batzuk geroago Felipe Urcola-k<sup>38</sup>, baina Rafael Picavea-ren gainbegiradapean, beti ere Juan Peña Ibañez-en arabera, *supo dar al periódico un aire conservador y un tinte de equilibrio político a la vez que lograba, al amparo de su reconocido espíritu liberal, que en las columnas de El Pueblo Vasco aparecieran artículos de firmas consagradas, aunque muchas de ellas de ideas dispare*<sup>39</sup>. Ohizko kolaboratzaile izan zituen Pio Baroja, Azorin, Manuel Bueno, Francisco Grandmontaigne, Pedro Murlane Michelena, Francisco de Cossio, Wenceslao Fernandez Flores, etab.

*El Pueblo Vasco*-k, jarrera zuhurra mantendu zuen lehenengo mundu-gerran eta era berean zuhurra baita ere Bigarren Errepublikan iristean. Apirilaren 16an, Fernando del Valle-k sinatutako dei bat argitaratu zuen monarkiko gipuzkoarrei zuzenduta:

*Monárquicos guipuzcoanos: Aunque no sea yo el más llamado a hacerlo, a falta de otro, considero un deber dirigirme a vosotros. Ante los hechos consumados, no cabe dedicarse a mutuas reconvenções ni lamentaciones inútiles ni a decir que se esgrimieron contra nuestra causa viles y reprobables armas.*

...

*Ingresemos todos en el Partido Nacionalista de JEL, sin abandonar jamás sentimientos monárquicos, abogando por el Estado Vasco dentro de la unidad española...*

*Unámonos todos con nuestros hermanos de JEL, con los que, a poco que sondeemos nuestros sentimientos, tanta comunidad de ideales encontraremos y nunca perderemos*

*la esperanza de que el Todopoderoso nos conceda un día la alegría de ver otra vez pisar el suelo de la patria a nuestro querido y desventurado soberano.*

Rafael Picavea, 1931ko Ekainaren 28ko hauteskundectara aurkeztu zen eta diputatu aukeratua gertatu zen Lizarrako Estatutuaren aldeko hautagaitzetan, non katoliko, tradizionalista eta nazionalistak zeuden. Begibistakoa denez, *Alcibar*-ek eguneko orrialdeetatik estatutu-proiektua bultzatu egin zuen.

*El Pueblo Vasco*-k ere, 1931ko udako gobernu errepublikararren haserreak jasan behar izan zituen Hego Euskal Herriko *La Constancia* eta beste prentsa eskuindar, katoliko nahiz nazionalistarekin batera.

*El Pueblo Vasco*-k gestorek landutako Estatutua ere bultzatu egin zuen: *Aceptar el Estatuto* -ziotsan egunkariak- *no es aceptar el espíritu laico de la Constitución* eta bere alaitasuna azaltzen zuen estatutua bozkatzeko egindako erreferendumaren ondoren: *La nota destacada de la jornada, fue la votación de las mujeres, que acudían a las urnas gozosas por la novedad, muchas de ellas, y el entusiasmo de los ancianos, sacerdotes y religiosos.* Guzti hori ordea ez zen behaztopa izan, Urriko iraultza maitu ondoren, CEDA-ko buruzagiari goraipamen-lerroak eskaintzeko eta horrek *kamalehoi abila* bezalako kalifikatzailea irabaz erazi zion A.C. Saiz de Valdivielso-ren hitzetan:

*He aquí que ha surgido un hombre. Todo un hombre de las derechas políticas españolas. Me permitirá el recuerdo: allá cuando de las más extremas derechas atacaban a Gil Robles por sus aspiraciones o condescendencias con Lerroux, le dediqué un artículo. Táctica sabia la de Gil Robles -decía yo-, sin perder las energías en desgastes prematuros, avalorándolas más bien en el ejercicio activo y a distancia o preparándose para la segunda etapa que puede venir en breve; una etapa de actuación directa desde el Gobierno* <sup>40</sup>.

Jokabide anbiguo hau, ordenarekiko errespetozkoa, baina tonu liberal eta autonomistarekin, izan zen hain zuzen ere gerra

zibila lehertu arte mantendu zuena. *El Pueblo Vasco*-k 1936ko Uztailaren 18an utzi zion argitaratzeari.

*El Pueblo Vasco*-ren orrialdeak, 10, 12 eta 14 artean izan ohi ziren bost zutaberekin. Informazio laburrak eta gutxi egituratuak sartzen zituen sekzioetan. Bere orrialdeetako bat euskaraz idazten zuen eta argazkiak azkenekoan argitaratzen zituen.

### 3.2.5. La Voz de Guipúzcoa

1936an, *La Voz de Guipúzcoa* zen Donostiako egunkaririk zaharrena eta agian urte askotan probintzian zabalkunderik handiena izan zuena, nahiz eta garai horretan *El Día*-k diferentzia gutxiarekin abantaila ateratzen ziola zirudien. Berenguer-en Diktaduraren lehenengo egunetan, honako errekoadro esanguratsua hau zetorren lehenengo orrialdean:

*El periódico más antiguo de la provincia de Guipúzcoa. Por su seriedad y crédito reflejado en su Historia de medio siglo, el de mayor difusión en esta zona y consiguientemente, la mayor tribuna para la propaganda.*

Egunkaria, 1885ean sortua izan zen Joaquin eta Benito Jamar anaien, Ramon Usabiaga-k eta Manuel Oa-k. Joera liberal eta errepublikarreko egunkaria zen, eskuindarrekin gogor eztabaiatzen zuena eta nazionalismoarekiko ezin gorderiko errezeloa zuena, bai bere joera konfesionalarengatik eta baita *aberriaren batasunaren* aurka borrokatzen zutelako ustearengatik ere. Errestaurazio une garrantzitsuetan jarrera aurrerakoi hori mantendu zuen (aste tragikoa, Marokko-ko gerra, 1917ko greba, etab.) Lehenengo mundu-gerran, aliatuen aldeko jarrera defendatu zuen, Primo de Rivera-ren Diktadura kritikatu zuen -aldez aurretiko zentsurak uzten zuen heinean- eta prentsa gipuzkoarraren artean, alde handiz gainera, Bigarren Errepublikaren etorreraren alde lanik gehiena egin zuena eta berarekin gehiena poztu zena izan zen.

*San Sebastián, por la República* (lau zutabeak hartzen zituen izenburua).

*La conjunción republicano-socialista ha triunfado brillantemente, ha triunfado en toda línea. No hemos de ocultar la enorme satisfacción que nos embarga. Pero nuestra satisfacción no ha de verse empequeñecida. Nuestra nobleza nos impide hacer leña del árbol caído.*

...  
*San Sebastián ha dicho bien elocuentemente que es republicana. ¿Qué dirán ahora los cumplidores de esa consigna infame que han propalado desde los periódicos derechistas de que votar por la candidatura republicano-socialista era votar por el desorden, por el comunismo, por el soviet? (1931-4-13).*

Jasotako errepublikartasunak gogora erazten die lehen Monarkia defendatu zuten egunkari batzuei edo eta halabeharrezkotasunak, *Pueblo Vasco* zalantzakorrari bereziki eta *El Día* nazionalistari. Errepublikaldian, aire erradikalagoa hartu zuen eta *Diario Republicano* azpituarekin argitaratzen zen.

1931n, oso kritikoa izan zen Lizarrako Estatutuarekin, ez hainbeste Estatuaren egituraketa kontuan hartzeagatik, baizik eta bultzatzen zuten indarreetatik (katoliko, eskuindar eta nazionalista eta bere eztabaida defendatzen zuten alderdi eta egunkarietara hedatu zuen. Geroago, Gestorek landutako Estatutua defendatzera pasa zen, kemen gehiegi gabe, behin eta berriz ahalegindu zen esaten Errepublika zela bere aurkako jarrera azaldu zuen eskualde bati autonomia ematera zihoana.

Errepublikaldian, egunkariko gizon indartsua Usabiaga izan zen, 1931-33 biurtekoan alderdi erradikaletik diputatu aterea eta 1935ean Lerroux-en Gobernuko ministrari izan zena.

Egunkariaren zuzendaritzaz honako hauek arduratu ziren errezkadan: Isaac Abaitua, Angel Maria Castell, Arian Navas, Alfredo del Barrio eta 1934etik aurrera David Casares, *Orfeo* gaitzizenarekin sinatuz. Erredaktoreen artean, Luis Calvo eta Maximiano Garcia Venero izan zituen eta 1936ko uztailaren 18aren aurretik ondorengo hauek ziren: Angel Gorrochategui, Mateo Uribe, Miguel Pola, Jose Plazuelos, Jose Luis Ituarte, Jose Munguia, etab..

*La Voz de Guipuzcoa*-k hamasei orrialde zituen 1936an, maindire erako formatoan. Publizitatea orrialde guztietan sartzen zuen lehenengoan salbu eta normalean publizitate hutsezko orrialde bat edo bi inprimatzen zituen. Ziur aski informaziorik gehiena eskaintzen zuena eta berorren tratamenturik sakon eta osoena egiten zuena zen.

### 3.2.6. La Noticia

Independente<sup>11</sup> bezala aurkeztu ohi zen goizeko egunkaria zen, baina halako joera eskuindar bat zuena. Hala ere ordea, berriemate-lanetan eta kirol- eta zezenketa-arloko informazioa ematen iharduten zuen batipat. 1923an sortu zen eta 1936ko Uztailaren 18rarte iraun zuen. Sortzailea Antonio Olondris apaiz jauna izan zen, jabea Zacarias del Pozo eta zuzendaria Teodoro Goñi Ayala, 1936ko Irailean *El Diario Vasco*-ko erredaktore izatera pasa zena eta geroago erredaktore-buru izan zena harik eta 1967an hil zen arte.

1934eko Urriko gertaeren aurrean ia prentsa gipuzkoar guztiak izandako iraultzaren aurkako jarrerak, ez zion eman biderik gobernu eskuindarrari (Lerroux-enari) egunkari donostiarrei isunik jartzeko, nahiz eta *La Noticia*-ko Antonio Huertas kazetariari, 3.000 pta.ko isuna ezarri eta egunkariko jabe eta kudeatzaile zen Zacarias del Pozo-k aurreratu dirua. Zacarias del Pozo berau, errepublikarrek "paseatua" izan zen altxamendu militarra gertatu eta egun gutxitara<sup>12</sup>. Antonio Huertas zen kirol-orrialdeen ardura zuena eta boxeoko kronikak sinatzeko erabiltzen zuen *Directo* gaitzizena nahiz ziklismokoetan erabiltzen zuen *P. de Harizpe* oso ezagun eta herrikoi egin zituen. Bertan ziharduten beste erredaktore batzuk, hauek ziren: Luis Ureña, Francisco Melgarejo, Angel Moises *Alamares* eta Luis Mas.

Egunkari hau ere, 1936ko Uztailaren 18an ezkutatu zen.



### 3.3. Prentsa Araban<sup>43</sup>

1936ko Uztailaren 18az aurreko prentsa arabarra, bi egunkarietara mugatuta zegoen: Joera errepublikarreko *La Libertad* -Lerroux-en *Partido Republicano Radical*-ekoa- zegoen alde batetik eta *Hermandad Alavesa* eta bereziki Jose Luis Oriol Urigüen<sup>44</sup> diputatuari loturiko *El Pensamiento Alavés* bestetik.

#### 3.3.1. La Libertad

Egunkari hau, Gasteizko zaharrena zen. 1890ean sortu zuen Herminio Madinabeitia literaturako katedratiko eta letretako gizonak. Obra anitzen egile zen eta zalapartarik nahiz inolako alderdi politikorekin lotura jakinik gabeko liberala, zenbait aldiz zinegotzi eta 1920 eta 1923an hiriko alkate ere izana. Egunkari hau, goizeko hiruhilabetekari bezala sortu zen eta hurrengo urtean egunkari bihurtu zen. Sortzaileak berak zuzendu zuen egunkaria bere lehen aroan eta bere jabeakide ere izan zen Pedro Ordoño eta Guillermo Elío-rekin batera, harik eta 1917an, bere jabe goa, egunkaria jadanik zuzentzen zuen Luis Dorao maisu *nazionalari* laga zion arte. Honek jarraitu zuen zuzendaritzan egunkaria desagertu arte.

*La Libertad*-ek, adeitasun itxaropentsuz hartu zuen Primo de Rivera-ren Diktadura, baina kolpearen urteurrena ospatzetik urtebetera, erregimen berria deitoratuz mintzatzen zen: *Los que con gran ilusión vimos el acto realizado el 13 de Septiembre de 1923, estamos apenados en su aniversario*. Alderantziz, egunkari liberalak, *Viva la República* alaitasun-oihuz egin zion harrera erregimen errepublikarraren aldarrikapenari eta gainera zera azpimarratu zuen alegia berau: *de la mano de la voluntad democrática, sin violencias, sin subversión del orden, respetando la vida y la hacienda del rey abdicado y prometiendo un marco de satisfacción a las aspiraciones de autonomía del País Vasco* zetorrela.

Apirilaren 14a pasa eta gutxira, *La Libertad*-eko zuzendari zen Luis Dorao, Alejandro Lerroux-en *Partido Republicano Radical*-ean sartu zen eta egunkaria bere zerbitzura jarri zen:

*portavoz de los intereses de los partidos republicanos y en ocasiones a la línea adoptada concretamente por el Partido Radical.* Egunkariak ordea, 1933ko editorial batean, bide independentea zermala zioen: *La Libertad no está sujeta a ninguna disciplina de partido determinado. Sirvió y sirve con entusiasmo desinteresado a la democracia alavesa y en nuestro campo de acción, jamás nos desenvolvemos por insinuaciones o conveniencias de los amigos de Lerroux, ni de nadie. Nuestra independencia es absoluta.* (1933-5-17)<sup>15</sup>. "Independentzia" hori hain garbia izan ez zen arren, egia da noski, 1932ko Ekáinean Iruñean Udalen Batzarrea egin aurretik izan zen Estatutuaren aurkako kanpaina jarraitu zuela -*Partido Radical*-aren bidearen arabera-, nahiz eta hurrengo urtean, 1933ko Azaroko hauteskundeetarako hautagai erradikala lehentasunez ez bultzatu, orokorki errepublikar guztien aldeko izanik. Biurteko antirreformistan, alderdi erradikalekoen eta ezkerreko errepublikarren arteko etendura berriz, egunkariak *Izquierda Republicana* eta PSOErekiko izan zuen aldentze handiagoan nabarmendu zen.

Errepublikaldiaren hasieran. *La Libertad*-ek eta *El Herald Alavés*-ek, oso kideko zabalkundea zuten Gasteizen, hots, hiru mila ale ingurukoa, nahiz eta egunkari errepublikarrak eskuindarra gainditu probintziako gainerako herrietan.

### 3.3.2. El Pensamiento Alavés

*El Pensamiento Alavés*-en jatorrian, *Heraldo Alavés*<sup>16</sup> zaharra egon zen. Azkeneko hau, 1903an sortu eta zuen, Ramon Ortiz de Zarate kazetari, politikoa, diputatu eta industrigizonak eta zuzendu ere berak egin zuen. Bere bizitza politikoa zabalak halere, guztia ere eskuinaren barruan eginak, norabide anitz izan zuen:

*En sus treinta años de existencia -idazten du Antonio Rivera-k- fue propiedad de seis empresas, todas las cuales estaban en manos de personas ligadas directamente a los sectores más reaccionarios de la ciudad. A cargo de la dirección tuvo a un número importante de personas, lo*

*que le restó coherencia en la línea editorial, y a la vez expresa las diversas posiciones que el derechismo adoptó en la ciudad. Algunos de sus directores más señalados fueron carlistas como Ortiz de Zárate, mauristas como Olálora, integristas como Valentín Sáenz de Santa María, tradicionalistas simpatizantes con el nacionalismo como Domingo Arrese, nacionalistas puros como Antonio Sáenz de Santa María, o periodistas de profesión y en ese sentido, menos políticos, como Francisco Marquínez (que sí era jaimista) y sobre todo, Ramiro de Castro* <sup>17</sup>.

1930eko Irailean, Antonio Saenz de Santamaria<sup>18</sup> pasa zen *Heraldo Alavés*-eko zuzendaritzara eta administratzailea Francisco Ruiz de Arbulo zen. 1931ko lehen seihilekoan, erredakzioaren zati bat, zuzendaria eta administratzailea, EAJn afiliatu ziren. Gatazkaren hazia ereina zegoen beraz: egunkariaren jabegoa alde batetik -eskuindarra- eta kazetaren joera ideologikoa bestetik -nazionalista-. Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetan, *Heraldo Alavés*-a irtenbide salomondarra hartuz irten zen gatazkatik: Pantaleon Ramirez de Olano hautagai nazionalista eta Jose Luis Oriol Urigüen katoliko foruzalea bulztatuz alegia<sup>19</sup>.

*Heraldo Alavés*-a igarotzen ari zen zailtasun ekonomikoek, egunkaria salmentan jartzera behartu zuten. Abenduaren erdi aldera, nazionalistek eta tradizionalistek berori eskuratzeko egindako lehiaren ondoren, azkeneko hauek lortu zuten helburua Jose Luis Oriol-ek eragiketa finantzatuta. *Heraldo*-aren erosketari sendotasun handiagoa emateko, otsailean *Editorial Tradición* sortu zuten, berorren Gobernu-Batzordeak Oriol lehendakari zuela. Domingo Arrese tradizionalista eta adetasun nazionalistak izanik Kongresoan *minoría vasco-navarra*-ko idazkari zena, izendatu zuten zuzendari eta nazionalismo/tradizionalismoaren arteko batasun-bidea mantentzen saiatu zen, harik eta Iruñeko Udalen Batzarrearen ondoren, Nafarroa at geraturik, Oriol-ek estatutuaren eta nazionalismoaren aurkako kanpaina gogorrari ekin zion arte. Gatazka larriz joan ziren eta egunkaria ixteko lehenengo kolpe huts bat ere egin zen, Sanjurjo Jeneralaren kolpe-saiakuntza hutsalaren ondoren gobernuaren suspentsioa

jasotzean. Azaroan arrazoi "ekonomikoengatik" itxi egin zen egunkaria eta Abenduaren 13an, *Pensamiento Alavés* egunkari berria kaleratu zen. Egoitza eta makineria berberak ziren, harpidedunak ere bai eta baita pertsonalaren zati bat ere; Hemeretzi kontratatuetatik, hamahiru lehengo nominakoak ziren eta kanpoan geldituak berriz, EAJko lau militanteak eta sinpatizante ba<sup>50</sup>. Egunkari berriak, Luis Ortiz de Estrada<sup>51</sup> zuzendari zuela, -1934eko Uztailetik aurrera Jose Goñi Aizpurua-ren kargu-jadanik *Hermandad Alavesa*-ren bozeramaile bihurturik, era honetan esplikatzen zuen bere jomuga:

*Pensamiento Alavés*, como dice su nombre, aspira a ser en la prensa, genuina manifestación del espíritu de Alava, que no es de hoy ni de ayer, sino que ha ido formándose y continúa elaborándose a través de una historia de siglos. Quiere esto decir que **Pensamiento Alavés** es un periódico cristiano, católico; mejor dicho muy vasco, puesto que nace en Euzkalerria, y por tanto muy español (...)

Dios y Patria son nuestros principios fundamentales; y como los fueros, la ley vieja, son sustancia de la Patria, y lo es también el idioma y la organización social y política, a la vez concausa y emanación de los fueros, a su defensa nos entregamos de lleno, poniendo a contribución nuestro esfuerzo para conseguir que Alava y el País Vasco entero gocen de las libertades a que tienen derecho.

Sabemos nosotros que no hemos de buscar nuestros enemigos en los pueblos ibéricos; antes al contrario, ellos han de ser hermanos que busquen nuestra ayuda y nos ofrezcan la suya. El enemigo está en la estatolatría del Estado moderno inspirado en el liberalismo, que forzosamente había de dar estos frutos, cada vez más amargos. Por eso hemos de combatir a uno y otro con toda la energía de que seamos capaces, hoy con el régimen en que se apoya, y mañana, si -Dios no lo quiera- resucitara el liberal parlamento que cayó el 14 de abril, seguiríamos combatiendo igual. (**Pensamiento Alavés**, 1932-12-13).

*Pensamiento Alavés*, egunkari politiko eta militantea izan zen eta *La Libertad*-en azaltzen diren kritiken arabera, estilo bortitzarekin gainera, alderdiek eta egunkariak Araban, ideologia kontrajarrietakoek ere, ordurarte izan zituzten ohizko harremanekin talka egiten zuena. Erregimen errepublikarrarekiko oso borrokalari azaldu zen egunkaria izan zen eta horrek 1932tik 1936ra zenbait auziperatze eta isun-kopuru ederra sortu zizkion bere zuzendariari. 1936ko hauteskundez geroztik, egunkariak aurrez aurreko borroka irekian ihardun zuen erregimen errepublikarrarekin eta eritzi publikoa ideologikoki gerra zibilerako prestatzen aritu zen.

*A partir del triunfo del Frente Popular, en febrero de 1936, la política de Oriol y de los tradicionalistas se encaminó casi exclusivamente a la preparación de la sublevación armada contra la República. El enfrentamiento verbal entre los que poco después se enfrentarían con las armas en la mano, llegó entre febrero y julio de 1936 a extremos de gran acritud. El 20 de Junio, Euskadi Roja hablaba de Pensamiento Alavés, órgano de la plutocracia alavesa, financiado por media docena de grandes rentistas tipo Oriol, que utilizan sus columnas para atacar a modestos ciudadanos y ponía en guardia a las autoridades y al Frente Popular para que corten rápidamente estos procedimientos y pongan fuera de la circulación a este órgano faccioso (1936-6-20). Por su parte Pensamiento Alavés no se quedaba atrás y, en un editorial condenando el asesinato de Calvo Sotelo, pedía la justicia del talión para los asesinos y para sus cómplices y prometía vengar por los mismos procedimientos la muerte del diputado ultraderechista (1936-7-14)*<sup>32</sup>.

### 3.4. Prentsa Nafarroan

1936ko Uztailaren 18a baino lehen, prentsa nafartarra hiru egunkarietara mugatuta zegoen: *Diario de Navarra* eskuindarra *Pensamiento Navarro* tradizionalista eta *La Voz de Navarra* nazionalista. Prentsaren joera hauek, 1936ko Otsaileko hautes-

kundeetan hautesle nafarrek eman zituzten botuekiko ez zetozen guztiz bat; eskuindarren multzoak botuemaileen % 69,1 lortu zuen, Fronte Popularrak % 21,7 eta EAJk % 9,2. Errepublikarrek ez zuten inolako adierazpide edo espresio biderik, nahiz eta hauteslegoaren zati garrantzitsua izan eta Erriberan nahiz Burundan (Altsasun), Iruñean, Tafallan eta haran pirinearretako herri batzuetan ere emaitzarik onenak lortu. 1931ko udan hauteskundeetan, hautagaitza errepublikar-sozialistek, *La República* eta *Hoy* (Tuterakoa) astekariak izan zituzten, eskuindarrek eta nazionalismoak zituzten hiru egunkarien aldean begibistako desabantailarekin. Desabantaila hau, *Democracia*<sup>5</sup> deitu egunkaria sortuz gainditu nahi izan zen, 1932ko Martxoaren 6an kaleratu zen egunkariarekin hain zuzen ere, baina zazpi hilabete baino ez zuen iraun.

*Nace DEMOCRACIA recogiendo el ansia, latente hacía mucho tiempo en el sector de opinión navarra servidor incondicional de los ideales republicanos, de condensar las ideas mantenidas a costa de incasantes luchas en un órgano de opinión que, incorporado a la Prensa diaria, sea portavoz de anhelos y exponente del sentir republicano.*

*Fruto del esfuerzo de todos, incluso del sacrificio de todos, aparece DEMOCRACIA en la vía pública con el orgullo de aquel que nace limpio de mancha y firme en la intención, como obra que es de la férrea voluntad de gentes, humildes en su mayoría, que lo han creado, cuyos nobles sentimientos han de servir, y no engendro interesado de una oligarquía política y financiera.*

...

*Al servicio de la República; este es nuestro lema. Al servicio de la República, nuestro patriotismo inquebrantable, fervoroso, fanático si se quiere, Al servicio de la República, nuestra fe ciega en la virtud de un régimen nacido del alma popular fuente de todas las virtudes...*

*Al servicio de Navarra, a cuyos problemas privativos, económicos, sociales y administrativos hemos de dedicar atención preferente...*

Egunkari hau sortzen, *Acción Republicana* eta *Partido Radical*-etik zetozen afiliatuek eskuhartu zuten eta neurri apalagoan bazen ere, *Partido Republicano Autónomo Navarro*-koek ere bai. Zazpi hilabete geroago, arrazoi ekonomikoengatik desagertu zen *sencillamente porque lo recaudado en la suscripción no dió lo suficiente para crearlo en condiciones de vitalidad y sobre todo, con imprenta propia*<sup>64</sup>.

Benetan gertatu zena ordea, zera izan zen, egunkari hau hilabete batzutan eta aldizkakotasun desberdinetako beste egunkari errepublikar batzuk ere izan arren, egunceroko prentsa, eskuindarren eta nazionalismoaren eskuetan egon zela. Garrantzi berezikoa izan zen *Diario de Navarra*-ren presentzia. Egunkari honek, 1920an jada, 10.000 ale argitaratzen zituen, *El Pensamiento Navarro* egunkari karlistak argitaratzen zituen 2.500 aleren aurrean eta 1932an, bere tirada 15.000 alekoa zen, *La Voz de Navarra*-k zituen 3.900 aleren aldean<sup>65</sup>. *Diario de Navarra*, eritzi publiko nafarra eratzeko bitarteko nagusia izan zen eta Bigarren Errepublikako urteetan, erakunde errepublikar eta gobernatzaileen izen txarrantzako funtsezko pilare bilakatu zen, legez eraturako erregimenaren aurka egiteko bortizkeriaren aldeko sentimentua sortuz eta azkenik hori, 1936ko Uztailaren 18an iritsi zen altxamendu militarrekin eta hark osoro lagundu eta bere bulkadarik sutsuena eskaini zion. Neurri batean bederen, 1931ko maiatzaz geroztik Hamarrekoak (*Decurias*) deituak, hain zuzen ere gero *requete*-en antolamendu armatua eratzeko oinarri izan zirenak, eratu zirenez gero, kolpejoleen sarcairentzat bermapuntu bat gehiago izan zen egunkari hori. Gero, laguntza militarra eta finantzaketa nahiz egituraketa militarra lortzeko Mussolini-rekin egindako elkarrizketa etorri zen eta azkenik altxamenduan burubelarri sartzea.

### 3.4.1. Diario de Navarra

*Diario de Navarra*-ren lehen alea, 1903ko Otsailaren 25ean azaldu zen, informazio katolikoko prentsa kontserbadorearen garapeneko kontestuaren barruan eta Hego Euskal Herriko zutabe nagusiak, *La Gaceta del Norte* eta Donostiako nahiz

Bilboko *El Pueblo Vasco* ziren. *La Información* enpresak argitaratzen zuen -eta gaur egun ere hala jarraitzen du- eta berori 200.000 pezetako kapital sozialarekin eratuta zegoen, 500na pezetako 400 akzio izendatutan zatituta. Bere Estatutuetakoko 2. artikuluan definitu ziren argitarapen-printzipioak:

*Se inspirará, no obstante, sin alardes innecesarios, en los verdaderos sentimientos religiosos del país; no se convertirá directa ni indirectamente en órgano de ningún partido político; sabrá recoger y mantener las enseñanzas del orden social, de la familia y de la propiedad; defenderá resueltamente nuestro régimen privativo y procurará orientar a la opinión con un criterio recto y elevado independientemente de toda agrupación política. Habrá de distinguirse también la nueva publicación por su parquedad en tributar alabanzas y por su templanza e imparcialidad para examinar la gestión de las Autoridades locales, formulando respetuosa censura o tributando el debido aplauso, sean cuales fueren las personas que adopten los acuerdos<sup>66</sup>.*

Sozietatearen eraketan, garai hartako Merkatal eta Industri Ganbara Ofizialeko ordezkari prestuek eskuhartu zuten eta bere Zuzendaritza-Batzordetik, *Electra Irati*, *Sociedad de Seguros Mutuos*, *Huici*, *Múgica y Cía*, *Irurzun y Cía*, *Larraya y Cía*, *Sociedad Burlada y Belascoain de aguas minerales*, *Tejería Mecánica*, *La Vasconia*, *Sociedad General Azucarera de España*, *Cementos Portland*, *Aguas de Arteta*, *Papelera Española*, eta abarretako industrigizonak pasa ziren. 1904ean Nafarroan *Partido Conservador* deitua eratu zenean, *Diario de Navarra*-ko sortzaileetako bi, bere lehen Batzordeko eta Batzorde Egikarizailleko partaide izan ziren (Serapio Huici eta Valentín Marquina). Beren eskuindarreko harremana begibistakoa izan zen arren, bai ekonomi arloko loturengatik eta baita defendatu zuen politikarengatik ere, egunkaria bere lehen alean independente bezala azaldu zen eta *con una sed grande de imparcialidad, de verdad y de justicia* zetorrela zioen, inolako konpromezurik gabe, *ni con la derecha ni con la izquierda*, eta zera



eransten zuen, alegia, ez zeukala beste inori zertan entzunik: *por qué escuchar otras voces que las de la conciencia propia formada al calor de los principios de la religión católica y fundida en el amor de nuestras leyes forales, que viven en el alma de todos los navarros*<sup>57</sup>.

*Diario de Navarra*, nafar prentsako tiradarik handieneko egunkari bihurtu zen eta eritzi publikoaren eraketa ideologikoan ere eraginik handiena izan zuena izan zen. Apurka-apurka, Nafarroako klase menperatzailearen eta bere ideologia den *navarismo*-aren organo adierazle izatera iritsi zen.

Raimundo García *Garcilaso* izan zen bere zuzendaria berrogeitamar urtetan zehar (1912-1962) eta joera eskuindarra eman zion. Bigarren Errepublikan aldarrikatuz geroztik, erakunde errepublikarrentzat joera iraingarria kanporatu zuen, altxamendu militarra prestatzeko hasieratik Mola jeneralarekin lan eginez. Raimundo García gainera, kazetaria ezezik politiko ihardulea izan zen, beti ere eskuindarren eremuan noski: *Asamblea Nacional*-eko partaide Primo de Rivera-rekin, *Unión Patriótica*-koa eta *Somatén*-ekoa Gorteetako diputatu 1933an eta 1936an eskuindarren multzoko Hautagaitzetan eta guzti horretaz gainera, altxamenduan konspiratzaile<sup>58</sup>.

Bigarren Errepublikan aldarrikatu zenetik, *Diario de Navarra*-ren jarrera, erregimen berriarekiko zeharo aurkakoa izan zen<sup>59</sup>. Batzutan, egunkariak bere editorialetan, gobernarietako zentsura ezezik, demokrazia, parlamentarismoa eta sufragio unibertsala berbera ere, bere egin ez izanaren seinaleak azaltzen zituen. 1933ko urtariletik aurrera eta *La unión de la derecha* izenpean, *Diario de Navarra*-k erregimen demokratikoarekiko erdeinua zabaltzeko kanpaina osoa egin zuen. Gainera, eskuindarren multzoa bultzatu zuen -bertan bere zuzendaria ziholarik-tradizionalistak eta *Acción Española*-ko partaideak bakarrik elkarriketatzen zituen eta gero, hauteskundeetako garaipena ospatu zuen. 1936ko hauteskundeetarako, kanpaina gogorra egin zuen *un cartel de derechas auténticas* deitua lortzeko eta hauteskunde-kanpaina bitartean, etengabe erasotu zuen Fronte Popularra, Moskurekin eta Sobietarrekin identifikatuz. *El Frente*

*Popular obedece a Moscú... Moscú manda y hacia el Soviet se marcha... el comunismo se sirve del Frente Popular para utilizar las espaldas de los partidos republicanos pequeño-burgueses a fin de escalar las fortalezas del Estado más cómodamente*<sup>60</sup>. Gerra zibila lehertu aurre-aurrean, sistema demokratikoarengan berak zuen fede-faltaren egiaztapena egin zuen:

*... La mejor sustancia de los pueblos, la sustancia que debía producir frutos benditos de paz, de fraternidad, de caridad, de progreso y de alegría, se la lleva esta mala raíz del sufragio universal, de la cual se extrae luego el veneno del parlamentarismo que aniquila toda posibilidad de bienestar político y de paz social. (Diario de Navarra, 1936-2-12)*<sup>61</sup>.

Erregimen errepublikarrarekiko aurkako jarrera horrek, arazo larriak sortu zizkion. 1931ko Abuztuan, Alcalá Zamora-ren gobernuak berorrentzako suspentsioa agindu zuen *Pensamiento Navarro, La Tradición Navarra*, beste Hego Euskal Herriko egunkari batzuren (*Euzkadi, La Tarde, La Gaceta del Norte, El Día, La Constancia*, etab.) eta Estatuko beste batzurenarekin batera (*Unión, El Siglo Futuro*, etab.)<sup>62</sup>. Egoera hori errepikatu egin zen hurrengo urteko abuztuan, Sanjurjo Jeneralaren altxamendua zela bide<sup>63</sup>.

*Diario*-aren argitarapen- eta informazio-politika honek, haserre bizia eragiten zuen Iruñeko sektore errepublikarren artean. 1936ko Otsaileko hauteskundeetan Fronte Popularrak garaitu eta hiru aste beranduago, manifestazio bat antolatu zen hirian, Diputazioko Gestora kentzea eskatuz, izan ere, hau eskuindarra bait zen eta manifestazioa *Diario de Navarra*-ren tailerren aurrean bukatu zen, bi hildako eta zenbait zauritu bitarteko zirela<sup>64</sup>.

Gerra zibila lehertu aurreko asteetan, Raimundo García, *Garcilaso*, *Diario*-aren zuzendariak, gerra zibilaren prestatzaile ideologiko eginkizunean ihardun zuen bere egunkariaren bitartez, praktikan gutxiago balio ez zuen Sanjurjo Jeneralaren, tradizionalisten eta Mola Jeneralaren arteko lotura edo zubi eginez.

### 3.4.2. Pensamiento Navarro

*Pensamiento Navarro*-k 1897ko Urriaren 17an argitaratu zuen bere lehenengo alea. 1911rarte, *Diario carlista* azpititulua ipini zuen, baina data horretan, *Diario Tradicionalista* zioenaz aldatu zuen. *La Lealtad Navarra* izeneko egunkariaren jarraitzaile zen goizeko egunkari hau. Bata zein bestea, Eskualdeko Batzordeak sortuak ziren. *Don Carlos* hiltzean, bere seme *Don Jaime*-ri fidel zitzaion egunkari gutxitako bat izan zen<sup>65</sup>. 1932an, Comución Tradicionalista izenpean, hiru adar bereziak batzea lortu zuen: jaimistak, integristak eta mellistak.

Bere lehenengo alean, *Nuestro Propósito* izeneko editorial batean, bere joera esplikatu zuen:

*Soldados somos de la bandera carlista y con todas las energías de nuestro corazón, defendemos el perdón que tremolaron nuestros hermanos en sus épicas empresas militares.*

*Defensores del sacrosanto lema de Dios, Fueros, Patria y Rey, no solamente sostendremos con tesón las doctrinas que en estas palabras se encierran, sino que combatiremos todo aquello que no sea perfectamente ortodoxo en materia religiosa, monárquico tradicional en política y foral en todo el régimen de gobierno.*

*Por eso, nuestro primer cuidado ha sido solicitar la censura eclesiástica para el **Pensamiento Navarro**, el cual desde luego, se pone incondicionalmente a las órdenes de nuestro prelado, seguro de que siempre ha de ser hijo sumiso y fiel servidor de sus mandatos*<sup>66</sup>.

*Pensamiento Navarro*-k, mugimendu tradizionalistak bezala, muzin egina zion demokrazia politiko eta sufragio unibertsal usaina zeraman orori. Lehenengo aleetan, zera ziotsan: *en nuestro periódico debemos atacar duramente las doctrinas liberales* (1897-10-27) eta sugar hori, 1936ko Uztailaren 18rarte mantendu zuen, nahiz eta bere kritikak "in crescendo" joan Bigarren Errepublikaren aldarrikapenetik gerra zibilerarte.

Bigarren Errepublikako lehenengo aldian, egunkariak errepublikartasunarekiko zuen jarrera aurkako baldin bazen ere, euskal nazionalismoarekiko ulermenekoa izan zen. Ekainaren 17ko *Pensamiento Navarro*-k, aurreko egunean eskuindarrek, tradizionalistek eta EAJkoek Lizarrako Udalen Batzarrean akordatutako Euskal Estatutuaren proiektuaren onespenerakiko goraiamenak baizik ez zituen. Harreman hauek ez ziren haatik desberdintasun gabeak izan, izan ere, Ekainaren 28an esfortzu handia kosta bait zen guztien artean hautagaitza bakarra eratzea, baina azkenean lortu egin zen, areago oraindik, Jose Antonio Agirre jelkidea buru zela, nahiz eta *católico-fuerista* izena hartu<sup>67</sup>. Nazionalistekiko harremanak, 1931ko azkenalditik aurrera hoztu ziren, izan ere, Lizarrako Estatutu-proiektua lurperaturik, *Comunión Tradicionalista*-k interes gutxi izan bait zuen izapidaketa ezkerreko Gestoren esku gelditzen zen proiektu berri batengan.

1936ko hauteskundeetan Fronte Popularrak lortutako garaipenetik aurrera, *Pensamiento Navarro*-ren tonua, Errepublikarekiko geroz eta aurkakoagoa izan zen eta bere kide *Diario*-ak bezala, eritzi publiko nafartarraren artean erakunde errepublikarren aurkako bortxazko giroa sortzen lagundu zuen eta azkenean bortxa, gauzatu egin zen.

### 3.4.3. La Voz de Navarra

*La Voz de Navarra*-k, 1923ko Martxoaren 4ean argitaratu zuen bere lehenengo alea, Primo de Rivera Jeneralaren Estatu-kolpea baino hilabete batzuk lehentxeago hain zuzen ere. *Diario Independiente* azpтитulua zeraman, nahiz eta EAJko Napar Buru Batzarraren bozeramaile izan<sup>68</sup> (1930erarte *Comunión Tradicionalista Vasca*-koa). Informazio eta eritziko egunkari hau, bi elkarteren menpekoea izan zen: *La Publicidad* eta *Tipográfica Navarra*, beren kapitala gehienbat EAJko militanteek izenpetua zelarik, baina tartean bazeuden katoliko eta jaimista batzuk ere. Lehenengo enpresa, argitarapenez arduratzen zen eta bigarrena tailerren titularra zen.

Bere joera politikoa, ondorengoa izan zen:

*La Voz propugnó siempre la restauración foral y defendió con ahínco la incorporación de Navarra al Estatuto Vasco, lo que fue causa de frecuentes polémicas con los otros dos diarios de Pamplona: el tradicionalista **El Pensamiento Navarro** y el católico **Diario de Navarra** de Raimundo García (Garcilaso), diputado navarrista y enemigo del Estatuto vasco<sup>69</sup>.*

EAJk indar gutxi zuen probintzia batean egunkari nazionalista hau izatea, urte batzutan bederen, zuzendaritzak Nafarroan egunkari nazionalista bat mantentzeko zuen gogoari zor izan zitzaion. 1935ean, Jose Antonio Agirre-ren lekukotzaren arabera, *El Día* egunkari nazionalista gipuzkoarrak, *La Voz de Navarra*-k berak baino ale gehiago saltzen zituen probintzia horretan, beraz buruzagi jelkideak, arazoari irtenbide "zorrotza" ematea proposatzen zuen. Egoera hau ez zen beti horrela izan. Primoren diktadurakoan, *La Voz*, probintziako tiradarik handieneko bigarren egunkaria zen. Hura erori ondoren, egunkari nazionalistak, garapen garrantzitsuko aldia izan zuen, 1932an 3.500 aleko tirada lortuz (*Diario de Navarra*-k 15.000 ale kaleratzen zituen eta *Pensamiento Navarro*-k 3.900) baina bere ments ekonomikotik eratorritako krisialdi latzean sartu zen. Azken urte horietan, EAJko Bilbon kokatutako zuzendaritza (Euzkadi Buru Batzarra), diruz eta gizonez hornituz, EAJ nafartarrak zuen barne-krisiaren islada garbia zen *La Voz*-en egoera gogorra arintzen saiatu zen<sup>70</sup>.

Altxamendu militarra hasi ondoren, *La Voz de Navarra* berehala inkautatua izan zen, bere zuzendari zen Jose Aguerre (*Gurbindo*) atxilotua eta bere tailerretan, *Arriba España* lehenengo egunkari falangista egin zen.

**Euskaratzailea:** Andoni Sarriegi

K.G.

<sup>1</sup> FABRA Agentziaren zentral madrildarra, 1936ko Urriaren 29an, Largo Caballero-ren Gobernuan Estatu-Ministrari zen Julio Alvarez del Vayo-ren aginduz inkautatua izan zen ondorengo zela bide: *sus emisiones poseían un carácter público de interés nacional*. Egun horretatik aurrera, Carlos Esplá Rizo pasa zen agenziako zuzendaritzara gobernuaren izenean. Era berean izan ziren inkautatuak Bartzelonako eta Valentziako sukurtsalak. Maria Antonia Paz, **La Creación de la Agencia EFE: medios técnicos y objetivos**, Prensaren Historiako 2. Jardunaldietako ponentzia, Bilbo 1988.

<sup>2</sup> Eskuindarrak, probintzia guztietan batuta joan ziren, Araban salbu.

<sup>3</sup> Restituto Zorrilla Castresana, **Los hábitos de lectura de Bilbao durante el Estado de Excepción: 1876-1879**, UPV-EHU-ren Argitarapen-Zerbitzua, Bilbo, 81 or. eta ondorengoak.

<sup>4</sup> Alfonso Sanchez-Taberner J.ak aipatua, Doktoradutza-Tesia *El Correo Español-El Pueblo Vasco y su entorno informativo (1910-1985)*. Iruñea 1988, 1. Bol., 142. or.

<sup>5</sup> *Euzkadi* egunkariak landutako bi grafikoen arabera 1936an Bilbo eta Donostiako egunkariak zuten zabalkundea (Manuel de Irujo-ren Artxiboa, Iruñea, 66 eta 68 artxibategiak). Jose Luis Granja J.ak *La prensa nacionalista vasca (1930-1937). La prensa de los Siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos* obran aipatua. Karmelo Garitaonandia J.aren ardurapeko argitarapena. UPV-EHUren Argitarapen-Zerbitzua. Bilbo, 1986.

<sup>6</sup> Prensaren Estatistika Ofizialean azaltzen diren prentsaren tiradak, enpresek berck egindako aitomenen arabera argitaratzen ziren, beraz, behar diren erreserbekin hartu behar dira. Batez ere orientazio gisa adierazten ditugu eta bereziki, argitarapen batzuek beste batzuekiko zuten pisua ebaluatzeko.

<sup>7</sup> Alfonso Carlos Saiz de Valdivielso. *Triunfo y tragedia del periodismo vasco* Editor Nacional, Madrid 1977, 207-208. or.

<sup>8</sup> Gatazkaren garapena zehazki aztertzeko, ikus Jose Luis Granja-ren *Nacionalismo y II República en el País Vasco*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Ed. Siglo XXI, Madrid 1986, 84-98. or.

<sup>9</sup> Anacleto Oruetak 55 akzio hartu zituen, beste 45 akzioak, Gustavo Scheifler eta Javier Gortazar-en eskuetan gelditu ziren.

<sup>10</sup> *Acción Vasca* bizi laburreko egunkaria izan zen; hogeitamar ale baino ez zituen kaleratu Bilbon 1931ko martxoaren 24etik apirilaren 28ra bitartean. *Tipográfica General*-en inprimategia probetxatuz EAE-ANV-ren egunkari ofizial bat ateratzeko sortu zen (*La Tarde* gehienera ere ofiziosoa baino ez bait zen). Alderdi honek, ez zuen bere kazetarik izan harik eta 1933-34ean *Tierra Vasca* atera zuen arte. Gero berriro ere desagertu egin zen 1936ko abendurarte, gerra hasi eta garatu arte alegia.

<sup>11</sup> *El Liberal* enpresaren politika hedatzaileak aurreranzko urrats bat eman zuen 1906an *Sociedad Editorial de España* sortzean, izan ere honck, *El Liberal* eta Mende hasierako urtetatik salmenta beherantz zihoakion Gasset familiaren *El Imparcial* bildu bait zituen. Sozietateak 4.600 akzio 1.000na pezetako zeuzkan, horietatik 2.100 Gasset familiari zegozkolarik eta 2.500 *Sociedad El Liberal* deituari. Trusta, *El Heraldo de Madrid* erostean osatu zen. Sozietatea eraturik, bere politika hedatzaileari jarraitu zitzaion *El Defensor de Granada* (1907an) eta *Xixongo Noroeste* (1908an) erosiz. 1907an, trustak *La Moda Práctica* sortu zuen, bere boterea astekarien arlora hedatu behar zuela zirudien astekaria hain zuzen ere, baina izen hori eramatetik ez zen pasa.

<sup>12</sup> *Nuestro Aniversario, La Gaceta del Norte*, 1902-10-11n (p.l.).

<sup>13</sup> Alberto Lerchundi-ren *La Gaceta del Norte, 83 años de historia*. Karmelo Garitaonandiaren hitzaurrea. UPV-EHUren Argitarapen-Zerbitzua. Bilbo, 1985, XIV. or.

<sup>14</sup> Alfonso Carlos Saiz de Valdivieso, *Ibidem*, 318. or. eta ondorengoak eta Alberto Lerchundi, *Ibidem*, 48. eta 49. or.

<sup>15</sup> Atal hau bereziki Enrique Ybarra-rengan funtsatzen da. *Un periódico institución. 75 años informando: 1910-1985. El Correo Español-El Pueblo Vasco*-ren argitarapena, Bilbo, 1985. Alfonso Sanchez Tabernero, *El Correo Español-El Pueblo Vasco y su entorno informativo*, Doktorego-Tesia, Iruñea, 1988.

<sup>16</sup> Alfonso Sanchez Tabernero da *neutrallasun*-eko xehetasun hau jasotzen duena. A.C. Saiz de Valdivielso-k aldiz, *El Pueblo Vasco*-k eta *El Nervión*-ek Inperio zentralak begi onez begiratu zituztela adierazten du.

<sup>17</sup> *Euzkadi*-k eta *El Liberal*-ek bestalde, aliatuen aldeko jarrera mantendu zuten.

<sup>18</sup> 1936-12-10eko *Batzorde Kalifikatzaile Zentralaren* akordioa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Egunkaria* 1936-12-15.

<sup>19</sup> Injincrua zen. *Pasavolantes* izeneko sekzio bat idazten zuen *Argos* izenarekin. 1873-1879an *El Correo Vascongado* egunkaria ere sortua zen, eritzi publikoa monarkia isabeldarraren alderako irabaztearren, berak, *Unos y otros, recuerdos de nuestras discordias intestinas* izeneko liburuan adierazten duen bezala: *Unos pocos, muy pocos bilbainos, adictos a la monarquía destronada, fundamos un periódico. EL CORREO VASCONGADO, con el propósito de hacer propaganda en favor de nuestra causa*. 55. or. Restituto Zorrilla-k *Los hábitos de lectura de Bilbao durante el Estado de Excepción: 1876-1879*, UPV-EHUren Argitarapen-Zerbitzua, Bilbo 1988.

<sup>20</sup> *España ante nuevos rumbos, El Nervión* 1923-9-15. A.C. Saiz de Valdivielso-k aipatua, *Ibidem*, 193. or.

<sup>21</sup> Manuel Echevarria, beren jabeen erabakiz desagertu zen *La Guerra* egunkariko eracntzaile izana zen. Echevarria jaunak eta *La Guerra*-ko langileak,

akordio batera iritsi ziren lehengo enpresarekin, makineria eta instalazioak erabiltzeko eta egunkari berri bat argitaratu ahal izateko. Arantza Lezamiz-ek aipatua, *El Noticiero Bilbaino* (1875-1937), urteko Memoria, (p.l.).

<sup>22</sup> Restituto Zorrilla, *Ibidem*, 91. or.

<sup>23</sup> Miguel Unamunok bere orrialdeetan idatzi zuen bere lehen artikulua: *La Unión hace la fuerza* (1880) eta gero Antonio Trucba-k zuzentzen zituen bere literatur orrialdeetako kolaboratzaile atxekia izan zen.

<sup>24</sup> Egunkariak, bere lehen aroan, ondorengo testuarekin autoiragartzen zuen bere burua: *El Noticiero Bilbaino. Ha sido y sigue siendo el periódico de mayor circulación de Bilbao, en el norte de España. Por eso también, el más favorecido por los anunciantes, sin que nadie pueda probar lo contrario.*

<sup>25</sup> Arantza Lezamiz-ek aipatua, *Ibidem*, 3. or.

<sup>26</sup> Alfonso Carlos Saiz de Valdivielso, *ibidem*, 225. or.

<sup>27</sup> *El Fuerista* egunkari katolikoa zen eta bere lema *Dios, Patria y Rey* zen. 1888ko Urtarrilaren 19tik, 1898ko Maiatzaren 10erarte argitaratu zen.

<sup>28</sup> Juan Maria Peña Ibañez, *El Diario Vasco. Cincuenta años después. Sociedad Vasca de Publicaciones*-en argitarapena, Donostia, 1984.

<sup>29</sup> Alfonso Carlos Saiz de Valdivielso, *ibidem*, 116. or.

<sup>30</sup> A. C. Saiz de Valdivielso-k aipatua, *Ibidem*, 279. or.

<sup>31</sup> Causa General. Gipuzkoa. Prentsa, 32. or. Celso Almuña Fernandez, *La Inquisición franquista y la formación de la Causa General*, Prentsaen Historiari buruzko 2. Topaketak. Bilbo, 1988.

<sup>32</sup> 1916 eta 1919 bitartean, izen bereko egunkari katoliko bat argitaratua zen.

<sup>33</sup> Juan Ramón Peña Ibañez, *El Diario Vasco. 50 años después. Sociedad Vascongada de Publicaciones* argitaldaria, Donostia, 1984, 34. or.

<sup>34</sup> Bere lehendabiziko zuzendaria Landaburu izan zen.

<sup>35</sup> A.C. Saiz de Valdivielso, *Ibidem*, 225-6 or.

<sup>36</sup> Injineru eta Enpresari izan zen, Papelera Española-ren eta enpresa industrial nahiz kazetagintzakoen sortzailea (*Novelades* aldizkaria, *El Pueblo Vasco*-z gainera), Gorteetako diputatu Donostiatik, senatari Gipuzkoatik, Diktadurakoan *Asamblea Nacional*-eko partaide eta Gorteetako diputatu hiru legegintzaldi errepublikarretan.

<sup>37</sup> A.C. Saiz de Valdivielso, *Ibidem*, 57. or.

<sup>38</sup> Felipe Urcola-k 1936ko Abendutik aurrera *Euzko-Deya* kazeta zuzendu zuen, Eusko Jaurilaritzak Parisen sortutako informazio-organoa.



<sup>39</sup> Juan Peña Ibañez, *Ibidem*, 83. or.

<sup>40</sup> A.C. Saiz de Valdivielso, *Ibidem*, 321. or.

<sup>41</sup> Aipatutako A.C. Saiz de Valdivielso eta Juan Ramon Peña Ibañez-en liburuetan, independente bezala azaltzen da egunkari hau. Egia da prentsak orokorki zuena baino izaera politikotik gutxiago zeukala, baina batzutan bere joera eskuindarra nabarmentzen zen, nahiz eta eguncero ez aurkitu gatazka politikoan sartuta 1936ko Ekaineko *El Diario Vasco*-ren ale batek, prentsa gipuzkoarra aztertzen ihardun zuen eta han ere, joera politikorik ez zuela adierazten zen. Nik neuk, *aitortutako* edo *deklaratutako* joera politikorik ez zuela esango nuke.

<sup>42</sup> Celso Almuña, *Ibidem*, 17. or. eta ondorengoak.

<sup>43</sup> Prentsa arabarra aztertzeko, lan hauek hartu ditut oinarritzat batipat: Antonio Rivera-ren *La prensa alavesa en el primer tercio del siglo XX*, idazlana, *La Prensa en los Siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos*. UPV-EHU-ren Argitarapen-Zerbitzua, Bilbo 1986, 551-571. or.

Santiago de Pablo-ren *Las empresas periodísticas de Jose Luis Oriol: Heraldo Alavés y Pensamiento Alavés* idazlana, *La Prensa de los siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos*. UPV-EHU-ren Argitarapen-Zerbitzua, Bilbo 1986, 571-587. or.

Santiago de Pablo-ren *Prensa, política y opinión en Alava durante la Segunda República* idazlana, *Kultura* aldizkaria, 7 Zk., 1984eko Azaroa, Gasteiz, 96-104 or.

<sup>44</sup> Jose Maria Orjol eta Urigüen, arkitektoa zen. Leongo Institutuko eta Valentziako Unibertsitateko proiektuak egin zituen eta hainbat enpresetako akzioduna zen, horien artean zenbait enpresa elektriko zegoelarik (*Hidroeléctrica Española, Ibérica y el Viesgo, cooperativa de Madrid, Unión eléctrica de Cartagena, Eléctrica de Lima* eta *Electras Marroquíes*) eta baita argitarapen-sektorekoak ere (*Editorial Católica Voluntad*). Diputatu maurista izan zen 1918an eta Errepublikako hiru agintealdietan.

<sup>45</sup> Santiago de Pablo-k *Prensa, política y opinión en Alava durante la Segunda República* idazlanean aipatua, *Kultura* aldizkaria, 7 Zk., 1984eko Azaroa, Gasteiz, 96. or.

<sup>46</sup> *Heraldo Alavés*-ek bere aldetik *El Alavés* egunkari karlistak utzitako hutsunea bete zuen eta azkeneko honengandik bere makineria eta Ortiz de Zarate zuzendaria bereganatu zituen.

<sup>47</sup> Antonio Rivera-k *La prensa alavesa en el primer tercio del siglo XX* idazlana, *La Prensa de los Siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos*. UPV-EHUren Argitarapen-Zerbitzua, Bilbo 1986, 554. or.

<sup>48</sup> Francisco Marquinez lehengo zuzendaria, *El Pensamiento Navarro*-n postu berbera betetzera pasa zen.

<sup>49</sup> Santiago de Pablo, *Ibidem*, 575-576. or.<sup>50</sup> *Heraldo Alavés* desagertzeak eta beren egunkari baten jabe ezinbihurtu izanak, nazionalistek eritzi arabarrean beste sarbide batzuk saiatzea ekarri zuen. Alde batetik, 1932ko Abenduaren 24ean, *Arabarra*-ren laugarren aroko lehen alea azaldu zen eta bestetik berriz, hurrengo urteko urtarrilaren 10etik aurrera, Euzkadi-ren edizio arabarra argitaratu zen, Arabari eskainitako *Euzkadi en Araba* orrialde osoarekin. Orrialde honen idazleak, *Heraldo*-tik kanporatutako gehienak izan ziren: Lombana, Ruiz de Arbulu, Manuel Ibarrodo eta denboraldi batean Venancio del Val, Santiago de Pablo, *Ibidem*, 583. or.

<sup>51</sup> *El Siglo Futuro*-ren zuzendari izana zen eta espresuki etorri zen Gasteiza egunkariaren kargu egiteko.

<sup>52</sup> Santiago de Pablo, *Ibidem*, 586. or.

<sup>53</sup> Angel Garcia-Sanz Marcotegui-ren *Democracia*-ri buruzko, *Los promotores de Democracia, periódico republicano pamplonés de 1932*, azterlanean oinarritua. **Príncipe de Viana** aldizkaria, XL-VI. Urtea, 174. zk., 1985eko Urtarrila-Apirila.

<sup>54</sup> Angel Garcia-Sanz, *Ibidem*, 111. or.

<sup>55</sup> *Estadística de la prensa periódica en España*, 1920, Madrid 1921, 66-67. or. eta V. Arteta-ren *Aproximación al nacionalismo Vasco en Navarra a través del Archivo del Gobierno Civil de Pamplona*. XVIII-XIX-XX. mendeetako Nafarroako 1. Kongresoan aurkeztutako Komunikazioa, 15. or. Iruñea, 1985eko Abendua. Silvia Fernández Vigueira-k *El Alzamiento en Navarra. Su reflejo en Diario de Navarra. El Papel de Raimundo García Garcilaso* lanean aipatua.

<sup>56</sup> José J. Sánchez Aranda, *Los comienzos del Diario*, 55. or. eta hurrengoak. *Ediciones y Libros S.A.*, Iruñea 1983.

<sup>57</sup> *Diario de Navarra*, 1903-2-25, 1. or.

<sup>58</sup> Silvia Fernández Vigueira, *Ibidem*, 2. or.

<sup>59</sup> Erakunde demokratikoekiko eta hauteskunde-sufragioarekiko desconfiantza hau, ez zuen Errepublikara garaian bakarrik azaldu, baizik eta izpiritu berbera nabarmendu zuen Monarkiarekiko ere Errestaurazio garaian, nahiz eta, begibistakoa denez, askoz ere gorroto gutxiagorekin azaleratu.

<sup>60</sup> Silvia Fernández Viguera, *Ibidem*, 5. or.

<sup>61</sup> Silvia Fernández Viguera, *Ibidem*, 3. or.

<sup>62</sup> Pedro Gómez Aparicio-ren *Historia del Periodismo Español. De la Dictadura a la Guerra Civil* (IV. Tomoa). Editora Nacional, Madrid 1981, 259. or. eta ondorengoak.

<sup>65</sup> Pedro Gómez Aparicio, *Ibidem*, 297. or. eta ondorengoak.

<sup>66</sup> Angel Pascual, *El inicio de la guerra civil en Navarra* idazlana, *La guerra civil en el País Vasco* obran. Manuel Tuñón de Lara-k zuzendua. Argitaratzaileak: Karmelo Garitaonandia eta Jose Luis de la Granja. UPV-EHU-ko Argitarapen-Zerbitzua, 1987.

<sup>67</sup> Ana María Calzada, *La prensa navarra a fines del Siglo XX*. Cuaderno de Trabajo nº 2, Universidad de Navarra, Instituto de Periodismo, Iruñea 1954. 60. or. eta ondorengoak.

<sup>68</sup> Ana María Calzada-k aipatua, *Ibidem*, 60. or.

<sup>69</sup> Egia esan, beste leku batzutan askoz ere okerragoa izan zen. Araban, porrot egin zuen Lizarrako Estatutuaren inguruko hautagaitza-proiektu bakarrak eta Espainiako Estatuko gainerako lurraldeetan, eskuindarrak banatuta joan ziren hauteskundera.

<sup>70</sup> Nafarroako EAjko Zuzendaritza-Kontseilua.

<sup>71</sup> Jose Luis Granja, *La prensa nacionalista vasca: 1930-37* idazlana, *La prensa de los Siglos XIX y XX* obran, M. Tuñón de Lara-k zuzenduta. Argitaldaria: Karmelo Garitaonandia, UPV-EHU-ko Argitarapen-Zerbitzua, Bilbo 1986, 666. eta 667. or.

<sup>72</sup> Jose Luis Granja, *Ibidem*, 667. or.

# 1989ko urriko hauteskundeen islada Hego Euskadiko egunkarietan

Txema Ramirez

## 1. Helburuak

### 1.1. Objektu zuzena

Iragan 1989ko urriaren 29an Hauteskunde Orokorrak -Madrilgo Gorteetan ordezkariak hautatzeko bozketa, hain zuzen Estatu osoan ospatu ziren. Ikerlan honen xedea, hauteskunde horiek Hego Euskal Herriko zazpi egunkarietan izan zuten islada ikertzea da.

Horretarako bi atal desberdin aztertu ditugu: aurrekanpaina eta kanpaina deiturikoak. Lehenengoa, 1989ko uztailaren 25ean hasi zen -hots, Felipe Gonzalez-ek Gobernuko presidentea hauteskundeen deialdia aurrera "zitekeela" publikoki adierazi zuen egunean eta urriaren 10ean bukatu- eta bigarrena berriz, 1989ko urriaren 11tik 28ra bitartean, izan zen hau da kanpainak

iraun zuen artean. Guztira 96 egun, beraz, bi fase oso desberdinetan banaturik (lehenengoa, 78 egunekoa eta bigarrena, berriz, 18koa).

Egun horietan, alderdi nahiz Gobernu desberdinei, egunkari bakoitzean egokitu zitzaien informazio-portzentaia aztertzea izan da gure helburua. Guzti hau, Jacques Kayser frantses ikertzaileak (beste batzuren artean) emandako metodologiari jarraiki eta hainbat grafiko erabiliz.

### **1.2. Landuriko unibertsoa**

Aipatu legez, egun horietan Hego Euskal Herrian argitaratzen ziren egunkari guztiak kontutan hartu ditugu, hau da, "Diario de Navarra" eta "Navarra hoy" nafartarrak, "El Diario Vasco" eta "Egin" gipuzkoarrak eta "Gaur Express", "Deia" eta "El correo español-El pueblo vasco" bizkaitarrak.

Autonomi Elkarteko egunkarien kasuan ikertu den edizioa Arabakoa izan da. Nafarroako kazetetan berriz, bertokoa. Guzti hau, parametro berberak erabiltzearen, noski.

Alderdi eta Gobernuai dagokienez, hauexek izan dira auke-ratutako kategoriak: PSE-PSOE, EAJ-PNV, HB, PP-UPN, EA, EE, CDS, IU, "Bestelakoak", Madril, Gasteiz eta Nafarroako Gobernuak. Beraz, egungo errealitate politikoari hertsiki egokitu gara, ikerlanak ahalik eta fideltasun nahiz praktikotasunik handienak izan ditzan.

Noizbehinka eta modu oso bereziaz antzeko azterketak argitaratu badira ere -beti partzialtasun nabariaz jantzirik- ez dugu uste inoiz honelako ikerketa-moetarik egin denik, ez behintzat lan honek garatzen dituen osotasun eta balioaniztasun-erizpidekin.

### **1.3. Hautaturiko parametroa**

Erizpide zehatzen ezarpena izan da hasiera hasieratik ikerlan honek izan duen buruhausterik garrantzizkoena, fidelta-

sun eta seriotasunean bait datza edozein lan zientifikoren auzia. Hurrengo atalean luzeago ihardun arren, esan dezagun, gure lanaren parametroa informazioen neurketa matematikoan -hots, zentimetro karratuetan- oinarritu dela.

Jakin badakigu, burutzen ari garen ikerlanerako ez dela erabil zitekeen aldagai bakarra, ezta gutxiagorik ere. Aitzitik, aldagai hau bait da esanguratsuenetariko bat, grafikoena izateaz gain. Aurrera dezagun ere, ikerlan honetan ez dela aparteko aurkikuntzarik kausituko, baina bai fenomeno bitxi eta adierazgarri franko.

## 2. Metodologiaren gauzapena

### 2.1. Jacques Kayser-en eredia

Ikerlan honen metodologia, neurri handi batetan, Jacques Kayser ikerlari frantziarrak emandako parametroetan oinarritzen da, eta bereziki ATE argitaldaria 1982an kaleratu zuen "El diario francés" izeneko liburuaren hirugarren edizioan. Aldeko eta kontrako eritziak jasan arren, Kayser-en lana -92an hogeitamar urte beteko ditu- ikertu nahi ditugun baloreak aztertzeko oso baliagarria gertatu zaigu, batez ere ikerketa morfologikoari dago-kionez.

Liburu hau, prentsa frantziarraren egiturari buruz ordurarte burutu zen ikerketa osoena izan zen, bai Parisko eta baita herrialdeetako egunkariei zegokienean ere. Bertan azaltzen den metodologia gaurregun eredu legez erabiltzen da Europako hainbat Kazetaritzako Fakultatetan. Gure ustez, bereziki aipagarriak dira egunkariaren morfologiari eta albisteen balorizazio-sistemari dagozkien atalak, bigarren honek kritika zorrotzak izan arren (gure eritiziz, kapitulu horri lepora liezaiokeen hutsunerik nabarmenena sakontasun-faltarena litzateke).

José Luis Martínez Albertos ikerlariak dioen legez, Kayser-en liburuak "eredu objektibo zehatz bati ezarri zaion lan-eskemaren

gauzapena" suposatzen du. Ikerlan horretan azaltzen den metodologia ez da edukin-ikerketari egokitutakoa, egunkarien azterketa morfologikoari baizik. "Kazetaritza-mezuen aurkezpenari dagokionez, -dio aipatu ikerlariak- liburu honek balio handiko aportazioa izaten jarraitzen du, ezbairik gabe".

## 2.2. Testuen neurketa

Ikerlan honen lehen kapituluan aurreratu lez, testuak neurtzeko erabilitako unitate matematikoa zentimetro karratua izan da. Jacques Kayser-ek **zutabeen** eredu erabiltzen du. Gure kasuan zentimetro karratuena argiagoa izateaz gainera, praktikoa dela iruditu zaigu (Hego Euskal Herriko egunkarien ezaugarriak kontutan hartu ondoren).

Hau honela, albiste baten neurketa honela gauzatuko litzateke: informazioaren A altuera (titularrak, argazkiak, errekoadro eta ertz bereziak barne) bider Z zabalera (inprimaturiko letra hasten den puntutik amaitzen den punturaino, hots zutabeen arteko espazio zuriaren erdiraino ulertua) = kopurua (zentimetro karratutan). Laburki esanda,  $A \times Z = K$  (cm<sup>2</sup>tan).

## 2.3. Laginketa

Azterturiko atala 98 egunetakoa izanik (1989ko uztailearen 25etik urriaren 30era bitartekoa), ikerketa ezin zen egunkari guztien azterketan oinarritu. Beraz, laginketa bat egitera behartuta geunden. Kayser-en aholkuak jarraituz, aurrekanpainaren 78 egunetatik (uztailearen 25etik urriaren 10erarte) zazpi ale aukeratu ditugu, hamaika egunekoetatik bat, hain zuzen. Erizpide hori aplikatuz, honelaxe gelditu zen hautaketa: uztailearen 26a, abuztuaren 6a, 17a eta 28a, eta irailaren 8a, 19a eta 30a.

Kanpainari dagokionez, 18 ziren aztertzeko genituen egunak. Kasu honetan erizpide propio bat ezarri genuen Kayser-en aholkuei amore eman gabe, ezen teknika hori ezarriko bagenu, lagina (egun gutxikoa izanik) hutsal bihurtuko litzateke eta.

Erizpide bakarra hauxe izan zen: alderdi guztien ekitaldi zentralak edota garrantzitsuenak isladatuko zituzten egunak hartzea. Hori horrela, bost egun izan ziren hautatuak: urriaren 10a, 16a, 19a, 23a eta 28a. Urriaren 10a eta 28a, kanpainaren hasiera eta amaierako egunak zirelako (gainera PNVren mitin zentrala Bilbon ospatu zen urriaren 27an). Urriaren 16a, aurreko egunean (urriak 15, igandea) PSOE eta EAren mitin zentralak (Bilbon eta Etxarri Aranatzen) eta PNVren ekitaldiak (Iurreta, Donostia eta Lesakan) izan zirelako. Urriaren 23a (astelehena), aurreko egunean HBren mitin zentrala (Anoetan), PNVren ekitaldi nagusia Araban eta Gipuzkoako EEren mitin nagusia suertatu zirelako. Azkenik urriaren 19ko hautaketa, kanpainaren azkenengo "txanpa"ren egun adierazgarria gerta zitekeelako.

Beraz, laginketak Kayser-en aholkuak eta kanpaina beraren berezitasunak kontutan hartu izan ditu, beti ere gure helburua, ikerlanaren fidagarritasuna eta zehaztasuna izan direlarik.

#### **2.4. Metodologiaren zailtasunak**

Erizpide orokor gisa, aurrera dezagun, atal honetan ikertu ditugun informazioak ez direla, egunkariko guztiak, hauteskondeekin lotura zuzenak zituztenak baizik. Aurrekanpainan gaudenez, aztertu ditugun albisteak alderdiek hauteskunde-egunari begira burutu zituzten bilerak, prentsaurrekoak, propaganda-saioak eta beste mota batzutako ekitaldiak izan dira. Gobernuen kasuan, kasuistika askoz zabalagoa izan da. Gauza jakina da, hauteskondeen atarian, Gobernuen iharduera izugarri ugaltzen dela. Hainbat hilabetetan "ahantzirik" zeuden proiektuak "bizkortasun" ezezaguna dela medio, gauzatzen hasten dira, obra haundien izapide burokratikoak, "mirakuluzki" arindu egiten dira; hots, administrazioak garai horretan burutzen dituen ekintza asko (gehienak ez badira) hauteskondeei begira pentsatu eta proiektatzen dira. Iharduera frenetiko hori hauteskundeetako emaitzetan isladatzen dela, ez dago dudarik. Horrexegatik, beraz, Gobernuen zegozkien informazioak ere zenbatu egin ditugu. Hala ere, ez ditugu kontutan hartu Foru-Diputazioek edo Udalek



eragindako informazioak, ikerketa horrek gure helburua izugarri zailduko bait zukeen.

Goian aipatu bezala, gure ikerketa hauteskundeei buruz agertzen ziren albisteetara murriztu da, baina zein sekzioetan? Data horietako egunkarietara gainbegirada azkar bat bota ondoren, zera dakigu: gure azterketa, lehen orrialde, Euskadi, Estatu eta azken orduko albisteak izeneko sekzioetara mugatu behar dela, hauteskundeetako albisteak sail horietan azaldu bait ziren. Erizpide hauek ez dute metodologi arazorik sortzen "Deia", "Egin" eta "Gaur express" egunkarietan. "El Correo"ren kasuan Euskadiko informazioak "Regional" deituriko sekzioan agertzen dira. Nafarroako egunkariekin arazo franko izan dugu. "Diario de Navarra"ri dagokionez, hartutako erabakia haxe izan da: lehen orrialdea, "Nacional", "Ultimas noticias" eta "Navarra" izeneko sekzioak ikertzea. Hala ere, ez dugu "Navarra"ren sekziopean agertzen zen informazio guztia arakatu -kutsu arras lokalista bait zuen- hauteskundeei buruz azaltzen zena, bakarrik baizik. Erizpide honek Nafarroako Gobernuari egokitzen zaion informazio-kopuruaren deformazioa ekarri digu, baina ezinbestekoa gertatu zaigu erabaki hori hartzea, metodologiaren oreka mantendu nahi bagenuen bederen.

"Navarra Hoy"ren kasuan ikerketa ez da hain zaila gertatu. Kasu honetan, azterturiko sekzioak hauexek izan dira: lehen orrialdea, "Navarra" (soil soilik, eta ez "Navarra-pueblos", arrazoi berberetatik) "Comunidad Autónoma Vasca" eta "Cierre" izenekoak.

Ikerlan honetatik at gelditu dira eritzi-orrialdeak, horien azterketak beste ikerlan desberdin bat exijituko bait liguke.

Komeni da azpimarratzea ere, ikertu ditugun informazioetako albisteak, Gobernu eta alderdiak protagonistak zirenekoak bakar bakarrik izan direla; hots, hauek albisteen subjektu aktiboak zirenean. Beraz, alderdiak eta Gobernuak subjektu jasanakorak zirenean (adibidez "Denuncian al Gobierno vasco por falta de voluntad negociadora" edo "Diferencias internas en el PP...") ez ditugu kontutan hartu.

Albiste baten subjektu aktiboa alderdi bat baino gehiago zenean (adibidez, "EA, PNV eta EE bat datoz autobiarene defentsan") partidu bakoitzari ezartzen zaion espazioa neurtu izan da.

Bestalde, alderdi, nahiz Gobernuen inguruan bizi diren erakunde edo partiduen dinamikarekin zerikusirik duten hainbat elkartek (Fundación Sabino Arana, "Cuadernos de Alzate", "Amnistiaren Aldeko Batzordeak", eta abar) eragin dituzten informazioak ez ditugu kontutan hartu arrazoi ugari direla medio, baina batez ere ondoko hauengatik: gatazka askoren iturri izan zitekeelako, interpretazio zailak exijitzen zituelako eta sarritan erizpide zehatzen falta nabarmena zelako.

Askotan, sekzioaren izenburuaz aparte, hauteskunderen informazioak egunkariaren beste albisteetatik desberdintzeko, "Elecciones generales del 29-0" edo "U29 hauteskundeak" deituraz zuten titulu bereziak erabiltzen dira. Titulu horren espazioa bere azpian kokatzen den informazio garrantzitsuenari egokitu zaio beti.

Azkenik esan, alderdien gazte-erakunderen informazioak (Juventudes Socialistas, EGI, JARRAI, Nuevas generaciones, Gazte Abertzaleak, eta abar) beraien partiduei egokitu dizkiegula, ez bait da inolako metodologi arazoren sorburu izan.

Ondoren agertuko diren grafiko eta fitxek egunkari bakoitzak alderdi eta gobernuei ezarri zien azalera-kopurua eta informazio portzentaia isladatzen dute, besteak beste.

Amaitzeko, hona hemen alderdi bakoitzak hauteskunde hauek ospatu aurretik zeukan portzentaia (1989-VI-15 hasikinetatik atereak): PSOEk % 20, HBk % 17,9, PNVk % 17, EAK % 11,6, PP-UPNk % 11,2, EEk % 8,6, IUk % 3,5, CDSk %3,2 eta "Bestelakoak" % 6,9a.

Konparaketak egiteko orduan, portzentaia hauekin zuhur jokatzeari aholkatzen dugu, gure tauletan alderdien indizeez gainera, Gobernuenak ere sartzen bait dira.

Ez ditugu 1986-VI-22ko hauteskunde orokorretako emaitzak erabili, garai hartan EA alderdia ez bait zen artean esistitzen. Beraz, indize hauek balore orientatzailea besterik ez dute.

### 3. Kanpainaren ingurune sozio-politiko

Hauteskunde-kanpainetan buruzagi politikoen artean suertatzen den ohizko tentsio sozio-politiko, aztertzen ari garen kasuan, "disparatu" egin zen. Beste gertaeren garrantzia ahaztu gabe noski, kanpainak, batez ere, azkeneko hamabost egunetan, markatu zuen jazoerarik nabarmenena ENAM (Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua) deituriko sektorea neutralizatzeko "Euskadi normaltzeko eta pakeratzeko hitzarmena" delakoaren hirugarren atalaren (izuekintzei aurre egiteko "era guztietako politika eta gizarte-mailako ekintzak" burutzea proposatzen duena) aplikazio intentsiboa izan zen. Aipatu hitzarmen hori sinatu zuten alderdiak bat etorri ziren erasoaldi horretan, ordurarte ezagutzen ez ziren eraso dialektikoak ("buru biko basapitzia"ren irudia, esaterako) jaurtikiz.

Kanpainan eta aurrekanpainan bestalde, baziren mezubide edo mass-mediaren aditasuna berenganatu zuten jazoerak; esaterako, Ekialdeko herrietan gertatzen ari ziren etengabeko aldetak eta tentsioak, Sobietar Batasunean berpizten ari ziren errei-bindikazio nazionalistak eta Gobernu zentralak hartu behar omen zituen neurri ekonomikoak. Guzti hori, Felipe Gonzalez-en Gobernuak, ekaineko hauteskundeetako emaitzak ezagutu ondoren, bizi zuen eufori giroa ahantzi gabe.

### 4. Koadro orokorra

Ondoren agertzen den koadroa, 1989ko urriaren 29an ospatu ziren hauteskunde orokorrek Hego Euskadiko prentsan izan zuten islada, modu fidelenean ilustratzen dutenak dira. Horretarako, matematikaren legeei jarraituz, azaldutako metodologia aplikatu eta bidean sortutako arazoak konpondu behar izan dira.

"Koadro orokorra" osatzeko hautatu izan den prozedura, haxe izan da. Lehendabizi, aurrekanpainan eta kanpainan izandako emaitzak batu eta ondoren, egunkari bakoitzak duen irakurlegoaren arabera ponderatu. Irakurlegoari dagokionez, Hego Euskadin, egunkari batetik bestera dauden diferentziak

oso nabarmenak dira. Hots, ez da gauza bera alderdi batek informazioaren % 20a El Correo-n edo Gaur Express-en izatea, lehen egunkaria egunero 400.000 irakurleen eskuetatik pasatzen bait da eta bigarrena, aldiz 5.000 pertsonetara ozta-ozta ailegutzen. Guzti hori zuzentzeko eta behar bezala interpretatua izan dadin, ezinbestekoa zen eragiketa hau egitea.

Hauexek ziren ikerketa burutua izan zeneko irakurlegoari buruzko datuak (EGM, Estudio General de Medios delakoak 1989ko abenduan argitara emanikoak):


|                         |         |          |          |
|-------------------------|---------|----------|----------|
| - El Correok.....       | 431.000 | irakurle | (% 39,2) |
| - El Diario Vascok..... | 286.000 | "        | (% 26)   |
| - Diario de Navarrak.   | 146.000 | "        | (% 13,2) |
| - Eginek.....           | 133.000 | "        | (% 12,1) |
| - Deiak.....            | 89.000  | "        | (% 8,1)  |

Gaur Express eta Navarra Hoy egunkariez ez zegoen datu ofizialik. Haatik, eta hainbat iturritara jo ondoren, bi egunkari hauen audientziak 1989ko urrian hauexek ziren, gutxi gorabehera.

|                       |        |          |         |
|-----------------------|--------|----------|---------|
| - Navarra Hoyk.....   | 10.000 | irakurle | (% 0,9) |
| - Gaur Expressek..... | 5.000  | "        | (% 0,4) |

### HEGO EUSKADIKO PRENTSA Aurrekanpainaren eta kanpainaren ikerketa

#### Gobernu eta alderdiak



## 4.1. Koadro orokorraren irazkina

### 4.1.1. Estatu-mailako alderdien nagusitasuna

Esandakoak esan, lehendabizi, Estatu mailako alderdi garrantzitsuenak (PSOEk eta PP-UPNk batez ere) duten gainbalorazioa azpimarratu behar da.

PSOeren kasuan gainera, Madril, Nafarroa eta Gasteizko Gobernuetara eskaintzen zaien informazio-kopurutik parte handi bat alderdi honi leporatu beharko genioke, lehenengo bietan bakarrean Gobernatzen duelako eta hirugarrenean, PNVrekin batera. Beraz, PSOeri egokitzen zaion % 16,74a eta azken hauteskundeetan lortu zuen % 20a ere, guztiz gaiturik gelditzen direla esan dezakegu (Gobernuen indizeetatik berari dagozkion ardurak kontutan hartuz gero).

PP-UPNren balorearen gainbalorazioa ere begibistakoa da. Partidu honek azken hauteskundeetan lorturiko bostgarren tokia ez dator bat sailkapen honetan okupatzen duen bigarren posizioarekin. Gutxienez 3,5 puntutako gainbalorazioa duela aipa dezakegu.

CDSren balorazioa ere zertxobait gainbaloratuta azaltzen zaigu, aipatu hauteskundeekin konparatuz gero.

Logika hau hausten duen kasu bakarra IUrena da, alderdi honi egokitzen zaion portzentaia, europarretan lortu zuena baino ia puntu bat gutxiagokoa izan bait da. Kontutan izan behar dugu, hala ere, aipatu ditugun alderdietatik hauxe dela espektro politikoan "ezkertiarrena", eta faktore honek irakurlegorik gehien duten egunkarien filosofia kontserbadorearekin talka egiten duela.

### 4.1.2. Alderdi abertzaleen baloreak

Hego Euskadiko mezubide idatziek lau alderdi abertzaleekin izan dituzten jarrerak ez dira berdinak izan. Alde batetik PNV eta EErenak leudeke, eta, bestetik HB eta EArenek.

PNVren balorea % 12,17koa izan arren -komizio europarretan % 17a eskuratu zuen- bere indizea azpibalaratua izan dela ezin da aipatu. Portzentaia honi, Gasteizko Jaurilaritzatik atera duen errentagarritasuna gaineratu beharko bait genioke. % 10,36 horretatik PNVri zenbat dagokion jakitea ezinezkoa da, baina gure ustez erdia baino gehiago.

EEren kasua PNVrenarekin batera aztertuko genuke. Puntu bateko galera izan arren, kontutan hartu behar dugu kanpainan zehar alderdi honekiko proiektatu zen irudia ez zela batere txarra izan; hots, beste alderdiek (salbuespenak salbu) ez zutela partidu hau beren kritiken helburu izan.

HBrekin ez zen gauza bera gertatu. Bere portzentaia eta ordezkari-tza errealaren artean, 6,7 puntutako galera (guztietatik handiena) izateaz gainera, ezin da ahaztu, bai mezubide gehienetan eta baita beste partiduen aldetik ere, alderdi honekiko proiektatu zen irudia, oso txarra izan zela ("Euskadi pakeratzeko eta normaltzeko hitzarmena"ren aplikazioaren ondorioz). Baina arlo hau hurrengo atalean zabalago jorratuko dugu.

Azkenik, EAren balorea dugu (% 8,5a). Darabiltzagun parametroen arabera alderdi honek jasandako galera 3,1 puntutakoa izan da. Honen arrazoi posibleak ere, hurrengo atalean landuko ditugu.

## 5. Alderdien tratamendua


Hona hemen ikerturiko atalean (aurrekanpainako eta kanpainako datuak batuta) PSE-PSOE, PNV, HB, EA, PP-UPN eta EE alderdiek jasan zuten tratamendua isladatzen duten grafikoa.

Kasu honetan, lehenengo baloreak alderdi bakoitzaren batezbesteko indizea adierazten digu. Portzentaia hau ez da egunkari bakoitzak duen irakurle goaren arabera ponderatu. Horretan dautzate koadro orokorrarekiko somatzen diren des-

berdintasunak. Haatik, ikusi eta frogatu nahi dena hobeki somatzeko, azalpen modu honi zehatz eta interesgarriagoa dela deritzogu.

### PSOE-REKIKO TRATAMENDU INFORMATIBOA Aurrek. gehi kanpainaren ikerketa


Portzentaiak



1. BATEZBESTEKO NEURRIA - 2. EGIN - 3. GAUR EXPRESS - 4. DEIA - 5. EL CORREO ESPAÑOL - EL PUEBLO VASCO - 6. EL DIARIO VASCO - 7. DIARIO DE NAVARRA - 8. NAVARRA HOY

### PNV-REKIKO TRATAMENDU INFORMATIBOA Aurrek. gehi kanpainaren ikerketa


Portzentaiak



1. BATEZBESTEKO NEURRIA - 2. EGIN - 3. GAUR EXPRESS - 4. DEIA - 5. EL CORREO ESPAÑOL - EL PUEBLO VASCO - 6. EL DIARIO VASCO - 7. DIARIO DE NAVARRA - 8. NAVARRA HOY

### HB-REKIKO TRATAMENDU INFORMATIBOA Aurrek. gehi kanpainaren ikerketa


Portzentaiak



1. BATEZBESTEKO NEURRIA - 2. EGIN - 3. GAUR EXPRESS - 4. DEIA - 5. EL CORREO ESPAÑOL - EL PUEBLO VASCO - 6. EL DIARIO VASCO - 7. DIARIO DE NAVARRA - 8. NAVARRA HOY

### PP-UPN-REKIKO TRATAMENDU INFORMATIBOA Aurrek. gehi kanpainaren ikerketa

Portzentaiak




1. BATEZBESTEKO NEURRIA - 2. EGIN - 3. GAUR EXPRESS - 4. DEIA - 5. EL CORREO ESPAÑOL - EL PUEBLO VASCO - 6. EL DIARIO VASCO - 7. DIARIO DE NAVARRA - 8. NAVARRA HOY



**EA-REKIKO TRATAMENDU INFORMATIBOA**  
Aurrek. gehi kanpainaren ikerketa


Portzentaiak



1. BATEZBESTEKO NEURRIA - 2. EGIN - 3. GAUR EXPRESS - 4. DEIA - 5. EL CORREO ESPAÑOL - EL PUEBLO VASCO - 6. EL DIARIO VASCO - 7. DIARIO DE NAVARRA - 8. NAVARRA HOY

**EE-REKIKO TRATAMENDU INFORMATIBOA**  
Aurrek. gehi kanpainaren ikerketa

Portzentaiak



1. BATEZBESTEKO NEURRIA - 2. EGIN - 3. GAUR EXPRESS - 4. DEIA - 5. EL CORREO ESPAÑOL - EL PUEBLO VASCO - 6. EL DIARIO VASCO - 7. DIARIO DE NAVARRA - 8. NAVARRA HOY

## 6. Konklusioak

### 6.1. Hiru multzoen teoria

Ikerlan osoan zehar erakutsi ditugun fitxa, koadro eta grafikoetan argiro agertu zaigu hiru multzoen teoria deitu dugun jokabidea.


Teoria honen arabera, Hego Euskal Herrian hiru egunkari-mota daude: abertzaleak -Deia, Egin eta Gaur Express (azkenengo hau desagertua jadanik)- El Correo eta El Diario Vasco kazetek osatzen duten talde enpresariala eta Nafarroakoak (Diario de Navarra eta Navarra Hoy). Hiru multzo hauen portacra eta joerak guztiz desberdinak dira, talde bakoitzaren barruan ere sarritan gorabehera eta diferentzia franko agertu arren. Lehen multzokoek partidu abertzale desberdin baten garrantzia gorai-patzeko aiherra duten bitartean, bigarrenekoek Estatu mailako alderdiei ematen diete lehentasuna, hirugarrenekoek PP-UPNren papera destakatzen dutelarik.

Baina, esan bezala, multzo bakoitzaren barruan gorabehera asko daude, beste kapituluetakoa konklusioetan ikusi ahal izan dugunez.

### 6.2. Gizartearen eta prentsaren arteko haustura

Euskal Herrian prentsaren eta gizartearen artean somatzen den haustura, hainbat soziologo eta ikerlarik azpimarratu duten fenomeno da. Hots, ez da gehiegi ulertzen nola Euskal Herriaren biztanlegoaren gchiengoa abertzalea izanik -edo behintzat, alderdi abertzaleei botoa ematen diona- irakurlego gehien duten egunkariak kazeta kontserbadore ez-abertzaleak izatea.

**MEDIOEN KONTZENTRAZIOA (Difus. arabera)  
88ko datuak (OJdk 89ko abend. argitara.)**



Guzti honekin erlazionatuta dago, dudarik gabe, mezubideen sektorean dagoen kontzentrazioa, ezen, grafiko honetan azaltzen denez, enpresa berekoak diren El Correo eta El Diario Vasco egunkariak zabalkundearen % 58a bereganatzen bait dute. Portzentaia honi Diario de Navarra eta Navarra Hoy egunkariaren difusioa gehituko bagenio, kopurua % 73,7an kokatuko litzaiguke. Beraz, herritar gehiengoaren nahi eta pentsamolde abertzaleak euskal prentsan ez dira isladatzen, ezen biztanle-goaren gehiengoak abertzaletasunera jo arren, kazeta kontserbadore ez-abertzaleen lidergoa eztaba daezina bait da.

Koadro orokorrean agetutako zifrek, gauza bera erakusten digute. Estatu mailako partiduen (PSE-PSOE, PP-UPN, IU eta DCS) azalaren batuketa (% 48,5), alderdi abertzaleen (PNV, HB, EA eta EE) kopurua baino askoz handiagoa da (% 39,45), hauteskunde guztietan jasotzen diren emaitzek bestelako errealitatea erakutsi arren. Hauteskunde europarretan, adibidez, partidu abertzaleek botoen % 55,1a jaso zuten eta Estatu mailakoek % 37,9a. Beraz, prentsa eta gizartearen arteko haustura, nabarmena dela esan dezakegu.

Fenomeno honen ondorio zuzena zera da: PSOE eta PP-UPNk mantentzen duten lidergoa. Kasuistika hau azaltzeko, hainbat arrazoi leudeke. Horren ikerketak beste azterlan bat exijituko liguke. Batek baino gehiagok, irakurlea edozein egunkari

erosteko aske dela pentsa dezake. Haatik, baieztapen hau oso eztabaidagarria izan daiteke, hainbat pentsalari eta ikerlarik demostratu duen legez (Adorno tarteko), industria kulturalaren kontsumatzailea, mezu bat edo beste hautatzerakoan, bere buruaren jabe ez delako. Hauteskunde-garaietan are gutxiago, esan-go genuke. Gure ustez beraz, ikertzen ari garen fenomenoazaltzeko, bi arrazoi nagusi dira aipagarrienak: mezubideen kontzentrazioa eta egunkari abertzaleen bereizketa.

### 6.3. Euskal egunkariak eta Ajuria-Eneko hitzarmena

Gertaera berdinarean aurrean, mezubide guztiek ez dute jarraera berbera hartzen. Esan bezala, sistema politikoaren eta mass-mediaren artean suertatzen diren harremanak, eskuarki, ez dira norabide bakarrekoak izaten, mezubideek errealtatearen ekoizlekiekin papera berenganatzen dutelako, hain zuzen ere.

Hauteskundearen giroa azaltzerakoan, 1988ko urtarrilaren 12an Ajuria-Enean sinaturiko "Euskadi normaltzeko eta pakebidetzeko hitzarmena"ren garrantzia azpimarratu genuen. Hitzarmen horren edukina eta filosofia aurrekanpainan eta kanpainan zehar argiro gauzatu zen. Paktuaren sinatzaileek, hamalagarren artikuluan kazetariei luzatzen zieten deialdiak - "gure gizartea pakeratzeko bidean lan handia" egin dezaten-euskal mezubideetan oihartzun zabala izan zuen. Buruzagi guztiak bat etorri ziren HB eta ETaren aurkako erasoaldian, mezubide eta kazetarien ezinbesteko laguntzarekin.

Politikarien esanetan, HB "kaosa, hondamena, burubiko basapiztia eta Euskadik duen etsairik handiena" zen.

Horrez gainera, ETA eta HBren arteko identifikazioa nabarmenki azpimarratu zen, "El País" egunkariko biñetan (1989ko azaroaren 21ean).

Giro horren barruan sar genitzake halaber, urriaren 9an (kanpaina ofizialki hasi baino egun bat lehenago) hasi zen Hipercorceko epaiketa eta Komando Autonomoek burutu asmo omen zuten ekintza armatua bezalako gertaerak eta komunikabideek horiei buruz egin zituzten irakurketak eta irazkinak ere.

Paktuaren sinatzaileentzat, honelako argudioei behin eta berriz ekitea ez zen alferrikakoa, hauteskunde europarretan taktika berbera saiatu eta, beraien ustez, horren ondorioz, HBk 35.125 boto galdu bait zituen. Beraz, ekinaldi hori guztiz "justifikaturik" zegoen.

### 6.3.1. "Unibertso heretiko"en hondamena

Peter Berger eta Thomas Luckmann ikerlariek ongi asko aztertu dute botere burgesak talde heretikoekin erabili behar duten biolentzia eta bere legitimizazio prozesua.

Honela mintzatzen dira "La construcción social de la realidad" deritzon obran:

*"La legitimación del orden institucional también se ve ante la necesidad continua de poner una valla al caos, **toda** la realidad social es precaria; **todas** las sociedades son construcciones que enfrentan el caos. La constante posibilidad de terror anómico se actualiza cada vez que las legitimaciones que oscurecen la precariedad están amenazadas o se desploman. El temor que acompaña a la muerte de un rey, especialmente si acaece por violencia repentina, expresa este terror. Por encima y más allá de las emociones de pesar o de las preocupaciones políticas programáticas, la muerte de un rey en tales circunstancias trae el terror del caos a una cercanía consciente. La reacción popular ante el asesinato de Kennedy es un ejemplo poderoso. Puede comprenderse fácilmente por qué a los acontecimientos de esta índole, tienen que sucederles inmediatamente las más solemnes reafirmaciones sobre la realidad continuada de los símbolos protectores". (134 or.)* (Xazpimarrak egileenak dira).

Biolentzia instituzionalaren legitimizazioaren mekanismoaz argiro hitzegiten dute:

*"Los procedimientos represivos que suelen ser empleados contra tales grupos por los custodios de las definiciones 'oficiales' de la realidad no tienen por qué preocuparnos.*

*Lo que importa para nuestras consideraciones es la necesidad de que dicha represión se legitime, lo que, por supuesto, implica la puesta en marcha de diversos mecanismos conceptuales destinados a mantener el universo 'oficial' contra el desafío herético. (...) La aparición de un universo simbólico a modo de alternativo constituye una amenaza porque su misma existencia demuestra empíricamente que nuestro propio universo es menos que inevitable.*

*(...) El propio enfrentamiento de universos simbólicos alternativos implica un problema de poder. (...) la cuestión de cual de los dos prevalecerá más del poder, que de la habilidad teórica de los legitimadores respectivos. (...) El resultado histórico de cada lucha de dioses lo decidían los que blandían las mejores armas, más que los que poseían los mejores argumentos. (...) El que tiene el palo más grande, tiene mayores posibilidades de imponer sus definiciones de la realidad". (137 or.)*

Lerroaldi hauek irakurri ondoren, argi dago batzuen zein besteen paperak zeintzuk diren. Beraz, "definizio ofizialen zaindari"ek (paktukoek), "desafio heretiko"aren aurrean (ENAM) beren "unibertso ofiziala"ren osotasuna (Konstituzioak eta Autonomi Estatutuak ezartzen duten marko juridikoa) defendatzeko erabili behar dituzten mekanismo errepresiboak ez dira "kontutan hartzekoak" edo "ardura sortzeko motiboak", azken batean bi unibertso horien arteko lehiaren amaiera ez bait da "ideien baliagarritasun edo ontasunean" sustraituko, "egurraren dimentsioetan", baizik.

"Status quo"aren defendatzaileek HB eta ETArekin berenganatu zuten beste jarrera bat ulertzeko ("el submundo de HB" delakoaren teorizazioa), Berger eta Luckmann-en beste aipamen interesgarri bat gogora ekarri dugu:

*"La amenaza a las definiciones sociales de la realidad, se neutraliza adjudicando un status ontológico inferior, y por lo tanto un status cognoscitivo carente de seriedad a*

*todas las definiciones que existan fuera del universo simbólico”.*

*(...) El mismo procedimiento conceptual puede ciertamente aplicarse también a los desviados de la sociedad. Ya sea que luego se proceda de la aniquilación a la terapia, o que, más bien, se liquide físicamente lo que ya se ha liquidado conceptualmente. Eso es cuestión de política práctica”.*

*“(...) No obstante, a veces las circunstancias desgraciadamente obligan a seguir en términos amistosos con los bárbaros”.*

*“(...) La meta final de este procedimiento consiste en **incorporar** las concepciones desviadas dentro del universo propio y así liquidarlas definitivamente. Por tanto, debe **traducírselas** a conceptos derivados del universo propio”. (147-148 or.) (azpimarrak egileenak dira).*

Beraz, eta laburbilduz, unibertso ofizialaren zaindarien duten helburua, unibertso heretikoaren desagertzea edo hondamena litzateke. Desagertzea hori traumatikoa izan daiteke (suntsipen fisikoa) ala integrazioaren bitartez (joko demokratikoaren onepena).

Hau honela, alderdi politikoek prentsan izan zuten islada unibertso ofizial horrekiko hartu zuten jarreraren arabera gautzen da.

Horrela uler daiteke, HBren azpibalazio nabarmena, EAren minusbalazio moderatua (Ajuria-Eneko hitzarmenarekiko erakutsi zituen duda-mudek eraginda) PNV eta EEren tratamendu egokitua eta PSOE eta PP-UPN alderdien gainbalazioa.

*Tx.R.*

# **Euskal Hizkuntz ideiak XVI. mendean: Zaldibia, Garibai, Poza**

**Jose Ramon Zubiaur**

Aurtengo otsailean bertan, 1990ean, irakurri dugu Deustuko Unibertsitatean, Donostiako G.U.I.T.-E.U.T.G. izeneko bere egoitzan, gure tesi doktora, bere gaia artikulu honen izenburuan isladatu dugularik. Bere ideia nagusiak laburbiltzen saiatuko gara ondoren, kapitulu eta atalen zenbakuntza jarraituz. Tesia bera G.U.I.T.en CUADERNOS MUNDAIZ delakoan laster publikatuko dela uste dugu.

## **0. Aurkezpena**

Bertan, gure lanaren helburuak eta motibazio orokorra aipatuko ditugu.

Euskal kulturaz eta, bereziki, hizkuntz gaietaz interesaturik, Unibertsitatean ikasle ginen garaitik bertatik sumatu genuen halako konplexu bat gure hizkuntzaren jatorri eta ezaugarriei buruzko ideia okerren eta jadanik mitiko bihurtuen setakeriaz. Hauxe izan da, eskuarki, tesi doktoralaren gaitzat Euskal Ideia Lingüistikoaren Historia aukeratzera bultzatu gaituen motibazioa.



Hasiera batean, gai honen historia osoa burutzea pentsatu genuen, baina gaiari sakonago heltzeko hau eta hura irakurri ahala, historia kronologikoki murriztuz joan zitzaigun, harik eta XVI. mendera soilik mugatu arte eta, bereziki, tituluan bertan aipatzen ditugun hiru autoreen ingurura: Zaldibia, Garibai eta Poza lizentziatuarenera.

### **0.1. Linguistikaren historiaz**

Gure lan honekin, pentsatzekoa den bezala, Euskal Linguistikaren Historia ekarpenez aberastu nahi izan dugu, berau lengoia eta hizkuntzei eta, bereziki, euskarari buruzko euskal ideien disziplina zientifiko eta azterketa sistematiko eta jarraitua ulertzen dugularik.

Disziplina honetako historilaria den R.H. Robins ingelesak, bere obran aditzera ematen digu, nola, era honetako estudioak kultura askotan, berak deitzen duen espekulazio dogmatikoa edo "herri-linguistika" izan duen aurrekari<sup>1</sup>. Ideia hau eta "Beren herriaz idazten duten lehen euskaldunak"<sup>2</sup> XVI. mendean sortzearen fenomenoak -jadanik Tovar-ek azpimarratua- elkar-turik, sumatu uste dugu, agian mende honetan eta hiru autore hauen baitan hasten dela lengoaiari buruzko euskal herritar espekulazioaren bilakaera euskal zientzia linguistikoratz, hau hastapenetan nahikoa ahula izan bazitekeen ere.

### **0.2. Euskal ideia linguistikoak**

"Ideia linguistikotzat" kontsideratzen ditugu aztertu ditugun autoreen obra inprimatuek jasotzen dituzten bai gogoeta eta eritzi teorikoak eta baita datu eta aspektu filologikoak, testu-bilketak, etimologiak etab. ere. Filologikoa eta linguistikoa antzinatean gaur baino nahastuagoak egon badira, hau areago eman da euskal filologia eta linguistikaren kasuan. TEXTOS ARCAICOS VASCOS obraren autorea den Koldo Mitxelena, Garibairen obraren jakitun bikaina berau, ezinbestekotzat jotzen zuen filologiaz guri oharpen hau eskatzea, berak bere aldetik FONETICA HISTORI-

CA VASCA liburuan jator asko mamitzen duen oharpena hain zuzen ere.

Eta "EUSKAL ideia linguistikotzat" kontsideratzen dugu euskal autoreek adierazi dutelako, nahiz gure hizkuntzari nahiz beste batzuei buruz edota lengoaiaz orokorki ari. Guk, halere, bagenuen susmoa Euskara izango zela gure tesiaren gai nagusia. Eta ez bakarrik Poza lizentziatuarekiko, baizik eta baita bide batez aztertu ahal izateko ere, ea badagoen gure autoreen ekarpenik linguistika orokorrean eta -balego- nolako erlazioa luketen gure hizkuntzaren ezaugarriekin. Azken bolada honetan dexente idatzi da hizkuntza propioa edukitzeak hizkuntzalarien teorien orientazioan izan duen eraginaz.

### 0.3. Euskal linguistika linguistika orokorretik

Euskal literatura estudiatzeko K. Mitxelenak zuen ereduari jarraiki, hots: "nazioarteko neurriak erabiliz"<sup>3</sup> XVI. mendeko gure autoreak estudiatu eta baloratzeko, Linguistikaren Historiaren eremuan indarrean dauden kriterioez baliatu gara.

Honela bada, guztiz beharrezkotzat jo dugu lanaren 1. kapitulua -ondoren laburbilduko duguna- Pizkundeko ideia linguistikoen azterketari dedikatzea, XVI. mendekoei alegia.

Aurkezpeneko beste azpiataleai buruz -0.4tik 0.6ra- aipatu autoreen estudiorako baliatu ditugun joera orokorrak aurreratzea besterik ez dugu egiten berorietan, artikulua honetan hurrenez hurren atal bakoitzean laburtuko duguna bestalde.

## 1. Kapituluua. Pizkundeko ideia linguistikoak (XVI. m.)

Kapitulu honen ideia nagusia garaiko ideia linguistikoak estudiatzea da, honela gure "linguistak" mende horretako linguistikaren errepresentatzaile zein neurritan kontsidera ditzakegun aztertu ahal izateko, edota zein neurritan apartatzen diren aipatu linguistikatik, kasua hau balitz.

### 1.1 Ideia linguistikoak XVI. mendeko Europan

Pizkundearen aro zentrala izan zen XVI. mendeak, dirudie-  
nez, funtsezko paper bikoitza jokatu zuen kontinente zaharreko  
ideia linguistikoen garapenean:

a) Erdi Aroko tradizio linguistiko eta filologiko biblikoaren  
jarraipenarena.

b) Bide batez, halako linguistika orokor eta konparatu bat  
sortzearena, biek, azterketa linguistikoaren horizontea za-  
baltzean, gramatikaren deskribapen greko-latindarraren loturak  
progresiboki hausteari ekin ziotelarik.

Ikus dezagun zehatzago:

a) *Erdi Aroko tradizio linguistiko biblikoaren jarraipen beza-  
la*, Pizkundeko linguistikak hurrengo gaiak garatu zituen:

- Hizkuntza guztien monogenesia hizkuntza sakratu eta per-  
fektua zen hebraieraren baitan aurkitzea.

- Hizkuntzen ugaritasuna esplikatzekeo Babelgo haustura, be-  
rau berriro onerako biderik gabeko Jainkoaren zigorra izanik.

- Galdurik zatekeen lehen hizkuntzarekiko nostalgia, hemen-  
dik segitzen delarik haurren hizkuntzaz zuten interes berezia,  
hizkuntza naturala edo lehen hizkuntza zein zatekeen arazoaz  
mitoak berpiztuz, hala nola Sametikoarena<sup>4</sup>, etab.

Nostalgia honen ondorio zen, hain zuzen ere, garai hartan  
etimologiaren munduari eman zioten garrantzia, etimologia  
lehen hizkuntzarekin topo egiteko bidea izan zitekeela uste bait  
zuten, hizkuntza endekatu postbabeliko dibertsoen baitan  
kontserbaturiko haren elementuak aurkituz alegia.

Bestalde, etimologia zen lehen aipaturiko Pizkundearen  
aztertzaileetako baten hitzetan: "... la scienca mème".<sup>5</sup>

Etimologiaren metodoa, ordea, oso akastuna zen, askotan in-  
tuitiboa, XIX. mendeko Gramatika Historikoak eskuratu dizkion  
ezagutza teknikoak falta bait zitzaizkion. Honela bada, anakro-  
nikotzat jo behar ditugu beren etimologia desegokiak direla eta,  
gure autoreei buruz eman diren eritzi hain gogor asko.

- Pizkunde pentsamentu linguistikoaren beste ezaugarri bat hurrengo bereizketa zen:

- Alde batetik hizkuntza nobleak, gramatika zutenak, beraz idatz zitezkeenak eta estudioa merezi zutenak: latina, grekoa eta hebraiera.

- Eta bestetik hizkuntza "arruntak", "arte" edo araurik ez zutenak, ez-idatziak, erabiliaren poderioz bakarrik ikasten zirenak.

Pizkundeko hizkuntzalariek ahalegin bikainak egin zituzten hizkuntza nobleak eta hauen etimologia sakonki estudiatzen: gramatika, lexikoa, testuen bilketa, etab., hauxe izanik Pizkundearen ezaugarri berezietako bat: Nebrija, Luis Vives, Erasmo, P. Ramus, El Brocense, etab.

Ez dezagun, ordea, gauza handirik espero eremu honetan Zaldibia eta Garibai historilariengandik, ez eta nautikako irakasle eta legegizon zen Poza lizentziatuagandik.

b) Baina neurri apalagoan bada ere, hizkuntzalarien estudioaren horizontea zabaltzea ekarri zuen Pizkundeak, kontuan izanik hizkuntza dibertsoekiko zuten interesa, "arruntak" deitzen zieten hizkuntzekiko alegia.

Hainbat faktorek egin zuen hau guztia posible:

- "Kontinente linguistiko" exotikoak aurkitzeak, garaiko bidaia eta deskubrimenduei esker: Mundu Berriko hizkuntzak, Afrikakoak eta Asiakoak. R.H. Robins lehen aipatuak bere LINGUISTIKAREN HISTORIA LABURRA liburuan azpimarratzen du zenbaiterainoko eragina izan zuen europarrak ez ziren filologiak -bereziki semitikoak eta txinarra- ezagutzeak, azterketa linguistikoak egiteko ordu-ra arte iraun zuen tradizio gramatikal greko-latindarrarekiko gehiegizko menpekotasuna arintzeko<sup>6</sup>.
- Bestalde, europar estatu modernoek garapenak eta hauen literaturek izan zuten loraldi geroz eta handiagoak, beren hizkuntza "arruntak" duintasuna bultzatu zuten, hizkuntza nazional bihurtuak izateraino jasoz. Honek guztiak berekin zekarren gramatikak, lexikoak, ortografiaren

tratatuak etab. egin beharra. Ez zen, ordea, guzti hau kritikarik eta sarkasmorik gabe burutu.

- Gainera, hizkuntza "arrunten" duintasuna, baita sakralizazioa ere, itzulpen biblikoek egin zuten posible, protestanteen munduan bereziki.

Laburbilduz, Pizkundek berebiziko lana egin zuen hizkuntza dibertsoak deskribatzen, lexikoak biltzen eta halaber material linguistikoak -oroit Vulcanius-en Parergon-a, Leizarragaren testamentu berria-.

Guzti honek gai bihurtu zuen, gainera, lehen konparatismo linguistikoari ekiteko, bereziki Europakoak ziren hizkuntzen halako sailkapen-eskema batzuek zirriborratzera ere iritsi zirelarik, nahikoa interesgarriak gainera -ikus gero 4. kapituluaren 4.4. azpiatala-.

"Hizkuntz babel" hau deskubritzeak, adituren batek idatzia du, geroz eta zailago egiten zuen hebraiaren baitatiko monogenesiaren dogma. Honela, mito linguistiko berriak sortzen hasi ziren, poliki-poliki aurrekoa ordezkatu zutenak, batez ere estatu berrien interesen aldeko mitoak. Mito hauen ugalpena da, beraz, Pizkundearen ezaugarrietarik bat bere bigarren erdi-partean. Hona hemen ezaugarri batzuek:

- Frantzian, galoek eta beren hizkuntzak grekoan zutela jatorria;
- Nederlandera, edo flamenkoa, hebraieraren parekideak zirela, bigarren ama-hizkuntzaren moduko bat;
- Teutonikoarena edo hizkuntza germaniko zaharrarena etab.

Testuinguru honetan kokatu behar dira, gure ustez, "Lehen Euskara"ren mitoa edota baita honen ihardespena zen "Lehen Gaztelania"rena; ondoren aztertuko ditugunak alegia.

## 1.2. Ideia linguistikoak Espainian XVI. mendean

Bere hainbat lanetan Luis Gil-ek marratu digu espainiar Pizkundearen panorama, eta egia esateko ez positiboegia.

Espainiar pizkunde linguistikoa, funtsean, ez da europarraren bidetik aldentzen. Garaiko espainiar Linguistika, agian, gutxiago saiatuko da lengoaiaren eta gizadiaren lehen hizkuntzaren jatorriaz espekulazioak bilbatzen, bere eginkizun nagusia gaztelaniar dialektoa hizkuntza nazional bilakatzea izan bait zen.

Gaztelaniaren promozio hau lehen batean latinari aurre emanez egin zen -Nebrija, Valdés- eta bigarren fase batean batzuek Toledoko hizkuntz era Sevillakoari kontrajarriz. Azkenean, ordea, Gaztela Zaharreko izan zen garaile atera zen hizkuntz eredu, Menéndez Pidal-ek demostratu duenez<sup>8</sup>.

Italiera edo frantsesaren aurrean, espainiar kasuari gagozkio- la, gaztelaniak bere duintasuna lortu eta hizkuntza nazionalaren kategoria eskuratu ahal izateko, ez zituen bere aurrean Penintsulako beste erromantzeak bakarrik eduki, baita euskararen presentzia ere, hizkuntza oso zahartzat eta desberdintzat kontsideratua, ez-latindarra alegia. Honela, bere gordintasun bizienean planteiatzen zen hurrengo arazoa: ZEIN ZATEKEEN ESPAINIETAKO LEHEN HIZKUNTZA? -gure tesiaren 1.2.5.atala, ondoren laburbilduko duguna-.

Hizkuntza primitiboa kaldeera zela, Arias Montano, edota grekoa zela, Juan Valdés, ziotenen eritzien aurrean, "Euskara Primitiboa"ren teoria aurkitzen zen. Antonio Tovar-ek zirriborratu dizkigu teoria honen jatorria eta esplikazioa<sup>9</sup>, teoria honek bere alde zuelarik iparraldeko mendietan mintzaturiko hizkuntzaren izaera desberdina, zaharra eta bertakoa, Bir-konkistari ekin zitzaion lurraldeko hizkuntzarena alegia.

Teoria edo mito honen aurrean, XVI. mendean "Gaztelania Primitiboa"ren teoria zentzugabeko mamitu zen, XVII. mendean ere oraindik batzuek jarraitzen zutena. Teoria honen arabera, erromatarrak Penintsulara iritsi zirenean, gaztelania jadanik mintzatzen zen bertan. Honek demostratzen digu argi eta garbi norberaren hizkuntza mitifikatzea ez zela izan Larramendiren asmakizuna eta ez dela izan euskaldunon ezaugarri eskusiboa<sup>10</sup>.

## 2. Kapituluua. Juan Martinez de Zaldibia batxilerra

Ez zen izan espezializazioa Pizkundearen ezaugarria, ezta lan honetan estudiatzeko ari garen euskal autoreena ere. Halako pluridisziplinatasun bat "avant le mot", edota argiago esateko, gai historiko, linguistiko, filologiko, juridiko eta abarretako obren nahastura izan zen areago.

Honela bada, ideia linguistikoak batzuetan, froga historikoetan eta baita etnografikoetan ere oinarritzen dira eta, alderantziz, askotan, autorearengan berarengan eta obra berean. Garibaik bereziki, bere obra ugarian zehar, jite eta kalitate oso dibertsoko gogoeta "historiko-linguistiko" asko jaulkitzen ditu.

Guzti honek behartu gaitu azterketa-metodo oso zehatza praktikatzera, lehen bi autoreen baitan aplikatu duguna; honek hurrengo atalak hartzen ditu:

- *Euskarari buruzko "kanpoko" ideia linguistikoak.* Hemen jasotzen ditugu eta aztertzen gure hizkuntzaren jatorriaz, antzinatasunaz, hedaduraz eta gainerako aspektu "ohar-garriez" esan den guztia.
- *Euskarari buruzko "barneko" ideia linguistikoak.* Bere ezaugarri propioak: fonetikoak, morfosintaktikoak edota lexikoak.
- *Beste hainbat ohar linguistiko* beste hizkuntza batzuekiko, baldin bada, hala nola Katalan eta Portugesari buruz Garibairen kasuan.
- *Euskal testuak, etimologiak eta beste hainbat "aspektu filologiko".*

Oinarritzeko eskema hau da tesiaren 2. kapituluuan aplikatu duguna J. Martinez de Zaldibia batxiler tolosarraren obra aztertzerakoan.

SUMA DE LAS COSAS CANTABRICAS Y GUIPUZCOANAS, Gipuzkoako lehen historiatzat kontsideratua izan den obra bereau, eskuz idatzitako kopien bidez zabaldua, bere lehen edizioa, dirudienez, 1945ekoa da<sup>11</sup>.

## 2.1 Datu biografiko laburrak

Jaiotzez tolosarra, familiaz Ahaide Nagusiekin uztartua, hainbat kargu izan zituen, hala nola Tolosako Alkatetza hirutan, lehenengoa 1544ean eta hirugarrena 1574ean, hurrengo urtean hil baino zertxobait lehenago.

## 2.2 Euskarari buruzko "kanpoko" ideiak

Bere obran gai linguistikoa txikia da hedaduraz, baina ez bigarren mailakoa. Mañarikuak eta bestek diotenez, gure hizkuntzaz aurreko kroniketan jasotzen ziren ideia eta uste ia guztiak biltzen ditu, guk hurrengo eran laburbilduko ditugunak:

- Euskara zela Espainiako ama-hizkuntza eta orokorra, Tubalek eta honen jendeak ekarri zuen hizkuntza postbabilikoa.
- Euskara garbi eta aldakuntzarik gabe mantendu zela nahiz eta ideia hauek frogatzen batere saiatu ez.
- Garaiko euskaldungoaren deskribapen nahikoa zehatza ematen digu. Gai hauek guztiak etengabe agertuko dira geroago euskaralagian.

## 2.3 Euskarari buruzko "barneko" ideiak

Idazle tolosarraren obrak ia parrafo bat bakarra jasotzen du hizkuntzari berari dagokionez interesa duena, bereziki honen deklinabideaz eta azentuaz.

Badirudi autoreak bere ama-hizkuntzan halako deklinabide moduko zerbait somatzen duela izen propioentzat eta gaur deklinabide "mugagabea" deitzen duguna, bien ezaugarritzat artikulurik eza izanik.

Azentuaren posizioa nahikoa egoki azpimarratzen du, K. Mitxelenak dioenez<sup>12</sup>.



#### 2.4. Aspektu filologikoak

Azkenik, bere obran euskal testu labur batzuek eta etimologiaren bat biltzen ditu Zaldibiak:

- Juan de Lazkanoren kantua;
- M. Txanfarronena;
- Beotibarko Guduaren zatia<sup>13</sup>.

Honela bada, Kronika eta apologisten bitarteko autoretzat kontsideratzen dugu Zaldibia, filologiaren munduan Garibairen aurrekaria, dudarik gabe honen baitan eragina utzi zuelarik<sup>14</sup>.

### 3. Kapituluua. Esteban Garibai eta Zamalloa

Lehenago aditzera eman dugun bezala, Esteban Garibai izan da, dituen oharpen linguistiko eta filologiko ugari eta dibertsioengatik, lehen aipatu dugun azteketa-metodoa erabiltzera behartu gaituena, eta beroni ere aplikatu egin diogu.

Bi elementuk baldintzatzen zuten Esteban Garibai autoreaz egitekoa genuen lana: alde batetik arrasatearra pertsonaia-mito bihurtua zegoela eta, bestetik, euskaralogo txarraren prototipotzat kontsideratua, etimologiaren eremuan irudipenak bakarrik eraginda jokatu zuela eta. Koldo Mitxelenaren eta J. Caro Barojaren iradokizunak jarraituz, -Barojarenak bereziki, Garibaiz diharduen bere liburukoak<sup>15</sup> - guztiz beharrezkotzat kontsideratu dugu ahalik eta zehatzen aztertzea:

- Bere ideia linguistikoen multzoa, 3.2 eta 3.3. atalak;
- Bere etimologiaren lagin handi bat errebisatzea, bere garaiko etimologiaren prozedurarekin eta gaurkoarekin kontrastatuz, 3.3. atala.
- Azkenik, halaber aztertu ditugu berak bildutako euskal testuen interesa, berak erantsiriko oharpen linguistikoak eta

baita gaur probokatu dituzten irazkin linguistikoak ere. Guzti hau, 3.5. atalean ikusten da: "Garibai euskal filologo".

Gure ustez honela neurri jatorrean baloratua geratzen da gipuzkoar historilari kritikatuak.

### 3.1. Datu biografiko laburrak

Esteban Garibai eta Zamalloa Arrasaten jaio zen, 1533an eta leinuz oñatiarra bazen ere, Toledon jarri zen bizitzen 1574ean, bigarren ezkonduarik eta Felipe II. erregearen Kronista Ofiziala zela hil zen 1596an. (15 bis).

Oñatin eta Santo Domingo de la Calzada-n egin zituen ikasketak. 1570ean Amberesera joan zen bere obra handiaren edizioa burutzera: EL COMPENDIO HISTORIAL, 1671n amaitua<sup>10</sup>.

### 3.2. Garibairen ideia linguistikoak

#### 3.2.1. Euskarari buruz KANPOKO ideia linguistikoak

Kronistak eta bere aurreko Zaldibia bezalaxe, tubalismo eta euskal-kantabrisismoaren aldeko agertzen da Garibai, Espainian gure hizkuntza izan zela primitiboa eta orokorra.

- Baina Zaldibia ez bezala, Garibai Toponimiaren laguntza hori frogatzen saiatzen da. Honela, gure herrian euskal izenak erabat zabalduak daudela dio behin eta berriz:

"Lurralde honetan, etxe, lur, haran, ibai, erreka, mendi eta muinoen izen guztiak bertako hizkuntzakoak direla ikusten da".(C.H.I., L. III, 72 or.).

Autoreak normalean erabiltzen duen "bertako hizkuntza" espresioaz ohartzen gara, euskarari buruz diharducenean.

- Armeniar eta euskal toponimoen antza:  
"Ararat...Aralar, Gordeia...Gorbeia, Araxes...Araxes..."  
etab.

Berdintasun hau, gainera, euskararen jatorri postbabeliko eta orientalaren elementu demostragarria iruditzen zaio, gure genealogista euskal-kaukasismoaren aurrekari agertzen delarik eta, beraz, Pozarena ere bai.

- Gure hizkuntzaren isolamendua eta izaera sakona ere azpimarratu zituen Garibaik:  
 "... ez du inongo beste hizkuntzaren partizipaziorik".  
 (C.H., I, L.III, 77 or.).

Honek ezaugarritzen du, beraz, Garibai apologista bezala, bereziki Poza, Larramendi eta Astarloak landuko duten ildoan.

Laburpen xume honekin, uste dugu, garbi geratzen dela Zaldibiaren parean Garibaik aurrera-pausoa eman zuela euskal hizkuntzaren apologista bezala.

Jakina, Garibaik bere obran beste hainbat gai ere ukitzen du, hala nola hizkuntzaren izenak, honen hedadura, Europan mintzatzen diren beste hizkuntza guztiekiko bereiztasuna etab.<sup>17</sup>

### 3.2.2. Euskarari buruzko BARNEKO ideia linguistikoak

Arrasatear genealogista eta historilariak bere obra bikainean -eta bere Memoretan- hainbat oharpen ere egiten ditu, era isolatuan bada ere, Euskarari buruz, gure ustez benetako interesa sorterazten dutenak gainera:

- Euskarak baduela "artea" edo arauak, gramatika azken finen, eta gainera erraza litzatekeela egitea "latinak baino erregela gutxiagorekin". Zoritxarrez ez zen aintzakotzat hartu proposamen hau<sup>18</sup>.
- Sikulo eta beste batzuen ideia jasotzen du euskal izenen -a amieraz eta -ac pluralaz, nahiz eta bere atsotitzen itzulpenetan demostratzen duen, aipatu amaierak euskal artikulua direla.
- Dialektalizazioaz eta inguruko erromantzeek Euskara endekatu egin dutenez informatua ageri zaigu, orduan bere lehia apologistikoak alde batera uzten dituelarik;

- Euskal arrantzaleek bidaiak sarri egin dituztelako, Ternuan euskara bizirik dagoen informazioa ematen digu;
- Hainbat euskal aditz-formaren izaera markatua aipatzen du -aditz "maskulinoak eta femeninoak"-, euskararen ezau-garri berezia, A. Tovar-ek duela urte gutxi balio tipologikotzat kontsideratu zuena<sup>19</sup>.

Oharpen hauetako batzuen izaera errealista eta modernoak, gure ustez, demostratzen du alde batetik arrasatearrak bere hizkuntza bikain ezagutzen zuela eta, bestetik, linguistikaz ohar-tzeko bazuela sena.

### 3.3. Garibai etimologo

Esana dugu jadanik alor honetan oso kritikatu izan zela, etimologo txarraren prototipo bihurtzeraino gainera, Saroiandyk eta S. Mujikak bereziki<sup>20</sup>.

Esan behar da etimologia zientifikoa XIX. mendean jaio zela, garaiko Gramatika Historikoaren eskutik. XVI. mendean, 1. kapituluaren laburpenean esan dugunez etimologiaren eginkizuna pertsonak, hiriak eta erresumak laudatzeko mitoak eta leiendak elikatzea zen hein handi batean. Baditu Garibaik era honetako etimologiak, oso gutxitan asmatuak.

Bada, ordea, alor bat non autorearen proposamen etimologikoaz maiz askotan ongi bideratuak dauden, gaur -lau mende geroago- proposatzen diren baliokideetatik aski hurbil daudenak:

- Euskal toponimo ugariren etimologia deskriptiboak: Nafarroa, Iruña, Pamplona, Hondarribia, etab.

Gure ustez, bada, ezin daiteke kontsidera Garibai bere garaiko etimologorik txarrena bezala, ezta onar ere bere etimologia asko guztiz baliogabeak direla, gaur bertan ere.

### 3.4. Garibairen beste ohar linguistiko batzuek

Historilariaren jakinmin linguistikoa ez zen mugatu euskararen barrutira bakarrik. Baditu bere orrialdeetan beste hainbat oharpen interesgarri:

- Euskal deitura batzuen jatorriaz;
- Oso bereziki nahi genuke azpimarratu berak hauteman zuen "Nafarroako Erromantzea"ren aparteko izaera, transkribatzen dituen diploma batzuetatik abiatuta, hauek Nafarroako Karlos III.aren garaikoak izanik. González Ollé eta Nafarroako Unibertsitateko bere lagunak 1970az gero zehatz-mehatz aztertzen ari direna intuitu zuen gure historilariak orduan.

### 3.5. Garibai euskal filologo

Filologoaren lehen eginkizunetako bat testuak bildu eta transmititzea da.

Garibai dugu Erdi Aroko euskal testu-biltzaileetan lehengoa, euskal linguistika eta literaturarentzat dudarik gabe garrantzizkoa izan dena. Azpimarratzekoak dira kantu eta balada batzuk:

- Martin Bañez Artazubiagako Eresiak;
- Lasturko Miliaren Eresiak;
- Beotibarren Kanta;
- Olasoren Kanta etab.

Jakina, hauen zati batzuen bertsio bat baino gehiago ditugu. Bestalde, Garibaik euskal atsotitzen bi bilduma egin zituen<sup>21</sup>.

Eta zera nabarmendu nahi genuke:

- Eskaini zigun beren itzulpena.
  - "... hitzez hitz lerro-artekatzea". (Memorias, 546 or.);
- Garibaik berak bere iruzkinetan erantsi zituen ohar fonetiko eta lexikoak.

Ez goaz "Garibai Filologo" kapituluaren idatzitakoak berritzera (55-57. or.). Bertan bildu ditugu -eta tesian askoz zabalago- K. Mitxelena, I. Sarasola, J.A. Lakarra eta beste batzuek Garibairen atsotitzak direla eta euskarari buruz jaulkitako garrantzizko iruzkin linguistikoak, morfosintaktikoak bereziki.

### **Laburpen gisa**

Garibaik garaiko euskarologiaren sintesia eman zuen; eta, gainera, gure hizkuntzaren apologiaren oinarriak ezarri zituen, geroago Pozak, Larramendik eta Astarloak garatu zuten apologia.

Ia sistematikoki baliatu zuen Toponimia frogua linguistikotzat.

Euskararen "gramatika" bazela afirmatu zuen eta, bere ustez, laburra eta egiten erraza zela, gainera.

Garrantzizko euskal testuak bildu zituen eta bere atsotitzen itzulpena egin, hauen aspektu batzuek egoki komentatuz.

Amaitzeko, guretzat Garibai lehenengo euskal linguisten artean kontsideratu behar da eta seguraski lehen euskal filologoa dateke, arbuaitzekoak izanik berari buruz isuri diren eritzi gogor eta anakronikoak gainera.

## **4. kapituluaren. Andres de Poza lizentziatua**

Bizkaiko Andres de Poza lizentziatua da estudiatu dugun hirugarren autorea, urduñarra berau. Honek problematika eta aktualitate ezberdinak aurkezten zituen eta honexegatik da berari dedikaturiko kapituluaren aurreko bi autoreenekiko aski desberdina.

### **4.1. Andres de Poza eta Yarza-ren biografia**

Duela bi urte arte alde ilun batzuek erakusten zituen autore honen bizitzak.

“A. de Poza Flandrian: bere bizitzaren etapa ia ezezaguna” izeneko txostenaren bidez hein handi batean argituak izan dira bizitz atalak. Txostena Karlos Gonzalez Etxegarai jaunak idatzia da eta Euskaltzaindiaren aldizkarian publikatu da<sup>22</sup>.

Andres de Poza Urduñan jaio zen 1530ean, baina haurtzarotik bertatik Flandrian bizi izan zen, ikasketak Lovainako Unibertsitatean eginez. 1559an itzuli beharra izan zuen, Salamancan Zuzenbidea ikastera, bertan 1570ean graduatu zelarik.

Aipatu txostenak jakitera ematen digunez -eta 1587ko bere obrako daturen batek ere bai-, Flandriara itzuli zen, non bizi izan zen berriro 1579 edo 1580 arte. 1583an Bilbon agertzen da bizitzen, nautikako irakasle eta legegizon. Hainbat obra publikatu zituen:

- “Hydrografia la más cvriosa...”, Bilbo 1585;
- “De la antigua lengua y poblaciones... de las Españas”, bere obra linguistikoa, Bilbo 1587<sup>22bis</sup>.

Beste hainbat lan ere publikatu zituen:

- “De nobilitate...”, bizkaitarren kaparetasunaren alde, 1589an;
- “Memorial a Sr. Rey D. Felipe II...”, 1590-92 inguruan.

Azkenik, Madrilen hil zen Poza, 1595ean, agian Prokuradore karguren bat zuelarik<sup>23</sup>.

Bestalde, geuk ere planteatu dugu Koldo Mitxelenak harrotu zigun auzia, alegia Poza euskalduna ote zen ala ez jaiotzetik. Gure ustez ez zuen euskara menderatzen -bere obretan oinarritzen gara hau esateko-, eta ezagutza teorikoa izan bide zuen praktikoa baino areago -agian ezkondata gero lortua Bilbon?-, honetan nabarmenki bereizten delarik Zaldibia eta Garibairengandik.

#### 4.2. Poza kritikaren aurrean

Gure lanak duen aspektu berri bat Pozari egindako kritikaren errepaso historikoa da.

Honi esker frogatu ahal izan dugu Poza desberdin baloratua izan dela autoreen eta garaien arabera. Isasti, Larramendi eta Unamuno euskal autoreek, era positiboan baloratu dute oro har, bereziki euskararen apologista bezala. Beste batzuentzat, ordea, Poza nahikoa iluna izan da.

Azkenik, esan Poza hizkuntzalari bezala errekonozitzea oraingo gertaera izan dela -bilbotar Unamunoren balorazio aintzindaria salbu-, Mitxelena, W. Bahner erromanista eta Eugenio Coseriu linguistari esker.

Gaur ez dago bakarrik apologista bezala kontsideratua, baita Pizkundeko euskal eta europar hizkuntzalari bezala ere.

Berrikuspen historiko hau egitera bultzatu gaitu Poza lizentziatuak euskarologiaren munduko figura nagusi batzuen baitan eragin nabarmena izan zuenaren usteak. Aspektu askotan Garibairen jarraitzaile izan zenak A. Larramendi eta A. Pablo Astarloa izan zituen bereziki bere eraginaren menpeko.

### 4.3. Bere obra ez linguistikoei buruz

Gure tesian bere obra ez-linguistikoaren aurkezpen laburra egin dugu: obra juridiko nahiz nabigazioko arteari buruzkoena. Hauek osatzen dute autorearen figura polifazetikoaren, errenazentista, baita gizon ekintzailearena ere, lehen aipatu Gonzalez Etxegaraireren txosten berriak ondorioztatzen duenez.

### 4.4.- 4.7. Andres Pozaren obra linguistikoari buruz

"DE LA ANTIGUA LENGUA Y POBLACIONES ... DE LAS ESPAÑAS", Bilbo, 1587.

Logikoa denez, honen azterketari dedikatu dizkiogu kapituluak beste atalak: 4.4.-4.7.

Jadanik iradokia dugu -4.2.an- Poza lizentziatuak azken urteotan Europa mailako errekonozimendua lortu duela, besteak beste Koldo Mitxelenari esker<sup>21</sup>. Baina batez ere Eugenio Coseriu



errumaniar linguista eta Tübingengo irakasle denak urduñarrari dedikaturiko hiru artikuluek egin dute posible, 1972, 75 eta 76an idatzitako artikuluek alegia<sup>25</sup>.

Bestalde, Pozaren obra linguistikoa publikatu zela eta Euskaltzaindiaren eskutik ospatu zen 4. mendeurrenak -Urduñan 1987an, lehenengo konferentzia aipatu Coseriu-k berak eman zuelarik<sup>26</sup> - eta berari esker gure artean sortu zen hainbat obrak, goraiatu eta eguneratu dute autore honen figura.

#### a) Poza europar linguista

Europako linguistikarentzat alderdi baliagarrienak laburbiltzen saiatuko gara:

- Egin zuen Europako hizkuntzen sailkapena (5. kapitulua), Coseriu-k oso laudatua (1972). Hemen zera nabarmenduko dugu:
- Errumaniar hizkuntza, hizkuntza erromaniko katalogatzea eta italieraren desberdina: "... ut cum difficultate Italus Vvalacchum intelligat" (f 67 a).
- Antzeko katalogazioa albaniar hizkuntzarekiko;
- Frantziar hegoaldeko dialektoen deskribapen aski egokia;
- Ingelesaren karakterizazioa: "... de Gallica et de Flandrica conflata" (Ibidem).
- Espainieraren germanismoei buruzko bere azterketa, errumaniar irakaslearen artikuluetan bigarrenaren gaia (1975), zeinak dudarik gabe kalifikatzen bait du Poza "XVI. mendeko lehen germanista espainiar" bezala, Aldrete baino hobetzat gainera.
- Coseriu-k, gainera, Urduñan, Pozaren hebraismo moderatua goratu zuen, hebraieraren nagusitasuna baieztatzen bazuen ere, Pozak hizkuntza erromanikoak latinetik deribatzen bait zituen, hebraierara igo gabe.
- Coseriu-k, azkenik, Gesner, Megiser eta Escaligero-rekin konparatzen du Poza, Pizkundean Europako hizkuntzen

beste hainbeste sailkapen egindako autoreekin alegia, bere epaia hauxe izanik:

“Honela bada, ia ezezaguna den Poza erabat konpara daiteke Gesner eta Megiser-ekin -aspektu batzuetan bereak baino hobea delarik- eta oker handirik gabe Escaligero-rekin berarekin ere”<sup>27</sup>.

#### b) Poza euskal hizkuntzalari

Ulertzekoa denez, aipatu irakasleak apenas jarri duen arretarik 1587ko obraren aspektu “euskaldunetaz”. Hauek kontuanago izan dituzte K. Mitxelenak, Joakin Gorrotxategik<sup>28</sup> eta bizkaitar legegizonaz noizbait arduratu garenon artekok.

##### - Poza eta toponimia

Toponimiaren balorazioan erabat Garibairen jarraitzaile agertzen zaigu urduñar Lizentziatua, obraren 1. kapitulan bertan aldarrikatzen duelarik beste momentu batean “printzipio toponimikotzat” kalifikatu duguna, berak bait dio aipatu izenak:

“berritasun eta okasio askorekin ez bada, inoiz ez edota oso berandu aldatzen diren gauzak direla” (f. 2 i).

Poza, gainera, Iberiar Penintsulako euskal toponimoen lehen aztarnari gutxi-asko sistematiko bezala agertzen zaigu, georagoko Humboldt eta euskal-iberistei aurrea hartuz, M. de Unamunok bere garaian oharterazi zuelarik<sup>29</sup>.

##### - Poza euskararen apologista

Andres Pozak euskara postbabeliko eta *isolatu* kontsideratzen du, honela Zaldibia eta Garibairen teoria osatuz.

Poza lizentziatuak ekiten dio, bide batez, euskararen Apologia “filosofikoa”ri -bere obraren XII. kapitulan- eta, ondorioz, bere etimologia sakon eta misteriotsuak lantzeari. Honetan “kristau kabala”ren zirriborroa ikusi uste izan du Jon Juaristik eta Poza euskal linguistika erromanikoaren aitzindari kalifikatu du<sup>30</sup>.

Guk, gure aldetik, Larramendi eta Astarloaren aitzindari bezala ikusten dugu Poza eta, beraz, azkeneko hau ez zaigu iru-

ditzen, I. Lakak oraintsu azpimarratu duen bezala, kasu hain isolatua denik<sup>31</sup>.

- Poza eta filologia hispanikoa

Jadanik aipatu dugun germanismoen gaiaz aparte, urduñarraren obrak badu beste mami interesgarririk filologia hispanikoaz:

- espainieraren grezismoei buruz;

- Mendialdeko hizkuntzari buruz (acerca del habla de la Montaña).

Ondorioz, Eugenio Coseriu-rekin batera baieztatzen dugu, Andres Poza -"linguiste avant le mot" K. Mitxelenaren hitzetan-Pizkundeko eta europar hizkuntzalari tituluaren merezigarri dela.

Amaitzeko, A. Tovarrek dioenez gogora ekarriko dizuegu, Pozaren obran euskarari buruzko gai eztabaidagarri guztiak aurkitzen direla<sup>32</sup>.

## 5. Kapituluak. Ondorioak

Gure tesiaren ondorioak ahalik eta laburren nahi genituzke bildu, bereziki **aurkezpenean** formulatu ditugun galderak direla eta.

Gure ustez, Zaldibia, Garibai eta Poza izan daitezke euskal hizkuntzalarien lehen belaunaldia, hizkuntzari buruzko herritar espekulazio anonimoaren eboluzioa hain mitikoa ez den gogoetara daramana, gogoeta linguistikora, autorez autore geroz eta progresio eta depurazio handiagoz jarraituko duenera.

Linguistika orokor nahiz hispanikoari irekirik aurkitzen direnaz batera -Garibai eta Zaldibia-, Pizkundeko Linguistikaren jarraitzaile agertzen dira:

- hizkuntzen jatorri eta argitasunari buruzko ohizko beren ideietan: hebraismoa, mito babelikoa, etimologiarekiko interesa etab.;
- eta hizkuntza arrunt ez-idatzi batekiko beren interesa -euskarekikoa alegia-, berau erromanikoa ere ez izanik.
- beren lan filologikoan: testuen bilketa, E. Garibaik itzuli eta gainera komentatu ere egiten dituen testuena.

Gure ustez seinalatu ditugu -dagozkien kapituluetan- Garibai eta Pozaren baliozko aspektu metodologikoak eta baita bai filologia hispanikoan eta bai europarrean ere izandako asmamenak.

Azkenik, jaso ditugu, baita ere, euskarari buruzko beren ideia positiboena, hauetatik orain berriro, bi bakarrik aipatuko ditugunarren, garrantzikoena iruditzen zaizkigulako:

- euskara, gure Herrian behintzat, bertako hizkuntza izatearen komentzimentua, "la mesma lengua de la tierra" Garibairen hitzetan.
- halaber bere lehia euskara beste hizkuntza guztiez berezia eta desberdina dela mantentzean, honek zera esan nahi duelarik gure ustetan, euskara errealitatean hizkuntza postbabelikoa dela edota "matriz menor" Escaligero-ren hitzetan.

Hemen geure buruari galdetu diogu ea erlaziorik ba ote dagoen euskararen ezaugarri propioen eta estudiatu ditugun hiru autoreen ideia linguistikoen artean.

Eta baiezkoka esan dezakegula iruditu zaigu, bakarrik, hizkuntza ez ofizial, arrunt, ez-idatzi eta defentsa eta apologien beharrezko hizkuntzaren egoeraren eta garrantziko ezaugarri honen artean, hau gure apologisten artean ia nagusia, geroko euskal linguistikan nahikoa agertzen dena, ia gure mendera arte.

**Euskaratzailea:** Jon Urrujulegi

*J.R.Z.*

<sup>1</sup> BREVE HISTORIA DE LA LINGUISTICA, Edit. Paraninfo, Madrid, 1974, 9. or. eta hurr.

<sup>2</sup> MITOLOGIA E IDEOLOGIA SOBRE LA LENGUA VASCA, Alianza Editorial, Madrid, 1980; bereziki, 3. kap.

<sup>3</sup> HISTORIA DE LA LITERATURA VASCA, Edit. Minotauro, Madrid, 1960; "Al lector", 7, or.

<sup>4</sup> Ikus Linguistikaren hainbat historia -Arens, Mounin, Robins, Droixhe etab.-, eta bereziki:

J. Ceard: "Du Babel à la Pentecôte: la transformation du mythe de la confusion des langues au XVIe. s.", B.R.H., 42, 1980, 577-594. or.; Cl G. Dubois: MYTHE ET LANGAGE AU XVIe. S., Edit. Ducros, Bordele, 1970, 173. or.; LAUNAY, Me. Luce: "Un roi, deux enfants et deux chèvres: le débat sur le langage naturel che l'enfant au XVIe. s.", STUDI FRANCHESI, 72 zka. 1980 irail-abenduak, Torino, Italia, 401-414. or.

<sup>5</sup> Cl. G. Dobois, op. cit., 80. or.

<sup>6</sup> op. cit., 101. or.

<sup>7</sup> "El Humanismo español del s. XVI", ESTUDIOS CLASICOS, T. IX, 51 zka. (1967), 211-297. or.

<sup>8</sup> "El language del s. XVI.", MIS PAGINAS PREFERIDAS, Gredos, 1957, 9-45. or.

<sup>9</sup> MITOLOGIA...: 1. eta 2. kap., 15-47. or.

<sup>10</sup> Bi teoria edo mito hauei buruz halaber irakurri beharra dago W. Bahnerren hurrengo obra: LA LINGUISTICA ESPAÑOLA DEL SIGLO DE ORO, Edit. Ciencia nueva, Madrid, 1966.

<sup>11</sup> Fausto Arozenak prestatua, Sarrera, ohar eta indize toponomastikoarekin, Gipuzkoako Diputazioaren Inprenta, Donostia, 1945, 141. or.

<sup>12</sup> F.H.V., par. 207, 388. or.

<sup>13</sup> L. Michelena: TEXTOS ARCAICOS VASCOS, Minotauro, Madrid, 1964.

<sup>14</sup> Peru Saez de Elizondok idatzia dauka Zaldibiaren -eta maila apalagoan Garibairen- estudio birbalaratua Deustoko Instituto de Estudios Vascos de la Universidad-ek publikatzeko.

<sup>15</sup> J. Caro Baroja: LOS VASCOS Y LA HISTORIA A TRAVES DE GARIBAY, Edit. Txertoa, Donostia, 2. edi. 1972. Ikus bereziki XII kap.

<sup>15</sup> bis. Ikus bere biografia, Fausto Arozenarena: GARIBAY, Itxaropena, Zarautz, 1960.

<sup>16</sup> Lehen edizioaren data 1571koa da, Amberesen. Bigarrena 1628koa, Bartzelonan. Honen erreprodukzio bat du egina Gerardo Uñak, 1988, Leioa, Bizkaia.

<sup>17</sup> Oraintsu publikatu dugu artikulu bat, honela titulaturik: "Garibai hizkuntzalari", A.S.J.U., XXIII-1, 1989, 49-58. or., zeinak laburbiltzen bait du -lan honek baino zertxobait zabalago- tesian dagokion kapitulua.

<sup>18</sup> B. Oyharçabal: "Les travaux de Grammaire Basque avant Larramendi (1929)", A.S.J.U., XXIII-1, 1989, 59-74. or.

<sup>19</sup> "Orígenes del euskera: parentescos, teorías diversas, EUSKAL LINGUISTIKA ETA LITERATURA BIDE BERRIAK, Deustoko Unibertsitateko Argitarapenak, Bilbo 1981, 7-23. or., bereziki 12. or.

<sup>20</sup> Goiko aipatu gure artikulua bibliografian aipatzen diren bere lanetan, A.S.J.U., XXIII-1, 58. or.

<sup>21</sup> Arrasatearraren atsotitzen bildumetatik "galdutako" eskuizkribuaz, ikus orain: P. Urkizu: "Garibairen eskuizkribu galdu bat (1592)", MUNDAIZ, 37-38 zka., 33-85. or.

<sup>22</sup> EUSKERA, XXIII (2. ald.), 1988, 2, Bilbo, 569-621.or. Eskerrak ematen dizkio Euskaltzaindiari bera publikatu aurretik kopia bat eskuratu zizulako.

<sup>23</sup> Bere azken edizioak, Minotauro, Madrid, 1959; Euskaltzaindia, Urduña, 1987ko iraila.

<sup>24</sup> Lehen ere idatzia genuen Pozaz; ikus: MUNDAIZ, 33 zka., 93-98. or.

<sup>25</sup> "Guillaume de Humboldt et la langue basque", LENGUA E HISTORIA, Edit. Paraninfo, Madrid, 1985, 143-162. or., bereziki 144. or. (artikulua 1972koa da).

<sup>26</sup> Eugenio Coseriu-rena: (1972) "Andres de Poza y las lenguas de Europa", STUDIA SPANICA IN HONOREM R. LAPESA, Gredos, Madrid, T. III, 199-217. or.; (1975) "Un germanista vizcaíno en el s. XVI. Andrés de Poza y el elemento germánico del español", ANUARIO DE LETRAS, 13, Mejico, 5-16. or.; (1976) "Sobre el conocimiento de la lengua rumana en Europa occidental en el s. XVI. (Genebrard y A. de Poza)", SCRITTI IN ONORE DI GIULIANO BONFANTE, II, Paideia Editrice, Brescia, 1976 (Originala alemanez).

<sup>27</sup> Ikus ihardunaldien gure aipamena, MUNDAIZ, 33, 99-102. or. bereziki.

<sup>28</sup> Coseriu 1972, 217. or.

<sup>29</sup> "Andres de Poza y el Euskera", A.S.J.U., XXI-3, 1987, 661-681. or.

<sup>30</sup> Aurreko oharrean aipatu dugun artikuluan Gorrotxategi irakasleak du egi- na euskal toponimoen azterketa etimologikoa eta hauek Pozaren baitan era- kusten duten euskararen ezagutza

<sup>30</sup> Bere hitzaldia

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN UDAKO VII. IKASTAROAK, DONOSTIA, 1988ko Iraila, "Hizkuntzalaritza XVIII. eta XIX. Mendeetan" izeneko zikloan.

<sup>31</sup> "Astarloaren hizkuntzalaritzaz", A.S.J.U., XXIII-1, 1989, Donostia, 75-86. or.

<sup>32</sup> MITOLOGIA..., 52. or.

GAIK

---

...HAINBAT ABURU

---





# Euskara Euskal Herriko Unibertsitatean

Jazinto Iturbe

## 1. Sarrera

Unibertsitateak dituen funtzio guztiak, bai agerikoak -irakaskuntza, ikerkuntza-, eta bai hain agerikoak ez direnak ere -gizartearen atal baten formazio-gunea, eztabaida-tokia, kultur iturria, eta abar- kontutan hartuz gero, ikusiko da "Euskara Euskal Herriko Unibertsitatean" izena duen lanaren hedadura handia izan behar duela. Hala ere, saio baten ahalegina plazaratuko da hemen, hurbilketa historiko batekin hasita, eta ondoren, Unibertsitateak gaur egunean duen inguru legala aipatuko da, Unibertsitatearen beraren azterketa soziolinguistiko baten emaitzekin batera, lektuze horrek irakurlea lagunduko duelakoaren segurantzian.

Bestalde, gizarteak berak Unibertsitatea nola ikusten duen behatuz, Unibertsitatearen alde formatiboaren garrantzia handia da, eta horregatik atal zabala emango zaio euskarazko irakaskuntzari.

Bukatzeko, Unibertsitatearen beste zenbait eginkizun aipatuko dira, barauk euskararekiko duten ikuspuntutik tratatuta.

## 2. Hurbilketa historikoa

Gaur eguneko Euskal Herriko Unibertsitatearen hastapen bezala, 1968.ean sortu zen Bilboko Unibertsitate Autonomoa kontsidera daiteke. Bilboko hau, Euskal Herriko lehen Unibertsitate publikoa, Bizkaian zeuden Valladolid-eko Unibertsitatearen barrutiko Ikastegi pare batekin -Ekonomi eta Enpresa-Zientzien Fakultatea eta Industri Ingenieruen Goi Eskola Teknikoa -eta orduan sortutako beste pare batekin- Medikuntz Fakultatea eta Zientzi Fakultatea- hasi zen. Geroxeago Donostian, oraindik Valladolid-eko barrutian, bi Fakultate sortu ziren, -Kimika-Fakultatea eta Zuzenbide Fakultatea, eta Gas-teizen, Arabako Ikastetxe Unibertsitarioa, non Zientzietako eta Medikuntzako zenbait ikasturte ematen bait ziren.

1976.ean, hiru probintzietako barruti unibertsitarioa eratu zen, bertan kokatutako zenbait Ikastegi Unibertsitate barruan integratzen zirelarik. 1980.ean, Unibertsitatea, Bilboko izatetik, "Euskal Herriko" izena hartzera pasa zen, eta elebitasuna izenean ere agertu nahi zelarik, "Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea" izen ofiziala jarri zitzaion, gaur egunean duena.

Gaur egunerarte Unibertsitateak ez du aldaketa geografikorik izan. Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren hedadura berdineko barrutia edukirik, Komunitate Autonomoan dagoen Unibertsitate publiko bakarra da, eta beronen ardura hauek dira, titulazioak eta lizentziak hartzera eramaten duten ikasketak eta irakaskuntzak eskaintzea, ikerkuntza lantzea eta gizarteak Unibertsitateari eskatzen eta exijitzen dizkion betekizunak giro eta era unibertsitario batez betetzea. Horren guztiorren islada izan nahi du Unibertsitatearen armarririk, non Bilbokoaren "Veritatis Invicta Propugnatrix" lema hura, "eman da zabal zazu" Iparragirretarrez ordezkatu baita.

### 3. Inguru legala

Unibertsitatearen ihardupidea ezagutzeko, beharrezko da Unibertsitatea baldintzatzen duen legeria nondik norakoa den aipatzea. Besterik ezean, Konstituzioak, Espainiakoak hain zuzen, Unibertsitatearen autonomia aldarrikatzen du 27.10 Artikuluan, baina -eta hau oso garrantzitsua da- legeak ezartzen duen neurrian. Eta lege hori, Unibertsitatearen Erreformatarako Legea izan da, UELa, eta honek ematen du Unibertsitatea mugitzen den esparrua. Lege honen arabera, Espainiako Unibertsitateek molde beretsua dute, batetik besterako desberdintasunak txikiak direlarik.

Beste oinarri legal bat, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren Autonomi Estatutua da, eta honen aplikazioz, Hezkuntza Sistema Unibertsitarioa eta Ikerkuntza Zientifiko-Teknikoa Euskal Jaurlaritzara transferituta dago.

Aipatu beharrezkoa da, halaber, UELaren aplikazioz, Euskal Herriko Unibertsitateak bere barne-ihardupiderako Estatutuak badituela, bertan, Komunitate Unibertsitarioaren eskubideak eta obligazioak ezagutzen direlarik.

Euskararen aldetik, Unibertsitateak propietzat hartu du Autonomi Estatutuan ezagutzen den elebitasuna eta horrela Unibertsitatea elebiduna da. Elebitasun hori Estatutuetakoz zenbait puntutan dago garrantzitsua, eta horren arabera, eta besteak beste, ondoko hauek aipatzen dira:

- Inork ez du hizkuntzagatik bereizkeriarik pairatuko.
- Unibertsitarietara edozein hizkuntza ofizialez irakaskuntza jaso eta eskaintzeko eskubidea ezagutzen zaie.
- Unibertsitarietara Unibertsitatearen organo guztietan edozein hizkuntza ofizialez harremanak izateko eskubidea ezagutzen zaie.

Eskubideak ezagutzen diren arren, Estatutuak euskararen normaltzeaz behin baino gehiagotan mintzatzen dira, egoera erreala, euskaldunen kalterakoa, goian aipaturiko egoera suposatzen duen bukaera-egoerara pausoka eramateko. Horretarako, organo nagusi bezala, Unibertsitatearen Euskararako Batzordea dago, honek eus-

kararen erabilera normaldua eragingo duen plangintza proposatuko duelarik.

Batzordeaz gain, Ikastegi bakoitzean ikastegi-batzordeak eratu dira, eta Unibertsitatearen Zerbitzu Zentraletan, Euskararako Kabinete Teknikoa dago. Ikerkuntzaren aldetik, Sailek eta irakasleek bere konfiantza egiten dutenaz gain, Estatutuek Euskararako Institutu Unibertsitarioren eraketa kontenplatu dute.

Unibertsitatearen euskararen aldeko dinamikaren garrantziaz jabeturik, Unibertsitatearen Klaustroak, Estatutuak onartu zituenean, dinamika hori aurrera eramateko Euskararako Errektoreordearen irudia sortu zuen.

#### **4. Euskararen egoera Euskal Herriko Unibertsitatean**

Lehendabiziko aldiz 1986.ean egin zen Estatutuek agintzen duten eran Errektorearen hautaketa, eta horrela hasi zen Unibertsitatearen fase hau, fase estatutarioa dei daitekeena, eta Errektore berriarekin Estatutuetan agertzen ziren bideak eta bitartekoak martxan jarri ziren.

Euskararen aldetik, egoera kualitatiboki txarra zela gauza jakina bazen ere, beharrezko zen kuantitatiboki noraino zen txarra jakitea, horrela plangintzarako lehen datuak izateko. Horretarako azterketa soziolinguistikoa bat egin zen Ikastegika, Campuska, Zerbitzuka eta estamentuka, eta ateratako ondorio orokor garrantzitsuenak ondoko hauek izan ziren:

- 1.- Unibertsitatearen egoera soziolinguistikoa Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren gizartetik hurbil eta baxuago dago. Beraz, gizartean agertzen diren problemak Unibertsitatean areagotuxeagoak agertzen dira.
- 2.- Unibertsitateko pertsonalaren datuetan, hiru multzotan banatuta, hots, irakasleak, ikasleak eta Administrazio eta Zerbitzuko Pertsonala, AZPa, zera nabaritzen da, AZPan dagoen euskaldunen kopuru txikia.

Bestalde, aldiz, beste bi multzoetan dauden euskaldunen euskararekiko maila altua dela nabaritzen da.

|            | <b>Kopuru guztia</b> | <b>Euskaldunak</b> | <b>Alfabetatuak</b> |
|------------|----------------------|--------------------|---------------------|
| Irakasleak | 2.402                | % 15,4             | % 14,3              |
| Ikasleak   | 42.026               | % 15,3             | % 13                |
| AZPa       | 650                  | % 9,4              | % 4,4               |

*OHARRA: Azterketa hau 1988.eko Udaberrian burutu zen.*

- 3.- Azterketa soziolinguistikoaren arabera, unibertsitarien euskararekiko portaera, oro har, positibotzat har daiteke, eta Unibertsitatean -irakaskuntzan, ikerkuntzan, zerbitzuetan-euskararen areagotzeari garrantzi gehiago eman behar zaiola ondoriatzen da. Horrela, beste posibilitate batzuren aurrean, Unibertsitateak bere ez-irakaskuntzazko ekintzetan euskara, gaztelerarekin batera, erabiltzera jo behar du. Hala ere, elebitasuna oso azkar jartzeko programa bat, Unibertsitatearen garapenerako atzerapauso bezala ikusten da unibertsitarioren hiru multzoetan -irakasle, ikasle eta AZPan-.
- 4.- Erabileraren aldetik, bizitza unibertsitarioa egiten den tokietan -Administrazioan, Zerbitzuetan, Sailetan, Ikastegietan,...-, euskararen erabilera oso baxu bezala sentitzen da, eta erabilera nahikotxo gehiago edo askoz gehiagokoa izan beharko litzatekeela ondoriatzen da.
- 5.- Irakaskuntzaren kalitatearen aldetik, euskaraz eskaintzen den irakaskuntzaren kalitate-maila, gazteleraz eskaintzen den kalitate-maila baino baxuago ikusten da, eta kalitate hori, bai gazteleraz eta bai euskaraz, hobea izan beharko lukeela ondoriatzen da. Edonola ere, kalitate-mailen arteko desberdintasuna ez da hain nabaria euskaraz eta gazteleraz ikasten dutenen ikuspuntutik edo-ta euskaraz eta gazteleraz irakasten duten Sailetako irakasleen ikuspuntutik, hau da, kalitate-mailen arteko diferentzia handiena, euskarazko irakaskuntzatik urrutien dauden ikasle eta irakasleek ikusten dute.

Bestalde, aldiz, beste bi multzoetan dauden euskaldunen euskararekiko maila altua dela nabaritzen da.

|            | <b>Kopuru guztia</b> | <b>Euskaldunak</b> | <b>Alfabetatuak</b> |
|------------|----------------------|--------------------|---------------------|
| Irakasleak | 2.402                | % 15,4             | % 14,3              |
| Ikasleak   | 42.026               | % 15,3             | % 13                |
| AZPa       | 650                  | % 9,4              | % 4,4               |

*OHARRA: Azterketa hau 1988.eko Udaberrian burutu zen.*

- 3.- Azterketa soziolinguistikoaren arabera, unibertsitarien euskararekiko portaera, oro har, positibotzat har daiteke, eta Unibertsitatean -irakaskuntzan, ikerkuntzan, zerbitzuetan- euskararen areagotzeari garrantzi gehiago eman behar zaiola ondoriatzen da. Horrela, beste posibilitate batzuren aurrean, Unibertsitateak bere ez-irakaskuntzazko ekintzetan euskara, gaztelerarekin batera, erabiltzera jo behar du. Hala ere, elebitasuna oso azkar jartzeko programa bat, Unibertsitatearen garapenerako atzerapauso bezala ikusten da unibertsitarioen hiru multzoetan -irakasle, ikasle eta AZPan-.
- 4.- Erabileraren aldetik, bizitza unibertsitarioa egiten den tokietan -Administrazioan, Zerbitzuetan, Sailetan, Ikastegietan,...-, euskararen erabilera oso baxu bezala sentitzen da, eta erabilera nahikotxo gehiago edo askoz gehiagokoa izan beharko litzatekeela ondoriatzen da.
- 5.- Irakaskuntzaren kalitatearen aldetik, euskaraz eskaintzen den irakaskuntzaren kalitate-maila, gazteleraz eskaintzen den kalitate-maila baino baxuago ikusten da, eta kalitate hori, bai gazteleraz eta bai euskaraz, hobea izan beharko lukeela ondoriatzen da. Edonola ere, kalitate-mailen arteko desberdintasuna ez da hain nabaria euskaraz eta gazteleraz ikasten dutenen ikuspuntutik edo-ta euskaraz eta gazteleraz irakasten duten Sailetako irakasleen ikuspuntutik, hau da, kalitate-mailen arteko diferentzia handiena, euskarazko irakaskuntzatik urrutien dauden ikasle eta irakasleek ikusten dute.

6.- Irakaskuntzaren hizkuntza zein izan beharko litzatekeen galderari erantzunez, ikerketa soziolinguistikoan lortutako emaitza orokorrak hauek izan ziren:

### Ikasleen artean

|                                    | 1. zikloan<br>Diplomatura | 2. zikloan<br>Lizentziatura | 3. zikloan<br>Doktoregoa |
|------------------------------------|---------------------------|-----------------------------|--------------------------|
| Gaztelaniera hutsez                | % 16,3                    | % 14,9                      | % 14,5                   |
| Batzuk gaztel., bes-<br>teak eusk. | % 15,2                    | % 12,9                      | % 12,2                   |
| Denak gazt. eta eusk.              | % 62                      | % 58,9                      | % 58,8                   |
| Euskara hutsez                     | % 4                       | % 3,9                       | % 3,8                    |
| Erantzun gabe                      | % 2,5                     | % 9,4                       | % 10,6                   |

### Irakasleen artean

|                                    | 1. zikloan<br>Diplomatura | 2. zikloan<br>Lizentziatura | 3. zikloan<br>Doktoregoa |
|------------------------------------|---------------------------|-----------------------------|--------------------------|
| Gaztelaniera hutsez                | % 6,1                     | % 9,1                       | % 12                     |
| Batzuk gaztel., bes-<br>teak eusk. | % 27,2                    | % 27,2                      | % 28,6                   |
| Denak gazt. eta eusk.              | % 55,8                    | % 53,8                      | % 47,6                   |
| Euskara hutsez                     | % 2,9                     | % 2,5                       | % 2,5                    |
| Erantzun gabe                      | % 7,9                     | % 8,2                       | % 9,3                    |

Azken tauletako emaitzak ohar ugariarekin hartu behar dira. Besteak beste, kontutan hartzekoak dira: hirugarren zikloaren izaera berezia; Diplomaturetako ikasleek eta irakasleek ere erantzun egin dutela; zenbait irakasleren beste hizkuntzaren bat erabiltzeko proposamena; irakasgaiak emateko ikasle-kopuruari buruz eginiko iradokizunak; irakaslego prestatuari edo nahikoari buruzko iradokizunak; titulazio desberdinetan dauden diferentziak, eta abar. Hala ere, Unibertsitatean bi hizkuntzen bidezko irakaskuntzaren eredia dela nagusi.

## 5. Euskarazko irakaskuntza Unibertsitatean

Unibertsitatea da Hezkuntz Sistemaren gailurra, eta irakaskuntza ertainetik datorren ikaslegoz hornitzen da batipat. Beraz, euskarazko irakaskuntzan ere, irakaskuntza ertaineko hizkuntz oinarria ere kontutan hartzekoa da. Une honetan Euskal Herriko Komunitate Autonomoan, irakaskuntza ertainetan, arinki esanda, bi hizkuntz eredu daude, bata euskara hutsez dena, eta bestea gaztelera hutsez dena. Eusko Jaurlearitzaren estatistikak, ikusita, ikaslego euskaldunaren jora hazkorra ikusita, Unibertsitateara sartzeko hautaprobak euskaraz egiten dutenen kopurua ikusita, eta pasatzen dutenen kopurua ikusita, euskal lerrotik joandako 1.900-2.000 ikasle sartuko dira Unibertsitatean, gaztelerazko lerrotik joandakoak 16.000-17.000 inguru izango direlarik. Horietatik batzuk ez dira Euskal Herriko Unibertsitateara etorriko, eta badatoz ere, gazteleraz ere ikas dezaketela kontutan hartu behar da. Beste Unibertsitateen barrutietatik datozen euskaraz ikasitakoen kopurua ia nulua da.

Unibertsitatearen bolumena ulertzeko datu pare bat: Gaur egun (1989-90 ikasturtean), 47.520 ikasle, 2.651 irakasle, 732 pertsona administrazioan eta zerbitzuetan, 15.000 milioi pezetako aurekontua urtean, hiru lurralde historikoetako hiriburuetan banatutako hogeitaka ikastegi... Gaur egunean, tamainaz baino ez bada, Unibertsitatea era-kunde oso garrantzitsua bilakatu da.



**ARABAKO CAMPUSA**

| <b>Ikastegia</b>                      | <b>Titulazioa</b>  | <b>Berezitasunak</b>                                    | <b>Euskaraz ematen dena</b>   |
|---------------------------------------|--|---|---|
| Filol. eta Geogr.<br>eta Histori Fak. | Geog. eta Hist. Liz.                                     | Historia  | 1. eta 2. ikasturteak, osorik, irakasgai bat ezik eta 5. ikasturtean irakasgai bat. |
|                                       | Filol. Liz.  | Euskal Filologia.....                                   | 25 irakasgaietatik, 18 euskaraz   |
| Farmazi Fakultatea                    | Farmazian Liz.<br>Elikagaien Z. Liz.<br>Nutrizioan Dipl. | Filol. Erromanikoa.....                                 | 25 irakasgaietatik, 5 euskaraz  |
|                                       |  | Frantses Filol.<br>Ingeles Filol.<br>Filologia Klasikoa | ..... irakasgai bakan batzuk  |
| OHOerako Irakasl.<br>Unib.-Eskola     | OHO Irakas. Diplom.                                      | Farmazia  | Ezer ere ez   |
|                                       |  | Elikagaien Zientzia<br>Nutrizioa                        | Ezer ere ez<br>Ezer ere ez  |
| Injinerutza Tekn.                     | Injineru Tekn.   | Frantses Filol.   | Berezitasun guztietako irakasgai amankomun guztiak, 2 izan ezik.                    |
|                                       |  | Ingeles Filol.  | Euskal Filologian, irakasgai espezifikotatik, 4 euskaraz.                           |
|                                       |  | Zientziak   | Besteetan, irakasgai espezifikotatik, 4 euskaraz.                                   |
|                                       |  | Giza Zientziak  | ..... Ezer ere ez   |
|                                       |  | Euskal Filol.   |   |
| OHOerako Irakasl.<br>Unib.-Eskola     | OHO Irakas. Diplom.                                      | Mek.-Makinagintza                                       |   |
|                                       |  | Mek.-Industr. Egit.                                     |   |
|                                       |  | Elektronika   |   |
|                                       |  | Prozesu Kim. Kontrola                                   |   |
|                                       |  |   |   |

**GIPUZKOAKO CAMPUSA**

|  |                  |   |  |
|--|------------------|---|--|
| Kimika Fakultatea                      | Kimikan Liz.     | Oinarritzko Kimika<br>Petrokimika                           | 25 irakasgaietatik, 16 euskaraz  |
| Zuzenbide Fakultatea                   | Zuzenbidean Liz. | Zuzenbidea  | 25 irakasgaietatik, 5 euskaraz   |
| Filos. eta Hezkuntz.<br>Zientzien Fak. | Filosofian Liz.  | Zientzien Logika<br>Pentsamendu-Sist.<br>Kultura eta Balio. | hautazkoren bat ezik, denak euskaraz (25)<br>25 irakasgaietatik denak euskaraz,<br>hautazkoren bat ezik. |

| <b>Ikastegia</b>                                  | <b>Titulazioa</b>           | <b>Berezitasunak</b>   | <b>Euskaraz ematen dena</b>  |
|---|-----------------------------|--|--|
|   | Pedagogian Liz.             | Hizkuntza<br>Pedago. difer.<br>Hezkuntza orientab.   | hautazkoren bat ezik, denak euskaraz (25)<br>25 irakasgaietatik denak euskaraz,<br>hautazkoren bat ezik.           |
|   | Psikologian Liz.            | Psikologia Orokorra .....  | 25 irakasgaietatik denak euskaraz, hautazkoren bat ezik.   |
| <b>Informatika Fak.</b>                           | Informatikan Liz.           | Informatika  | 1. eta 2. ikasturteetan dena euskaraz<br>3. ikasturtean, 4 irakasgaietatik, 2 euskaraz,<br>besteetan, ezer ere ez. |
| <b>Arkitekturarako<br/>Goi Eskola</b>             | Arkitektura                 | Arkitektura .....  | ezer ere ez  |
| <b>Enpresa-Zientzien<br/>Unibertsitate-Eskola</b> | Enpresa-Zientz. Dipl.       | Kontabilitatea<br>Finantza   | 1. ikasturteko zenbait irakasgai<br>besteetan ezer ere ez  |
| <b>OHOrako Irakasleg.<br/>Uniber-Eskola</b>       | OHOrako<br>Irakasle-Diplom. | Giza Zientziak<br>Zientziak<br>Eskolaurrea<br>Euskal Filol.<br>Gaztelar Filol.....                   | denak euskaraz<br><br>denak euskaraz, espezifikoak ezik.   |
| <b>Erizaintzarako Unib.-Esk.</b>                  | Erizaintzan Diplom.         | Erizaintza.  | hautazko 2 euskaraz  |
| <b>Injinerutza Tekn.<br/>Uniber.-Eskola</b>       | Injineru Teknikoa           | Mek.-Makinagintza<br>Mek.-Industri Egit.<br>Industri Eraketa<br>Prozesu Kim. Kontrola<br>Elektronika | 1. ikasturtea, osoa, besteetan ezer ere ez   |

## **BIZKAIKO CAMPUSA**

|                          |                     |   |  |
|--------------------------|---------------------|---|--|
| <b>Arte Ederren Fak.</b> | Arte Ederretan Liz. | Pintura<br>Eskultura<br>Ikus.-Entzut.<br>Diseinua<br>Tekn. grafik.<br>Mantentze eta Berriz. | 1.2. ikasturteak, osoak<br>3.eko tronkalak<br>4. eta 5.ean ezer ere ez |
|--------------------------|---------------------|---|--|

**Ikastegia**

Informazio-Zientz.  
Fak.

Zientzi Fakultatea

Medikuntz. eta  
Odontologi Fak.

Ekonomi eta Enpresa  
Z. Fakultatea

**Titulazioa**

Informazio-Z. Liz.

Soziologian Liz.

Biologian Liz.

Fisikan Liz.

Geologian Liz.

Geologia Apl.

Matematikan Liz.

Kimikan Liz.

Medikuntz. Liz.

Odontologian Liz.

Ekonomi Z. Liz.

Enpresa Z. Liz.

**Berezitasunak**

Kazetaritza  
Publizitatea

Soziologia

Oinarrizko Biol.  
Biologia Tekn.  
Ekosistem. Biol.

Elektronika  
Egoera Solidoa

Estratigrafia  
Tektonika

Zenbakizko Anal.  
Probabil. Kal.  
Zenbakien Teoria

Oinarrizko Kimika  
Kimika Fisikoa  
Injinerutza Tekn.

Medikuntza

Odontologia

Sektore Publikoa  
Hiri eta Herriald.  
Ekon. Matem.  
Garapen Nazioart.

Finantza  
Merkatal Zuz.  
Pertsonal Zuz.  
Aktuariaia

**Euskaraz ematen dena**

Dena euskaraz

1., 2. eta 3. euskaraz

1. ikasturtean 5 irakasgaietatik 3

hautazkoren bat ezik titulazio osoa euskaraz

1. ikasturteko 2 irakasgai

1. Ikasturtea osoa

3. Ikasturtean irakasgai 1

1. Ikasturteko irakasgai 1

1. Ikasturtea osoa

2. Ikasturtean irakasgai 1

3. Ikasturtean 2 irakasgai

1. Ikasturtea osoa

Ezer ere ez

1. 2. eta 3. ikasturteak

1. 2. eta 3. Ikasturteak

| <b>Ikastegia</b>                    | <b>Titulazioa</b>              | <b>Berezitasunak</b>   | <b>Euskaraz ematen dena</b>                                       |
|-------------------------------------|--------------------------------|--|---|
| Industri eta Telekom.<br>Goi Eskola | Industri Ing.                  | Mekanika<br>Kimika<br>Metalurgia<br>Elektrika<br>Teknika Energ.<br>Industri Erak.              | 1. Ikasturtea osoa eta irakasgai solteren bat                     |
|                                     | Telekomun. Ing.                | Telekom.   | Ezer ere ez   |
| OHOOrako Irakas.<br>Unib.-Eskola    | OHOOrako.<br>Irakasle.-Diplom. | Giza Zientziak<br>Zientziak<br>Euskal Filologia<br><br>Frantses Filologia<br>Ingeles Filologia | Denak<br><br>Denak, espezifikoak ezik<br>Denak, espezifikoak ezik |
| Enpresa-Zientzien.<br>Unib.-Eskola  | Enpresa-Zientzien              | Kontabilitatea<br>Diplom. Merkatalgoa<br>Administrazioa  | 1. Ikasturtean ikasgai bat  |
| Erizaintza. Unib.-Esk.              | Erizaintza Diplom.             | Erizaintza   | Ezer ere ez   |
| Injinerutza Tekn.<br>Unib.-Eskola   | Injineru Tekniko               | Mekanika<br>Industria<br>Mak. Elektrik.<br>Elektronika<br>Kimika<br>Metalurgia                 | 1. Ikasturtea, osoa   |
| Meatz Injin. Tekn.<br>Unib.-Eskola  | Meatz Inj.                     | Meatz Esplotak.<br>Teknik. Erregaiak<br>Metalurgia   | Ezer ere ez   |
| Gizarte Graduatuen<br>Unib.-Eskola  | Gizarte Graduatuan<br>Diplom.  | Gizarte Graduatua  | 1. Ikasturtea soilik ematen da, eta bera euskaraz ere ematen da.  |

Hurrengo tauletan eskematikoki euskaraz eskaintzen den irakaskuntza aurkezten da. Gauza jakina da epe motzean edo ertainean ikasketa berriak irakasteko planak etorriko direla eta Euskal Herriko Unibertsitateak ikasketa berri batzuk indarrean jarriko dituela, baina hemen gaur egunean eskaintzen den irakaskuntza aurkezten da, irakaskuntza orokorraren barruan.

Aurreko taulei jarri behar zaizkion OHARRAK:

- 1.- Hemen emandako informazioa, 1989-90 ikasturteari dago-kiona da. Unibertsitateak eskaintza hau areagotzeko helburua aldarrikatu du behin eta berriro, eta espero da, Eusko Jaur-laritzaren eta Gizarte-Kontseiluaren onespenez, datozen urteetan horrela egingo dela.
- 2.- Titulazio bat lortzeko irakasgai-kopuru minimo bat dago, kopuru hori bi multzotakoa delarik: tronkalak eta hautazkoak. Irakasgai tronkalen kopurua finkoa bada ere, hautazkoen kopurua minimoa baino handiago ohi da, ikasleak aukera dezan. Goiko taulan ematen den informazioa goitik dago mugatua, hau da, Titulazio bat lortzeko 25 irakasgaietatik 16 euskaraz ematen direla esaten denean hauxe esan nahi da, ikasle batek titulazio horretan 16 irakasgaitaraino egin ditzakeela euskaraz.
- 3.- Zenbait titulaziotan Unibertsitateak ez ditu ikasturte guztiak eskaintzen, titulazio hasiberriak direlako. Titulazioak hauek dira:  
**Arabian**, Farmazian Liz., Elikagaien Zientz. Liz., eta Nutrizioan Diplomatu.  
**Bizkaian**, Soziologian Liz., Odontologian Liz., Telekomunikazio-Injin., eta Gizarte-Graduatuan Diplom.
- 4.- Zenbait titulaziotan "Euskara Zientifiko Tekniko" izeneko irakasgai gehigarri eta aukerakoak ere eskaintzen dira, euskaldunei, formazio espezifikoz gain, jakintza transmititzeko behar diren hizkuntz bitartekoak eskaintzen zaizkielarik.

Euskaraz irakaskuntzaren eskaintza aurkeztuta, zenbat ikasleek parte hartzen duen galdetzea da ondoko galdera. Eta galderak erraza

dirudien arren, erantzuna eman aurretik zenbait burutazio egin behar da.

- Ikasturte osoa zein irakasgai bakarra duten ikasleak berdin kontatu dira.
- Ikasturte deberdinetako irakasgaiak dituzten ikasleak badaude.
- Ikasturtean zehar kontrataturiko zenbait irakaslerentzat eginiko talde berrietara beste zenbait taldetako ikasleak joan direla, hau da, gaztelerazko taldeetan egondako ikasleak euskal taldera joan direla.
- Matrikulazioa, informatizazioa, eta datuen zuzenketa, ikasturte honetan jarririko metodologia informatiko berri baten bidez egin dira, eta datuak guztiz zehatzak diren arren zenbait ikas-egitakoak ez dira exaktuak.

Horiek guztiak kontutan hartuta, une honetan Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz ikasten ari den ikasleen kopurua, 3350 ekoa da.

## 6. Ikerkuntza

Gaur eguneko Unibertsitate batetan Ikerkuntza alderdi bazterezina da, eta gure Unibertsitateko irakasleek alderdi hori betetzen saiatzen dira beraien lan-arloetan. Euskararen aldetik azterketa eginez, bi alde egin behar dira ikerkuntzaren alorrean: bata euskararen gainean egiten den ikerkuntza, eta euskaraz egiten den ikerkuntza.

Lehen aldeari buruz, hots, euskararen gaineko ikerkuntzari dagokionean, Euskal Herriko Unibertsitateak azken hamar urteotan eginiko lana ukaezina da, Euskal Filologia Saitetik Koldo Mitxelena Profesorearen ildoak segituz. Gaur egun, gure Unibertsitatea euskararen gaineko ikerkuntza egiteko leku garrantzitsuena bilakatu da, bai Euskaltzaindiaren gidaritzapean eginiko euskararen normalizaziorako lanetan, bai hizkuntzen ezagumendua sakontzeko standardak diren goi-metodologia zientifikoak euskararekin garatuz. Euskal

Herriko Unibertsitateak alde hau lehentasunezko bezala definiturik dauka, eta konpromezu hau aurrera eramango du etorkizunean ere.

Bigarren aldeari buruz, hots, euskaraz eginiko ikerkuntzaren gainean, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek euskara gero eta gehiago erabiltzen dute beraien ikerketen ondorioak gizarteratzeko, eta alde horretan, euskara ikerketa zientifikoaren transmisio-hizkuntza bilaka eraziz - eta ez soilik irakaskuntzarena- hor daude lekuko euskaraz agerturiko Doktorego-Tesiak eta Ikasketa-bukaerako Memoriak, dozenaka kontatzen direnak. Hala ere alde hau, Sailen eta irakasleen esku egonik, ez dago hedatuta nahikoa, eta etorkizunerako konpromezu bezala ikusten da.

Aipatu beharrekoa da Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek aurrikusten duten Euskararako Institutua, bertan izango delarik, Unibertsitateko Gobernu-Batzordeak bere Araudia -eta honekin batera pertsonalaren eta ekonomiaren ikuspuntuak- onartzen duenean, euskararen gaineko ikerkuntza bultzatuko duen Unibertsitate barruko erakunde espezifikoa, gizartearen beste erakundeekin kolaboratuz.

## 7. Unibertsitatearen beste ekintzak

Unibertsitateak, zuzenki eta zeharka, gizartearen gainean eragin handia du, eta ez irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren bidez soilik. Eta Euskal Herriko Unibertsitateak, halaber, gizartearen eragin handia du, batez ere Hedakuntza Unibertsitario deitzen den erakundearen bidez. Horrela Unibertsitateak ekitaldi ugari babestu eta bultzatu egiten ditu, nagusiki Kulturarekin -zentzu zabalenean- erlazionaturik daudenak.

Euskal Herriko Unibertsitateak alor honetan sakon jokatu du azken urteetan, eta euskararen bultzagarri ikusten du bide hau ere. Aipatzekoak dira Argitarapen-Zerbitzua, Unibertsitatearen aretoak ekitaldi kulturaletarako erabiltzea, irakasleen hitzaldiak, eta beste. Zoritxarrez bide hau ez da nahikoa erabili euskaraz eginiko ekitaldietan, eta unibertsitarioek eta gizarteak ez dute erabiltzen -imajinazio-faltaz behar bada- eta ez diote etekin nahikoa ateratzen. Horrela

Unibertsitatean egiten denaren informazio gutxi agertzen da gizartearen baina Unibertsitatekoek ere ez dute esaten bertokoak direnik, eta gaur eguneko euskal kulturaren nonnahi agertzen dira gure ikasle eta irakasleak: bertsolaritzan, kazetaritzan, literaturan, kritikan, eta abar.

Aipatzekoa da, halaber, Unibertsitateak beste erakundeekin dituen harremanak, bai pertsonalak, bai Sailen artekoak, bai instituzionalak: Jaurrlaritzan, Aldundi, Udaletxe, Euskaltzaindia, UZEI,... sare gero eta trinkoagoa osatzen dute, eta hor euskararen tokia gero eta garrantzitsuagoa da.

## 8. Azken hitza

Orain dela hogeita urte Unibertsitate publikoa Euskal Herriarentzat positibo izan zen bezala, orain dela hamar urte Euskal Herriko bilakatu zenean Unibertsitatea euskararentzako oso positiboa dela esan daiteke.

Lan hau, pertsona askoren lana izan da, eta etorkizunean ere askorena izango da: beraiena izan da aurrerakuntza, beraiei eskerrak egin da hemen aipaturiko gehiena. Horregatik, artikulua honen egilea denekin zorretan geratzen da.

Artikulu hau 1990.eko Apiril-Maiatzetan idatzi da, Euskal Herriko Unibertsitatearen datozen lau urteetarako Errektorearen aukeratze-prozesua martxan dagoenean.

*J. I.*



## **Euskal preso politikoen sakabanaketa: Helburuak eta ondorioak**

**Jose Mari Matanzas**

1987ko lehenengo hilabeteetan euskal preso politikoen inguruan lan egiten genuen edota mugitzen ginenok berri harrigarri batek izutu gintuen. "Preso pilo bat atera dute Herreratik eta ez dakigu nora/zertara eramango dituzten!". Horrela zabaldu zen berri hura. Izan ere, berria zabaldu zen erak, zerikusi handia zuen guztiok euskal preso politikoen gorabeherak aztertzeko genuen moduarekin.

Ordurarte euskal preso politiko guztiak elkarrekin bizitzen ziren bizpahiru gartzelatan. Gizonezkoak, beraientzako sorturiko Herrera de la Mancha eta Alcalá-Mecoko segurtasun goreneko gartzeletan. Emakumezkoak, Carabanchelen. Euskal preso politiko guztiak kontzentraturik egotea ez zen kasualitatea (egun sakabanaturik egotea kasualitatea ez den bezalaxe), Madrilgo gobernu ezberdinek ederki planifikaturiko politika penitentziarioaren ondorioa baizik. Gizartearengandik euskal preso politikoen fenomenoak ezkutatu eta sistema penitentziarioan bertan errealitate estanko bat sortu nahiak

eraman zuen Madrilgo gobernua euskal preso politikoak horrela izatera, den denak batera eta gizartetik at. Esan gabe doa ihesaldiak ekiditzeko obsesioak ere bere zerikusia izan zuela presoak gordetzeko era horrekin.

Haatik, preso batzuk Herreratik atera eta barreiatu izan zirela jakiteak presoek senideak, lagunak eta elkartasuna erakusten zietenak erne jarri zituen. Sakabanaketaren lehenengo urrats honek (urrats pilotoa hain zuzen ere) guztira 50 bat preso barreiatu zituen, ondoko gartzeletan: Alicante, Almería, Badajoz, Cáceres, Burgos, Daroca, Dueso, Lugo, Langraitz eta Puerto de Santa Mariakoan. Presoak gartzela hoietara iritsi eta berehalaxe hasi ziren afektaturik suertatu ziren presoek senideak beren artean kontaktuan jartzen arazo indibidualei (garraioa, gartzelako zuzendaritzarekin kontaktua, lurralde horietan sostengu materiala,...) irtenbide kolektiboak emateko. Horrela, kolpea harturik, denbora labur bat pasa eta dena itzuli zen "normaltasunera", "estabilitatera", traslado gehiagorik gabe eta sakanaketa zerbait bukatutzat ulertu zelarik.

Egoera hau, 1989ko apirilerarte luzatzen da, euskal preso politikoak bi motatako gartzeletan egoten direlarik: gartzela handienetan edo dispersatueta. 1989ko apirileko lehenengo astean sakanaketaren bigarren fasea deritzoguna hasten da eta "gartzela handiak" lehertu egiten dira beren baitan zeuden presoak estatu osoan zehar dauden presondegi guztietara ailegatzen dira. La Coruñatik Malagara, Donostiatik Huelvara edo Zamoratik Valentziara. Guztira, 90 gartzelatan daude gaur egun euskal preso politikoak, penintsulatik kanpo dauden uharte eta lurraldeetan (Ceuta, Melilla, Canarias eta Baleares) barne. Izan ere euskal preso politikorik ez dagoen lurralde bakarra Catalunya dugu (behingoz), zonalde honetan dauden gartzelak Generalitatearen kompetentzia direlako eta Madrilgo gobernua ahalegin guztiak egin baditu ere, orain arte Generalitateak uko egin diolako euskal preso politikoak gordetzeari.

Apirilean hasi eta urrirako presoek barreiatzea bukatua zegoen, epe motzean zenbait aldaketa bai, baina mugimendu orokorrik aurrakusten ez delarik.

Nahiz eta euskal preso politikoen aferetan oso jantzita ez egon, begi bistakoa da guztiontzat eta lehenengo unetik neurri hura erabat

politikoa zela, inolako sostengu edo oinarri legalik gabekoa. Izan ere, legealdian ezin topa daiteke zuzenean, argikiro eta zehazki sakabanaketa justifikatzen edo bultzatzen duen inongo erreferentzia legalik. Are gehiago: presoek beren sorterrietatik urrutze/hurbiltzeaz egiten diren erreferentziek hurbiltzearen alde jotzen dute. Horra hor, esate baterako, LPren 8.2 artikulua (nahiz preso prebentiboetaz mintzatzen den, preso guztioi aplikatu dakiekeen artikulua): "En cada provincia podrá existir más de un establecimiento de esta naturaleza". Edota lege beraren 12. artikulua: "La ubicación de los establecimientos será fijada por la Administración dentro de las áreas territoriales que se asignen. En todo caso, se procurará que cada uno cuente con el número suficiente de aquellos para satisfacer las necesidades penitenciarias y evitar el desarraigo de los penados". Edo bi horiek bilakutzen dituen RPko 12. artikulua.

Baina teknizismo legal horiek albo batetara utzita, oso gauza argia da edonorentzako, preso bat bere etxetik aldentzea ezin dela ulertu zigor bezala baino, eta neurri hauek ez dutela kapidarrik sistema penitentziarioak, teoria mailan ez bada ere, dituen helburuetan. 1978ko konstituzioak, bere 25. artikuluan, eta LPak, bere 1. eta 4. artikuluetan, hala nola "exposición de motivos" delakoan, ozenki dute azaltzen zeintzuk diren sistema penitentziarioaren helburuak: gaizkileak gizarteratu, beren izaerak eta baloreak moldatu gizarteak dituen jokurako arauak errespetatu dituzaten eta beste gizakiekin batera, arazorik gabe, bizi ahal dezaten. Honetarako preso bakoitzari neurri batzuk ezartzen zaizkio, bere izaera zehatz eta ezaugarrien arabera, neurri orokorrek baliorik ez dutelakoan eta "tratamiento individualizado científico" delakoaren bidean.

Ildo honetatik legegileak argi ikusi zuen, edonork ikus dezakeenez, komenigarria zela kaleratuko denean hartuko duen testuinguritik presoak hurbil egotea, sustraigabetzerik egon ez dadin.

Horrela dio legeak, logikak berak horrela diolarik. Beraz, euskal preso politikokoekiko beste azpijokorik ez balego, legeak, preso guztiek Euskal Herrian egon beharko lukete, eta inola ere ez beren etxeetatik ehundaka kilometrotara. Eta honen ebidente den konstatazio honek beste azalpen batzuk bilatzera eramaten zuen Madrilgo gobernuak, ondoren ikusiko dugunez, bere neurri honen benetako izaera erreprentatzen zela ustea ez bazuen nahi.

Hala da. Madrilgo gobernuak ezin zuen onartu maniobra guzti hauek beste errealitate zein fenomeno politikoeekin erlazionaturik zeudenik. Presoekiko harturiko erabaki oro neurri penitentziario huts gisa aurkeztu behar du gobernuak, neurri ez-politiko gisa. Eta halaxe egin du.

Sakabanaketa hasi eta jarraian eman zituen Madrilgo gobernuak horretarako arrazoiak. Gauza ezaguna dugu bergizarteratze-politika ("reinscripción" delakoa) hark ez duela arrakasta handirik lortu euskal preso politikoen artean. Egon izan da, bai, zenbait preso, arrazoi ezberdinak direla medio, Bandrés, Azkarraga eta beste pare bat abokaturen bidez bultzaturiko bide honetatik abiatu dena; baina bergizarteratze- bide honek ez du azken lauzpabost urteotan inolako fruiturik eman. Euskal preso politikoei uko egin diote, zalantzarik gabe, irtenbide pertsonalez osaturiko bide honi, besteak beste, zenbait kide defentsarik gabe utziko zukeelako eta, batez ere, beren erakundearen erabateko deslegitimazio politikoa eta gartzelara eraman zituzten eritzi eta erizpideei uko egitea suposatzen zuelako.

Bergizarteratze edo damutze-politika honen porrota bortxatu duten arrazoiak deuseztatzen bide dator, gobernuaren azalpenaren arabera, sakabanaketa. Gobernuak azaldu duenez, ba omen daude oraindino euskal preso politikoen artean bide horri eusteko prest diren batzuk eta hautabide hori ez badute praktikara eraman beldur hutsagatik izan da. Teoria honen arabera, eta ezin da ahantzi teoria hutsa dela, datu zehatzik eman ez delako, euskal preso politikoen kolektiboa hautsita dago, zatiturik. Alde batean normalean odol-delituetan sarturik dauden preso "gogorrek", epe motzean irtenbiderik ez dutenak eta, beraz, gartzelan denbora luzez egonen direla jakinda, beren egoera borroka orokorraren konponbideari lotzen diotenak. Bestaldean, kondena leunagoak dituzten presoak, epe motzean edo ertainean kalera daitezkeenak eta enfrentamenduaren azterketa "errealista"go batean oinarriturik beren egoerari berehalakoxe irtenbide edo konponbide bat bilatu nahi diotenak. Azken hauen artean bat baino gehiago omen dago bergizarteratze-bidetik ateratzeko, baina ez da ausartzen, gogorrek egiten dizkieten presio eta mehatxuak kontuan harturik. Honela preso batzuk bestean gartzeleroak bihurtzen dira eta beren erakundea da, eta ez Madrilgo gobernuak, presoak barruan jarrai dezaten behartzen dituenak.

Egoera honi buelta emateko egin daitekeen gauza bakarra presoak banatzea da, preso bakoitzak, askatasun osoz eta presiorik gabe, auke-ra dezan zer nahi duen egin.

Jakina, Justizi Ministraritzak, nahiz eta galdetu izan zaion, ez du inondik inora argitu zeintzuk diren preso batzuk eta zeintzuk besteak, berriro ere, izenak emateak, bergizarteratze-bidea hautatuko luketenak arrisku bizian jarriko lituzkeela argudiatuz. Are gehiago: gobernuak prest dagoela bergizarteratuekin batera, "gogor" batzuk ateratzeko, zein zein den jakin ez dadin.

Honela, bada, gobernuak teoria koherente bat eraiki du, berak harituriko maniobra horiek -dudarik gabe, neurri gogorrek eta koste politiko bat suposatuko diotenak- justifikatuko dizkiona. Edo, hobeto esanda, justifikatuko lizkioketena, euskal preso politikoeak, gertatu den bezala, beren praktika politikoarekin gobernuaren teoriaren aspektu guztiak kolokan jarri eta ebidentzian utzi ez balizkiote.

Gobernuaren asmoak nondik norakoak ziren erreparaturik, euskal preso politikoeak laster ulertu zuten gauzak beren lekuan jarri behar zirela, toxikazio informatiboa bertan behera utziaz. Horrela, nahiz eta 90 baino gartzela gehiagotan banandurik egon, eta koordinaziorako oztopo guztien gainera, abuztuaren lauean euskal preso politikoeak agiri bat plazaratu zuten. Agirian, gobernuaren teoria zeharo apurtuaz, euskal presoek beren batasuna eta homogenetasuna azpimarratzen zuten eta sakabanaketaren (eta sakabanaketarekin batera hartzen ari ziren gobernuaren beste zenbait ekimenen) izaera errepresiboa eta zapaltzailea azaltzen zuten. Laburbilduz, presoek egiten zuten azterketaren arabera, Aljerian burutzen ari ziren Euskadi eta Askatasuna eta Madrilgo gobernuko ordezkarien arteko solasaldi politikoak moztu zirenean Madrilgo gobernuak, erakunde armatua zuzenean suntsitzeko ezintasunak eraginda, zeharkako presioei ekitea erabaki zuen. Honela uste izan zuen, presoak, defentsarik gabeko egoeran egonik, katearen katebegi ahula izango zirela eta posible zatekeela presoek egoera gaiztotzea, presoek berek, beren itomenean, erakunde epe laburreko erreindizio batetara bultzatzea. Bi etsai gogorren artean, presoak alde batean bahituak dira, bestearen aurka erabiliak izateko.

Azterketa honen ondorioz, presoek berriro ere irtenbide orokor politiko baten alde jo zuten, beraien artean inolako diferentziarik onartzeke, eta eskakizunen zerrenda baten alde borrokan sartzea erabaki zuten, abuztuaren lauean bertan protesta bezala autotxapeo-dinamika bat hasiz, eguneko 24 orduetatik 23 orduz beren ziegetan, irten gabe geldituz.

Erantzun honek Madrilgo gobernua haserretu egin zuen, eta honek gartzeletako bizitza-baldintzak gaiztotu egin zituen, mehatxuak, tratu txarrak eta jipoiak (komunikabideetan agertu denez) ugaldtu zirelarik. Hala ere, borrokak aurrera jarraitu zuen eta abenduaren 15ean, presoak gose-greban sartu ziren, astebate beranduxeago gose-greba bera eta borroka utziz, kaletik altxaturiko elkartasun-ohiuei arreta jarritz eta erantzun politikoa emanik zegoela baloratuz.

Borroka eta gero, euskal preso politikoei banandurik jarraitzen dute, gobernuak ez duelako amorerik eman eta, askotan aitortu dutenez, sakabanaketa, maniobra estrategikoa delako, geroari begira pentsaturik, etorkizunean bere fruituak emango dituen, ondoko atalean ikusiko ditugun gogoetak kontuan harturik.

Sakabanaketaren bidez gobernuak bilatzen duen helburu bakarra, irakurketa faltsu eta interesatuak bazterturik, euskal preso kolektibo apurtzea da. Euskal preso politikoen existentziak berak, min ematen dio estatu espainolari, estatuaren akatsak eta gabeziak egerian utziz. Beraz, kolektibo honen sendotasuna eta heldutasuna puskatzea izan da betidanik estatu espainoleko gobernu ezberdinen asmoa. Eta euskal preso politikoei beraien salaketa politikoarekin jarraitzeko duten borondate irmea apurtzeko, gobernuak pentsatu izandu du errazgoa izanzen dela banandurik izatea elkarrekin izatea baino.

Gaur egun, gartzela bakoitzeko, 5-7 euskal preso politiko dago gutxi gorabehera. Baina kontuan hartu beharra dago gartzela bakoitzaren barnean modulu ezberdinak daudela, modulu batetik beste modulu batera inolako harremanik ez dagoelarik. Beraz, leku guztietan ez baina askotan bai, euskal preso politikoa bakar bakarrik dago, bere kabuz, bere erakundeekiko kontakturik gabe, lagunek eskaintzen duten sostengurik gabe. Kasurik normalenean bere ondoan preso sozialak izango ditu. Hala ere, kasu batzuetan, euskal preso politikoa,

erabateko isolamenduan dago, bere inguruan ez preso-lagunik ez preso sozialik egonik. Kasu hauetan, egunean zehar mantentzen dituen harreman guztiak funtzionarioekin izaten dira, etsaitzat hartzen duten funtzionari horrekin, bazkaltzeko/afaltzeko edo patiora jaisteko atea irekitzera joaten zaizkionean. Ez da, beraz, harritzekoa zenbait euskal presorengan, pairatzen ari den errepresio ezkutatu horren ondorioz, bilakatzen ari den prozesua, aditzeko, ulertzeko eta adierazteko edo mintzatzeko arazoak agertzen hasia izana.

Isolamendua hain erabatekoa ez bada berriz, preso sozialak ditugu euskal presoarekin bizitzen ari direnak. Estatu espainoleko gartzelertako biztanlegoaren gehiena drogamenpekotasunarekin loturik dago, izan ere, drogamenpekoak dira gartzelatan nagusi, nahiz eta gartzelak, dituzten errekurso eta bitarteko eskasak kontuan harturik, beraientzako tokirik egokienak ez izan. Aise ikusten da euskal preso politikoak oso gauza gutti duela amankomunean bere inguruan dauden preso sozial horiekin eta beraiekiko harremanak oso murriztuak direla, funts-funtsezko asuntuetan.

Kasu bietan, preso sozialekin edo bakar bakarrik egonik, euskal preso horrek sufritzen duen isolamenduak oztopatu eta ezabatu egiten du bere bilakaera pertsonala, bere izaera soziala, beste gizakiekiko harremanik gabe utziz, landare bat bezala bizitzera kondenatu nahian.

Eta hau gutti izango bailitzan, sakabanaketak, kasu askotan, burkideengandik banandurik egoteaz gain, beste isolamendu bat ekar lezake, hots, kalean gertatzen ari denaren isolamendua. Gartzela Euskal Herritik hurbil egonez gero, ez dago arazorik. Baina kasu gehienetan sakabanatzeak, Euskal Herritik urruntzea suposatu izan du, etxetik 700, 1.000 edo inkluso 3.000 kilometrotara. Honela, senideen bisitak, gero eta guttiago izaten ari dira, haruntza joateko, lehengo ta behin, denbora behar delako; horrez gain, dirua; eta, azkenengoz, osasuna. Kontuan hartzen badugu gaur egun euskal preso politikoek ez dutela lagunuen bisitarik izateko eskubiderik, oso panorama beltza aurkezten zaie kalearekiko kontaktua izateko. Zuzeneko senideek ez dituzte bisitatu behar, eta, maiz, ez dago familian horren zuzeneko senide askorik. (gurasoak, anai-arrebak, seme-alabak). Edota, sarritan gertatzen den bezala, lan egiten dute senide horiek eta ezin dute bizpahiru lanegun galdu bisita egiteko. Edo ta ez dago

etxean behar bezalako dirutzarik nahi beste bidaia egiteko. Edota jende heldua da bidaia egin behar duena (gurasoekin askotan gertatzen den bezala), halako bidaia neketsua egiteko gogorik/indarririk gabekoa. Edota...Ez dezagun ahaz garraio eta diru-kontuei saka-banaketa baino lehenago senide guztien artean egiten zitzaizela aurre: gaur egun hori ezinezkoa da.

Isolamendu honek badu, bestalde, ondorio politiko zuzen bat. Horrela egonik eta kalean eta beste garteletan zer gertatzen ari den jakin gabe euskal presoek kolektiboak erantzun eta dinamika bateratuak hartzeko konpondu ezinezko arazoak izanen ditu. Orain arte kolektiboa karakterizatzen duen ezaugarrietariko bat, hots, erantzun kolektiboak ematea, desagertzen da. Gartzela bakoitzean gartzela horretako arazoei egin behar izango zaie aurre, beste garteletatik lehenago etortzen zen laguntzarik gabe, batasunak ematen duen indarririk gabe. Era berean, kolektiboak ezin izanen du eztabaida politiko seriorik izan, bere egoeraz eta konfliktu osoan jokatzeko ari den papez. Honela gobernuak irtenbide pertsonalak, poliki-poliki nagusituko direla espero du.

Azaldutako guzti honen ondorioz euskal preso politikoa bakartasun osoan dago kasu askotan. Beste batzuetan presoaren egoera ez da horren gogorra, eta badaude euskal preso politikoa elkarturik dauden gartzelak, edo familiarren bisitak direla eta problemarik ez duten presoak. Baina, tamalez, guttiengo bat dira azken hauek. Edonola ere, politika honek ondorio fisiko eta psikikoak dakartza, eta hortxe, desgaste fisiko eta psikiko horretan, datza gobernuaren itxaropena, zenbait preso, egoera muga horretara iritsita, gehiagorik jasan ezin eta bere jarrera politikoa utziko duelakoan. Kepa Aulestiak abixaturiko "reinsertados a la fuerza".

Bukatzeko, ezin dugu ahaztu sakabanaketa, urrutze eta banatze fisiko bezala ulertua, ez dela berekasa bilakatzen ari den tresna bat, politika penitentiario oso baten parte bat baizik, orain ikusiko ditugun beste tresna osagarriekin batera aztertu behar duguna.

Sakabanaketak berak sorteraizten dituen arazoez gain, era berean, paraleloki, gobernuak beste bi tresna martxan jartzea erabaki zuen.

Alde batetik euskal preso politikoa bizi ziren baldintzak gaiztotzea. Orduarte euskal preso politikoez ezagutzen zituzten bizitza-



baldintzak onak ez baziren ere (eta estatu espainoleko sistema penitentziarioa sarraski-gartzelen sistematzat ematera eraman gaituztenak), egia zen legeak aukera gehiago ematen ziola gobernuari preso politikoen lepoa gehiago estutzeko. Horrela, urte askoren borrokari esker lorturiko gartzela barneko eskubideek egundoko murrizketa ezagutu zuten. Exhaustiboak izan gabe, horra hor, abstraktuak ziren segurtasun-arrazoietan oinarriturik, aplikatzen hasi ziren neurri batzuk:

- Abokatuekiko kontaktua murriztu, zehazki deituriko abokatuaren figura desagerteraziz.
- Lagunen bisitak debekatu, bisitak zuzeneko senideengana murrizten direlarik.
- Kanpotik (kaletik) etorritako sendagileen asistentzia debekatu, barruko medikuekin konpondu behar izango dutelarik (kontuan hartu dagoeneko sei direla gartzelan hil diren euskal preso politikoak, kasu batzuetan ekipo mediku horien utzikeriarengatik, eta sendagileak -gartzelakoak- kasurik gehienetan presoak etsaitzat hartzen dituztela).
- Korrespondentzia guztia erretenu (beranduago emateko) eta interbenitu (miatu, oso osorik irakurri); aipaturikoa, presoek jasotzen duten korrespondentziari dagokionez; beraiek kalera-tzen duten korrespondentziari dagokionez, interbenitu eta kopurua murriztu -bi gutun astean-.

Goian aipatu ditugun lau tresna horiek erlazio zuzen-zuzenean daude sakabanaketarekin, guztion artean erabateko isolamendua gauzatuz.

- Patiora irteteko orduak murriztu -kasu askotan, ordu bakar batetara-.
- Errekontuak eta miaketak ugaltu.
- Gartzelako instalazio amankomunak -liburutegia, kiroldegia, ikastola,...- erabiltzea debekatu.
- ...

Neurri hauen izaera errepresiboa oso argia da, aitzaki bezala aipatzen diren segurtasun-arrazoiak ordurarte ez baziren existitzen,

neurri horiek indarrean jartzea justifikatzen zuen inolako aldaketarik -Aljeriako elkarrizketa politikoen haustura ezik- gertatu ez zelako izan zen.

Bestalde, ordurarte ia euskal preso politiko gehienak erregimen berdinean bazeuden ere, (erregimen bakoitzak bizitza baldintza zehatz batzuk suposatzen ditu), une honetan hasi zen gobernuaren presoak erregimen ezberdinetan banatzen, preso batzuk eta besteok bizitza-baldintza ezberdinak izan zituzten. Aitzakia, sakabanaketa arrazointzeko berbera zen: "gogor"ei erregimen gogorra, bizitza-baldintza latzekin; "bigun"ei bizitza lasaiago bat, baldintza xuabeagoekin. Eta helburua, berriro ere, kolektiboaren barnean diferentziak sortaraztea, presoaren artean (zer esanik ez, beren senideen artean eta, oro har, eritzi publikoan) mesfidantzak eta susmo txarrak zabal zitezten eta batzuen gainean eroriko zen zapaltze ikaragarria besteonganako flexibilitateaz legitimatzeko.

Arazo bi hauetaz atera zuten beren adierazpena euskal presoek, beren eskakizunen zerrendan guztientzako, denak erakunde politiko beraren militanteak direlako, erregimen bakar baten bizitza-baldintza duinak eskatuz. Hala ere, eta sakabanaketarekin gertatzen den bezala, bi hauek ere "cuestión de estado" omen dira eta zutik dihardute oraindino.

Geroari begira gure aurrikuspenak ezin dira, dagoenari so egiten badiogu, oso optimistak izan, eta ez du ematen gobernuaren politikan aldaketa nabarmenik egongo denik, Alde batetik, ez deritzogu probabile joaniko urte honetan izaniko mugimendu orokorraren antzeko beste zerbait egoteari, lehengo fase honen helburuak bete direlako, presoak barreiatuak daudelarik. Baliteke, eta 1990eko lehendabiziko bost hilabeteok horrela adierazten dute, gobernuak traslado selektiboek ekitea, presoak ongi eta erizpideekin hautatuaz, bi helburu ezberdinekin. Batzutan, presoak beren gartzelan antola ez daitezten eta dinamika politiko sendo bat har ez dezaten (zeren eta, nahiz eta gartzela batetan preso gutti egon, gertatzen ari bait da erresistentzia politikorako multzoak agertzen zaizkiola gobernuari gartzela askotan, preso sozialak "kontajiatzeko" arriskuarekin). Bestetan, fisiko edo psikikoki ahul egon daitezkeen presoak dira aukeratuak, zorabiatzeko, nahasteko, desoreka (inon ez bizitzeak sortzen duen desoreka) sortertzeko, gehiago zapaltzeko.

Ildo horretatik bati tokatuko zaion gartzela xantaiarako tresna bihurtzen ari da eta gartzelako zuzendaritzak dituen nahiak betetzen ez dituzten presoak traslado posible batez mehatxatuak izaten dira. Horrela bada, berriro agertzen zaigu sakabanaketa eta beste bi tresna horien arteko osagarritasuna (kasu honetan, erregimenaren onespena).

Hirugarrenez, soma daitekeen joera are ilunagoa da, ematen ari diren azken traslado selektiboak, kasu gehienetan, Euskal Herriatik urrugo egoteko diseinaturik daudelako, beti zigor-neurri bezala, Andalusia, Zeuta eta Kanariak preso euskaldunon ezinbesteko norakoak bihurtzen ari direlarik.

Ez guke dagoenaren deskripzio hau bukatu nahi gogoeta serio bat egin gabe. Presoen sakabanaketa, gure ustez, enfrentamentu politiko orokorrago baten barnean ulertu behar da. Dударik ez dago presoak enfrentamentu honetan parte diren alderdi baten alde daudela, beraiek argi azaltzen dutenez. Baina honek ez digu baimentzen funtsezko galdera bati erantzunik ez ematea. Eta galdera simple bezain gogor hori hauxe dugu: etikoa ote den enfrentamentu horretan bahituak egotea eta instrumentalizatzea, inkusio bahitu hauen giza esku-bideak bortxatuz (aurreko atal batean azaldu dugunaren arabera). Euskaldunok gure buruari galdetu behar diogu, hasteko, sakabanaketak presoen giza-esku-bideak zenbaiteraino bortxatu egiten dituen ala ez, eta bigarrenez, bahituen erabilpen hau legitimoa, etikoa den ala ez.

Orain arte, tamalez, euskal alderdi politikoetatik soilik batek, HBk, gaitzetsi du, zalantzarik gabe, Madrilgo gobernuaren politika hau. EAJ, EA eta EEK, zoritxarrez, begi onez ikusten dute presoen eta beren familien itomen hau, inolako kritikarik egin gabe eta, edozein kasutan, ixiltasun gaizkidearekin. Begibistakoa da alderdi hauen jarrreran bestelako arrazoi politiko-estrategikoak badaudela.

Euskal gizartean, bortxakeria/giza eskubideak/helburuen moralak bitartekoen moralaren arteko gatazka lehertzen ari da. Nahitahiezkoa dugu norberak bere eritzia azaltzea.

*J.M.M.*

## Gogoetarik gogoeta

Rufino Iraola

*Jakin*-en 56. alea hartu eta 149. orrialdean irekitzen duenak, Joxe Azurmendiren "Nietzsche, Jünger: anekdota batek esanahi paradigmaticoak" izeneko artikuluarekin egingo du topo. Beti izan dira zail, gogor eta lehor antzekoak Azurmendiren gaiak eta, ondorioz, hizkera. Baina oraingoan, inoiz ez bezala somatu dut garrasika. Oihu ozen, lanturuz, angustiaz eta etsita bezala ikusi dut Zegamako filosofoa.

Begiratu batera, E. Jünger Euskal Herriko unibertsitateak "Doktore honoris causa" izendatu izanaren kontrako protesta dirudi. Sakon-sakonean, ordea, beste problemarik ere planteiatu nahi du Azurmendik. Besteak beste, nire uste apalean, borroka armatua esplikatzeko dauden arrazoiak jarri nahi dizkigu begibistan zegamarrak. "Bi komunitate" kontzeptuari edukin berria ematen saiatzen da, interesatuki, nik uste. Eta bakea askata-

sunaren aurretik jartzeko, gizarte deskristautu honetan, oinarri moralik ez dagoela frogatu nahi du.

Neuk ere, Jünger-enari ez baizik Jünger-ena aitzakiatzat hartuz planteiatzen duenari helduko diot. Nik hel diezaiokeidan neurrian noski.

Ajurianean "Anti-ETA blokea" osatu zenetik bi komunitateen mekanismoak "makina baten burdinazko perfekzioarekin" funtzionatzen duela kulturaren, prentsan, erlaziotan eta gizarte zibilean dio Azurmendik. Kontraesan nagusia, abertzaletasunaren izatetik demokratismoarena izatera pasatu omen garela. Horrela, nazio-arazoa bigarren planoan geratzen omen da "abertzale" entzat berentzat ere, indar politikoak polarizatzen dituen "demokrazia" delarik. Komatxoak Azurmendirenak dira. Bere arrazoiketari erne jarraitzen baldin badiogu, erraz ohartuko gara, zeintzuk diren "abertzaleak" (komatxo artean) eta nortzuk benetako abertzaleak: HB eta familia osatzen duten beste senideak.

Kontua da, herri honetan jende asko dagoela sofismo hori onartu nahi ez duena. Euskalduna izateko, euskara lantzeko, *Jakin* eta beste aldizkari batzuk irakurtzeko, euskal kulturaren murgiltzeko, hitz batean, abertzale izateko ez dugu HBren inguruan egon beharrik sentitzen. Zer da gero ABERTZALE eta DEMOKRATIKOren artean kontraesana sortu nahi hori? Zergatik ezin daiteke izan, herri honetan, abertzale demokratikoa? Hori bai, guk pragmatismoari ez diogu zentzu peioratiborik ematen, posibilitateak neurtu egiten ditugu eta orain arte lortu duguna positibotzat jotzen dugu.

Azurmendik, inongo soziologok egingo ez lukeen moduan, "variable" edo aldagai bakar baten gainean eraiki nahi luke Euskal Herriko ideologiaren estruktura osoa. Joxek aipatzen duen kontradikzioaz gain, zutik diraute betikoek ere: abertzaletasuna/espainolismoa; ezkerre/eskuina; fundamentalismoa/progresismoa... Baina bizi beharrak lanak ditu eta, bizi behar horrek eraginik, baliteke gaur egun "borroka armatua/anti-ETA blokea" dei genezakeen kontradikzioa gehien nabarmentzea. Hein handian, biolentziak berak ezarri duen dinamikari zor zaio bestalde.

Bakea denoi interesatzen baldin bazaigu, oso urjentea da kontradikzio hau superatzea.

Orain artekoa ikusita, hemen jende askok honela funtzionatzen du: "borroka armatuak abertzaletasuna defendatzen du, horrek ez du borroka armatua onartzen, beraz ez du abertzaletasuna defendatzen". Hori honako hau bezain faltsua da: "Italiarrak europarrak dira, alemaniarrek ez dira italiarrak, beraz alemaniarrek ez dira europarrak". Esplikaziorik behar?

Bestetik, HBren inguruko munduak eskusiban eta bloke monolitikoetan eskaintzen digu dena: Euskara, kultura, ikastolen egunak, presoak, borroka armatua eta denekin bat eginez lista itxiak aurkeztzen ditu. Eta lista itxiak badakigu zer esan nahi duten: dena hartu behar edota dena utzi. Taktika hori salatu beharra dagoela uste dut. Horrek bultzatu bide du Joxe Azurmendi egunkari bat "demokratekin" eta "biolentzokkin" batera egin ote daitekeen galdetzerara. Posible izango da, nire ustez, lista irekierkin funtzionatzen uzten zaigun neurrian.

Dena dela, bi komunitateen kontua egia baldin bada, Ajurianeko hitzarmena baino lehenagokoa da problema. ETAK eta bere meneko blokeak Euskal Herriko gehiengoaren borondatea ez errespetatzea erabaki zutenekoa. Hain zuzen, dinamika horren ondorioa ez al da Ajurianekoa?

"Nire opzio pertsonala, opzio posible eta moral bakartzat aitortzen dudanean eta beste opzio moral posiblerik toleratzen ez dudanean, posibilitate bezala ere" hasten omen dira kontuak. Postura horixe ez al da, ba, hain zuzen, biolentziaren suari aragiten diona? Eta biolentziaren ilegimitatea probatzen hasi behar al dugu orain, Joxe? Zuritzeko mila espelikazio ematen baldin badituzu ere, urnetara hurbiltzen zaren bakoitzean, zu zeu ari zara biolentzia ilegimitatzen.

Geroago, desesperazioaren gurditik salto egin nahian bezala (tonuarengatik diot) "printzipio guztien dimisioa, ideal guztien merkealdia amets guztien ilunabarra, desertzio, errendizio soila, gehiengoaren artaldean babes hartzea" eta ez dakit zer gehiago botatzen dituen. Idealismo eta errealismoaren arteko oreka aurkitu nahi bat, adinarekin berez datorren baretzea eta erradikalis-

moa guztiek berekin dituzten gehiegikeria batzuk alde batera uztea ez baldin bada, gure ideialek lehenean dirautela uste dut. Litekeena da herrigintza abstraktutik konpromezu konkretuetara pasatzea. Litekeena da gaztea, orokorrean, formatu nahi izan ordez zeure seme-alaben heziketa konkretuaz arduratu nahi izatea, baina hesterik ez. Dena den, dimisioa presentatu duen asko dago beste bandoan ere. Zenbait hankabiko dabil hemen kasik inoiz ezertan busti gabe lasai amorratu, gero "gora ETA militarra" oihu egite hutsarekin dena egina dagoela uste izateko?

Beste intentu batean "deportazioak, telefono-entzuteak, ertzainen posta-tiraketak, torturak, presoek sakabanaketak..." denak kontestu horretan sartzen ditu. Berriz ere lista itxiak. Jende asko dagoela, ba, herri honetan, Joxe, ez ETArekin eta ez Feliperekin dagoena! Lista irekiekin funtzionatu nahi dugula, ba! Irekiekin ezin baldin bada, gutxienez askorekin.

Grazia aparte egiten dit goizero periodikuan irakurtzen ditugun egia ofizial eta brebiario kontu horrek. Herri honetan, berriro ere, hiru eratako kolektiboak daude: mutur bateko egia ofizialak publikatzeko brebiarioa dutenak, beste muturrekoak argitaratzeko dutenak, eta brebiariorik ez dutenak. Beraz, hemen ere "zozoak beleari, ipurbeltz".

Kanpoko inbertsioak direla eta, Galiza Euskadirekin gonbaratuz, han ez dagoela ETarik, baina inbertsioak zer moduz ote doazen galdetzen du. Ez du daturik ematen; ezta datarik ere progresioa sinkronikoki ikusi ahal izateko. Dena den, nik badut datu bat. Euskadiko langabezi tasa Estatuko media baino bi puntu altuagoa omen da. Ezer esan nahi al du? Ez dakit. Nolanahi ere, Azurmendiren sententziak gisa honetakoa izan beharko luke: "Begira, ETari esker zenbat inbertsio lortu duen Euskadik".

Bizitza pribatuan "autonomia, libertatea; publikoan segurantzia, ordenua, ongizatea,..." eskatzen ditugularik, bizitza pribatu eta publikoaren artean kontraesanean bizi omen gara. Ez dut ulertzen segurantzia eta libertatearen artean edota autonomia eta ongizatearen artean zer kontradikzio egon litekeen. Aitzitik, prozesu beraren bi sekuentzia bezala ikusten ditut. Baliteke nik ongi ez konprenitzea guzti horren mamia.

Geure buruaren gainean armiarma-sarea josten ari omen Estatua. Boterearen atzaparrak gure logelaraino iristen omen dira. Neurri batean hori ez dago ukatzerik. Hala ere, Orwel-en zita horrekin ez nago konforme. Nire ustez, bai "Abereen etxaldea"n eta bai "Orwel 84"ean kritikatzeko duena beste sistema politiko bat da. Nik badut lider berriak, intelektual eta filosofo berriak sortuko diren esperantza eta ekilibrio apur bat lortuko ahal dugu. Sortuko ahal dira Gorbatxob berriak.

Soluzioa borrokan jaikitzea omen da. Baina zein borroka klasetan da kuestioa. Postura estoikoak neuri ere ez zaizkit gus-tatzen, nahiz eta batzutan horiek ere beharrezkoak diren. Hobe, noski, soluzio politikoak. Kausa baten aurrean opzio asko dau-denean, denek kondizio berdinetan defenditzea da etikoena.

Abertzalegoaren fragmentazioaz ere badio Azurmendik gauza gogoangarririk. Niretzat, berriz, hori ez da inolako trajeria. Trajeria sortzen duen kausa bakarra, opzio guztiak demokratiko-ki ez onartzea da. Bestalde, abertzaleen artean abertzalegoak badaudela frogatu nahi du filosofoak. Hori onartzen ez bada, "zergatik ez onartu horietako edozein bezain abertzaleak direla PP, CDS, PSOE?" esaten du intentzionalitatez, nik uste. Euskal Herriaren azken helburua lortzeko biderik egokiena objektiboki zein den esatea oso zaila da oraingoz, dena teori mailan planteiatzen bait da. Sentidu horretan zaila da abertzaleago nor den esatea. Baina abertzaleak zein eta zein ez diren esan deza-kegu: Lehenengok Euskal Herriaren azken helburu hori onartu eta asumitu egiten dute; disposizio onean daude. Bigarrenengok ez dute onartzen, ez asumitzen eta ez dute disposizio onik. Kuestioa da, abertzaleen beraien arteko diferentziak demo-kratikoki dirimitzea.

Izan ere, demokrazia berez eta bere baitan, medio nahiz hel-buru bezala, balore handi bat da. Eta Azurmendik hala sinets erazi nahi baldin badigu ere, "Los Estados Unidos satisfechos por la falta de protestas contra el gas lacrimógeno" bezalakoak entzun beharrak ez dauka zer ikusirik demokraziarekin. Hori parlamentuan harturiko erabakia izan zen jakin nahi nuke lehenik, eta hala baldin bada, garbi dago demokraziaren inter-



pretazio oker bat dela. Kutxilo bat ere txarrerako erabiliz gero, makurra da; baina egileak ez du errurik, txarrerako darabilenak baizik.

Benetako demokrata batek inoiz ez dizu onartuko torturarik edo Santi Brouardena bezalako asesinaturik. Asesinatu guztiak faxistak dira. Baina biolentziaren kontra protestaka kalera ateratzen direnek ez daukate zerikusirik ekintza higuigarri horrekin. Protestaka ari direnak kutxilogileak dira. Eta haiek onerako burutu duten obra norbaitzuk txarrerako badarabilte, horrela darabilten horiena baizik ez da erantzukizuna. Demokratek egin ezin dezaketena, zera da, norbaitek txarrerako erabil litza-keela eta, kutxiloak egiteari utzi.

Noski, problemak "polis" mailan konpondu behar direla. Baina ez dakit "politika" hitza sentidu etimologikocgian ez ote duen erabiltzen Azurmendik. "Polis" a, abstraktuan, ez da ezer. Jende konkretu batek edota jende-talde konkretu batzuk osatzen dute "polis" a. Politikaren eginkizuna, "polis" plural hori eratu eta elkarbizitza garantizatzea da.

Laster omen gara segovianoek edo badajoztarrek bezala pentsatzen. Jadanik ez al dago jende asko, hemen, segoviarrek bezala pentsatzen duena? Beti egon da. Baina horrek ez luke problema izan behar. Errealitate hori ikusi nahi ez dugunean sortzen dira problemak. Alabaina, errealitate hori dagoela aitortzeak eta aintzakitza hartzeak ez du esan nahi, inolaz ere, onartze hutsarengatik bat abertzalea ez denik. Demokraziak zerbitu behar liguke problema hori soluzionatzeko ere. Eta aurrena geure artean soluzionatu, gainera. Eta zenbat abertzale dago gure artean, berak aldarrikatzen duen Euskal Herri euskaldunear bizitzerik izango ez lukeena? Hori ez al da kontradikzioa?

"Egiaz deskristautu bagara ... Munduan egoteko zein da gure morala?" galdetzen du gero. Kristau-morala atzentzeak ez liguke problemarik sortu behar. Izan ere, kristau-morala al da behar duguna? Nire moralak ez luke determinatu behar nire jokabidea, baizik eta nire jokabideak nire morala. Gauza bat, ona delako egin behar da ala egin behar delako da ona? Moralki egiaz jokatzekotan, legea betetzea berez ona delako bete behar

genuke, eta ez, legea betez gero saria lor genezakeelako edota zigor gaitzaketelako.

Estatuaren biolentziari ere dedikatzen dio lerrorik. "Gauzarik 'bidezkoena' iruditzen zaigu soldaduska: zergatik ez arrazoi politikoz egindako edozein pertsonaren bahiketa?" galdetu, deportazioak eta beste kontsiderazio batzurekin jarraitu eta justizia (tribunalak) Estatuaren indarrezko aginpideak astoegia eman ez dezan baizik ez direla sententziatuz amaitzen du. Asuntu konplexua eta sinplifikatzen zaila, benetan! Dena den, derrigorrezko soldaduskaren kontra gauden bezalaxe, helburuak justifikatzen duen moralean sinesten ez dugulako, xede ekonomiko-politiko-engatik burutzen diren sekuestruen kontra gaude. Sekuestru horietan diskriminazioa eta agrabio konparatiboa nabarmena bait da. Eta ez da sekuestratua bere jokabidearengatik juzkatzen. Ez da justiziaren izenean egiten, baizik eta autoreek beren ideiak defendatu eta azioak egiten jarraitu ahal izan dezaten.

Antimilitarista batek, ejertzitua, berez txarra iruditzen zaiolako errefusatu behar du eta, ondorioz, ejertzitu guztiak gaitzetsi. Baina "soldaduska honi ez" oihukatzen dutenak ejertzitu-mota baten deuseztapena bakarrik eskatzen ari dira. Postura hori eta borroka armatuarekiko sinpatia, ez dira argumenturik txarrenak beste ejertzitu guztiak legitimatzeko.

Justizia eta tribunalekin beste horrenbeste gertatzen zaigu. "Estatuaren morroi eta moztarroak" direla esateak batere ez du balio, gero behin eta berriz, manifestazio bat debekatu digutelako (portzierto, zenbat manifestazio egin dira, herri honetan, tribunalei esker?), Konstituzioa akatatzeko erabili dugun formula onartu ez digutelako eta beste mila asuntugatik tribunal horietara jotzen baldin badugu. Espelikazio guztiak alferrikakoak dira; objektiboki denok dihardugu Justizia legitimatzen.

El Salvador-eko biolentzia txalotzen duten bitartean, etxekoa kondenatzen dutenentzat hitz gogorak darabiltza Joxek. "Pistola bat ez al da ba pistola bat mundu guztian?" botako dizu. Pistola beti pistola izango da; eta erabiltzeko egina dagoela suposatzen da. Noiz erabili eta noiz ez, hori da problema. Nolanahi ere, El Salvador-eko egoera eta hemengoa alderagaitzak dira. Gosea,

analfabetismoa, osasun-atentziorik eza, gobernu tirano baten errepresio indiskriminatu eta basatia...hitz batean, hango miseria ez da hemengo kasua. Hala ere, aspekturik inportanteenetako bat ez al da efikaziarena, hain zuzen? Sandinistek Somozaren kontra lortu zuten garaipena ukaezina da. El Salvador-eko gerri-lak beste horrenbeste egin dezakeela ametitu beharra dago. Baina Irlanda edo Euskadik garaipen militarra lor lezaketenik optimistenek ere ez dute sinesten.

Gaur egun aurkitzen garen marko soziopolitikoak ez du jadanik bueltarik. Epe motxera ez behintzat. Mundu osoak erre-konoziturik daukan erregimen bat hori eta horrenbestez gainera ez dago pikutara botatzerik. Alferrik dira ahalegin, sakrifizio eta sufrimendu denak.

Zeharka bederen galdetzen du, baita, ea aurreko etapan onartu eta orain ez onartzeko zer gertatzen ote den ere. Aurreko etapan, beste faktore askoren artean, borroka armatua bat gehi-ago zen. Baina, beste faktore guztiak edo gehienak desagertu direlarik, borroka armatuak bakarrik ezin dezake inolaz ere buru eman, nire eritzi apalean noski.

Baina efikazia eta beste kontsiderazio batzurekin batera, Herriaren borondatea ere erabakiorra da. Euskal Herriak gaur gaurkoz ez du borroka armaturik nahi. Eta horrek ez du bueltarik! Herri honen kontzientzia manipulaturik dagoela eta ez dakit zer argumentu gehiago eman litezkeen, baina ez dute balio. Hemen ez dago El Salvador-en dagoen analfabeto-tasarik. Mediatizazio batzuk gora-behera, egon badago kriterio eta eriz-pide autonomoak osatzeko modurik. Hori gabe ezin uler liteke Euskadiko boto-dispersioa.

Okerrenean ere, aita operatzera eramán nahi zuten seme-ala-ben kasua da gurea. Derrigorrean eramán nahi izan zuten arte, "Ezetz eta ezetz" hark. Onez onean hartu zutenean, ordea, ko-mentzitu eta bere borondatez joan zen klinikara. Inork ez du es-kubiderik, gurasoa nahiz beste edozein pertsona indarrean eta bere borondatearen kontra kirofanoan sar erazteko.

*R. I.*

## Politikatik zer itxaron kulturari

Joxe Azurmendi

Gizarte desintegratua gara. Politikoki. Linguistikoki. Ez dugu ahaztu behar, zein koinaturatan egiten den kultur lana. Gu hemen gizarte txikitua gara. Nazionalki. Sozialki. Kulturalki. Belaunaldien arteko segipenean bertan. Historia ere puskatuta daukagu. Puskatuta daukagu, euskalduna edo baskoa izatea zer den kontzeptua bera. Nik uste dut, gutako bakoitza ere barrutik puskatuta bizi garela, Goethe-ren bi arimatan ez, baina mila joratan, kontraesanetan.

Interesatzen ote zaio Euskal Herriko gehiengoari euskal kultura? Berreskurapen kulturala? Ziur-ziur ez dakit. Baietz ematen du. Estatistika kontua litzateke. Dena dela, hemengo politika, oraingoz, errealitate edo fikzio horren gainean dago eraikita. Helburu bezala, berreskurapen kulturalak, berrintegrazio politikoak, sozialak, printzipioz bederen onartua dirudi Nafarroako zein Estatuaren Komunitate Autonomoko erakundeetan, nahiz

gero Alderdiek modu desberdinetan ulertu eta metro desberdinez neurtu. Hemen bildu garenok ere, fikzio edo itxaropen horretan gabiltza lanean eta borrokan, bakoitza bere modura.

Bada zerbait. Beharbada praxian ez (praxian ez du ematen ezer asko denik). Baina gutxienez bai desiderata batzuk aitortzeko unean, besterik ez bait dizuet egingo, HBko jendeari mintzo natzaiola kontu eginez.

Politikatik zer itxaron kulturaren, aurren-aurrenekoa, esango nuke, beregaintasunaren onarpena dela kultur lanari eta kultur lanetako jendeari. Kultura eta kultur lana autonomoak dira politikatik. Ez da hemengo eta oraingo problema. Aspaldian dirudi zaila mundu guztian politikaren eta kulturaren arteko uztarpenak, erabateko absorzio edo subordinazio gabe. Ez da Alderdiren batzuen bakarrik ere problema hori. Nolabait dena bait da politika. Baina nolabait dena da kultura orobat. Sentiera politiko batzuentzat, kultur lan askok bibolina jotzea besterik ez dirudi nonbait. Kulturgintza batzuetatik, alderantziz, erraz imagina nezake, zenbait politikak inkultura eta basakeria hutsa eman behar duela. Ez da milagro, HBko zenbaiti agian ez erraza egitea, barruti kultural batzuen autonomia ezagutzea (literatur molde batzuen adibidez) edo ekintzen batzuen, Agintearen babespean agertzen direnean bereziki, "Euskal Hitz" erakusketak berak esaterako, edo beste hainbat arte eta kultur ekitaldi ofizial guztiz positibo.

Ez da orain xehetasun polemikotan edo bizantinotan sartzeko tenorea. Badakigu denok, autonomia absoluturik ez da goela. Berezi egin beharko liratekeela kultura bera eta haren erabilera politiko oportunistak, manipulazioak: obra batek senti eta pentsa-mundu bat espresatzen duela (ez horregatik Alderdimundu bat), etab., eta gizartean ezer humanorik ez dela neutro azken finean. Hori utzi eta, kulturaren manipulazio gehiegi dagoelakoxe hain zuzen alde orotatik, kulturgintzan orain biziki sentitzen den desideratum bat, horixe duzue: kulturako espazio libreak errespetatzea, salbatzea, Alderdiek eta erakunde politikoek ez inbaditzea mesedez. Are, azken urteotan aski urritu bait dira espazio horiek, berriak sortzea.

Ekologia kultural arazoa da. Zurrunbilo politikoan ito behar dugu denok bestela. Dena politika bihurtuko zaigu.

Problema askotako problema da hori: piska bat pausatu egingo gara. Kulturako jendeak izan ditzake bere eritzi politikoak (normalean izan egingo ditu) eta publikoki azaldu ere egin ditzake (hainbat eratan azalduko ditu normalean). Horrek, ordea, ez du esan nahi kulturako jendea, batez ere bere kulturana espreski ez Alderdi-politika batekotzat egin nahi izaten duena, Alderditartzat har litekeenik, ez pertsona hiritar gisa eta ez idazle, artista, filosofo, poeta gisa; alderditartzat jo haren obra.

Herri honetan, alabaina, politiko batzuingan batez ere, eta guztiz bereziki berak Alderdiren baten barruan eta aparatuetan aktibo diren intelektual batzuingan (intelektualaren zentzu zabalean), grina izugarria dago gaur-egun edozein beste intelektual ere opzio politiko jakinekin identifikatzeko. Ez dago libratzerik. Nahitaez, izan beharra dago ABkoa edo XZkoa. Ez dago egoiterik eliza gabe, bere santu, dorre eta kanpaiekin, liturgia eta intzentsuekin.

Gauza simplea funtsean: politikero horiek ez dute toleratzen espazio kultural autonomorik. Menpegabezia intelektual mito bat iruditzen zaie. Beraiek utzi egin bait dute (seguruenik ondo egin dute), ezin dute eraman orain beste batzuek ezberdin egitea, edo ez dutela egin pretenitzea. Ez dute ulertu nahi, bat egon litekeela bere pentsamenduekin eskuin-eskuinean, eskuineko Alderdiekin zerikusirik batere gabe; ezkerrean, ezkerreko Alderdietatik arras menpegabe eta Alderdi arazoekin ezaxolatu: ezkerrean dagoen bere pentsamendua bere-berea duela eta berca bakarrik.

Ahaiko edo hurkotasun erlatibo posibleek hemen ez dute ezer probatzen. Ez dituzte ezertan justifikatzen identifikazio edo konfusio horiek. (Sanbenitoren bat jartzeko izaten da jeneralean). Erlatiboki ahaidea mundu guztia da. Eta hurbiltasun edo urruntasunaren zenbaita neurtzea ikuspuntutik egoten da nonbait. Ikastolak "politikoak" ote dira? Ana Ariz-entzat antza ETaren oso parekoak eta hurbilekoak; beharbada haren perspektibatik diferentzia handirik ez da somatzen ahal ikastoletako

edozein andereño eta haur-eskola baten eta komando armatu baten artean. Baina Ana Ariz-ek horrela modukorik esanda eskandalizatzen den zenbait abertzale guztiz "razional"ak, ez du gauza bertsu egiten, berak sinpatiarik ez dien sektoreekin? Sinpatiarik ez zaienei bakarrik ukatu gura izaten bait zaie beraien berak ahal izatea, derrigor beste edozeren eraskin edo zintzilikario izan gabe. Denak zaku bateko.

Beharbada guzti hau harrigarria irudi dakizueke, hain zuzen gaur eta zuen aurrean esateko. Baina, ondo ulertzeko (alegia, marfilezko dorrea errebindikatzen denik, ez uste izateko), hurrengo puntuarekin batera ikustea komeniko da.

Bigarren desideratua oso loturik dator eta elkarrizketa-izpirituaren eskabidea da politikoei. Elkarlanarena. Utz kultura bere protagonistek protagoniza dezaten. Politikoei eta politikak, Sastre-ren teatroari, Atxaga-ren literaturari, Sadaba-ren filosofiari, ez diote ezer gehitzen. Non gehitu dezaketen, lan horien ikustekoan bakarrik da, arte horren, literatura edo pentsamendu horien argitasun eta ondorio sozialetan, herrigintza libre eta bariatuen baten barnean kulturagintzak bere lekua potentzia dezan. Desintegrazio egoeraren aitortzatik abiatu gara. Kultur politikoki, honek esan nahi du, egiten den lan asko eta asko, herri honetan, lakaripean gelditzen dela galduta. Isolatuta. Ez dugu lortzen Sadaba eta Atxaga eta Sastre eginbide batean izatea denak parte, mahaikideen adibideaz jarraitzeko. Elkar aberastea, osatzea. Oasi bat bezala da bakoitza bere inguruarekin mortuan. Oasi batean beduino batzuk bizi dira irakurle, bestean beste batzuk, eta ez dago komunikaziorik.

Arazo horrek alde diferente asko du. Ez naiz ausartuko, kulturako jendearen guraria bezala eskatzera politikoei kulturaren plangintza bat. Hiritar bezala exigitu egin nahi nuke hori. Politikoen obligazioa da, ez grazia. Betetzen ez duten obligazio bat, nahiz eta aspaldi agindu zen Jaurlearizatik, egin eta *berrehalaxe* emango zela ezagutzera. Badu zortzi bat urte. Obligazioak dira orobat plangintza bati eta proiektu bati dagozkion gainera-koak ere: koordinazioa, kontrola eta segizioa, etab. Zentzu apur bat ere, proiektuetan. Zeren-eta gu ez bait gara faraoiak.

Piramideak egiten kasta genezakeen diru guztia, diru alferrikaldua da, barrioko faraoitxoren baten haizekeriak gorabehera. Baina orain ez zen obligazioak aipatzeko ordua.

Kulturako jendearen desideratum bat, aldiz, ongi izan liteke, sofritzen dugun defizit kulturalagatik ere, Alderdiek eta erakunde publikoek dialogo eta lankidetasun izpirituz joka dezatela beren politika kulturallean. Irekitasunez. Esan nahi bait da: instrumentalizatu eta alderdikorki aprobetxatu nahi izan gabe kultur ekintza eta txanda eta pertsonaia guztiak. Hemen ere, besteen intolerantziak ez dio inori bere itxikeria justifikatzen. Errurik ez duenak bota behar baldin bada lehenengo harria, gaur ere harririk inork bota gabe joan gintezke menturaz denok etxera. Hobe da, ez gara horretara etorri. Kulturgintzatik, izpiritu irekixeago bateko giroa, ez Alderdiren batengandik, hain zuzen Alderdi guzticngandik desideratuko genuke horregatixe, inor salbuetsi gabe. Piska bat giro sanoagoa lanerako.

Logikoak izan beharra dago: berrintegrazioa baldin bada jomuga, ezin gara ibili desintegrazioa egunoro areagotzen.

Ez ilusoak eta ez optimistak izan gintezke halere. Dagoen giroa, badakigu nolakoa den. Politikoak, ez dut uste kulturgingen eritziez, kezkez, gizartearen kontzeptuez asko arduratzen direnik inon munduan. Zer egin, nola jokatu, beste nonbait ikasten duzue hori politikoek. Hemen gertatzen dena da, politikoak, arrazoi partikularrengatik, agintean daudenak batez ere, sentibera direla "intelektualen" kritikekin. Oso irritu, minbera. Txispak botatzen dituzte. Baina horrek ez dauka zerikusirik intelektualen eragipen sozialaren ipuin famatu horrekin. Eragingen bat agian badute: ez boterean, hori seguru. (Medioak bai, izan lezake: egunkariko artikulua edo TBko kritikak kezkaraz lezakete politikoa, liburuak apenas). "Intelektualak" sekula ez dira historian politikoaren gorteko bufoiak baino gehiago izan. Gehienetan, gutxiago. Gutxi batzuetan, morroi, egunari truke. Hori ez da orain bestela izango. Gutxiago Euskadin. Baina horrek ezingo du eragotzi, desideratum ahul bat besterik ezin izan baledi ere, izan dadila gutxienez desideratum bat, hementxe eta oraintxe: Kultura politiko ireki bat nahi genuke gure herrian, dialogozalea,



kritika eta eztabaidalaria, positiboa, ekintzalea, lan eta lehia-kidetsua.

Beren artean elkarlan gehiago, kultur gizonekin elkarriketa gehiago, desideratuko genituzke politikatik eta politikoengandik. Ez bata, ez bestea dago asko. Garaikoetxearen lehenengo Jaurlaritzatik hasita, hizkuntz eta kultur politika, hitz gogorra da, barka, baina sektario bat markatu zen, Big Brother estiloan. Keinu batzuk, abiotxo batzuk egon dira beste sentidoan gero, baina eredia funtsean ez da aldatu ahal edo nahi izan. Egia esateko, hasiera txar harekin, giroa ez da geroz eta txarragotu baino egin. Zaila egon da eta dago elkarriketa. Dena dela, zer axola zaizkigu orain erruak eta errudunak? Zuekin ari naizenez, elkarriketarako gutxienez alde bi behar izaten omen da. Eta, urte guztiotan, alde batak zaildu egin badu, besteak apenas erraztu duzue, ezta? Onik inori ekarri ez dioten agresibitateak eta zakarkeriak desarroilatu dira batzuetan HBn.

Ez da salomonikoak izateagatik, erruak alde bietara banatzen badituzte, baizik ez aspertzeagatik, iraganari bueltak ematen. Geroa da kontua. Geroan ere, alabaina, elkarriketa eta elkarlana ez dira errealitate izango, asmoak izan baino alegia, utopia moral faunak izango dira, beti deitatzeko ditugun nazio berregintzaren, berreskurapen linguistiko eta kulturalaren, berrintegrazioaren filosofia politikoa garbi definituta ez dagoen artean. Horregatik, aurreko desideratum biak bateratuz (kulturaren autonomia eta elkarriketa izpiritua kulturagintzan), horiek bi desideratum poetikoak bezala izan dira, hirugarren desideratum bat agertuko dut, hau propioki politikoa. Zein kultur politika nahi genuke itxaron?

Asko esaten da, euskara aurrera ateratzeko militantzia beharra dagoela eta bla-bla. Artea eta kultura produzitu, hori ezin duela Gobernuak egin, beraiek egin beharko dutela artistek eta kulturaginek eta literatoek. Herri hau aberatsa dela inizatibatan, etab., askotan esaten da.

Gauza bat dago begien bistan: herri hau berregingo bada, zirkuito batean hiru momentu bereziz, aurrena jendearen kontzientzia eta gogoa beharko da, inizatibak sortzeko eta parte

hartzeko. Bigarren, inizatiba eta proiektu horiek beharko dira. Ideiak gehi ausardia eta irudimena. Hirugarren, proiektuon gestoreak eta laguntzak beharko dira. Politikoa eta gobernu, (1) kontzientzia hura bizten, zuzperten, ikusi nahi genituzke, aprobetxatu nahita baino; (2) inizatiba eta proiektu haiei laguntzen, bermatzen, indartzen beren mugatasunetik gizartera hedarazten; (3) alderantziz, ahalik eta gutxien ikusi nahi genituzke berak inizatibak hartzen eta proiektuak asmatzen. Nahikoa ikusi ditugu harro hasi eta laster degeneratzen, subentzionatu ordeztatu asmatu egin diren inizatibak, cuts diezaien kontzientzia sozialik gabe, euskaraz produzitzen eta kontsumitzen den beste guztiarekin proportziorik batere gabeko luxu iraingarri eginda, euskararen alde omen den diru publiko bat arras alferrikalduz. Justifikatuak al dira HABEren argitalpenen, *Eguna* eta *Hemen* proiektuen kostuak? Produktuaren zein etekin dute? Honelako filosofia batek ondorioak erakutsi beharko lituzke plangintzan, beharbada pedagogian ere. Eman dezagun euskararen berreskurapenerako Institutu bat eratu nahi dugula. Ba, ikus errealtatea: kazikada hutsa izango litzateke, hizkuntz irakaskuntzako fabrika bat antolatzea. Batetik, euskara ikasi nahi dutenen kontzientzi moduak, oso desberdinak dira (motibazioak, etab.). Antipedagogikoa litzateke guztientzat irakaskuntza tipo berdina programatzea. Beste hainbestetsu irakasleekin daukagu, bestetik: horietako askorentzat "euskara irakasteak" ez bait luke gramatika bat eta lexiko bat trebeki irakastearen sentido soila izan behar, kulturegintza eta berregintza (berrintegrazio) sozial sakonago eta zabalago batena baizik. Alde honetatik ere, eskola mota eta pedagogia diferenteen lorapena, elkarren lehian, ahal izango litzateke administrazioetik bultzatu eta begiratu, efikaziagatixe hain zuzen besteak beste. Eta, gero, emaitzen segipena egin egin behar da. Ez dago, frakaso politiko eta administratibo bat estaltzeagatik, frakaso linguistikoa ezkututzerik.

Mailapen hori hiru momentutan, eta hirugarrenean eta aurrenekoan bakarrik politikoak interbenitzen (Gobernu, Alderdiak), ez da preferentzia populista partikularren batzuen kontua. Lehenengo, denok badakiguna, dago arrazoiak: euskal kultura ez dela egingo Kultur Ministeritza batetik *per ukas*. Berdin, euskara

ez dela Euskararen Idazkaritzatik salbatuko. Euskotar jendearen kontzientziak salbatu beharko duela. Kontzientzia honek ez duela geroz eta itxaropentsuagoa ematen. Horrek izan beharko lukeela, medio guztiekin zaindu eta bizkortu beharrekoena Jaurlaritzatik. Euskararen zerbitzu politikoen egiteko larriena edozein Alderdi abertzalerentzat. Pozik aitortuko dizuet, HBko edo HB inguruko jendeak egin duela, nire ustez, ahaleginik handiena Alderdi guztien artean, Jaurlaritzak berak ere baino gehiago, euskararen alde kontzientzia kolektiboa bizten, jendea animatzen, gogoak berotzen. Baina hemen tranpan harrapatuta gaude: ordenuko politikoak mugida tipo guztien izu eta beldur zoro gorri bait dira, desordenuko politikoek dena "politizatu" egiten omen diezuelako. Ondorioz, kanpainak eta mitinak eta hauteskundeak muntatzea ia beren biziko lanik inportanteena duten politikoak, euskararen alde inolako mugidarik antolatzeko uzkur-muzkur dira, beti muturtsu. Zakurra eta katua bezala gabiltza.

Prezio altuegia ari zaigu kostatzen. Nekagarria da. Jende baliozko gehiegi kiskaldu zaigu. Proiektu on gehiegi lardaskatu. Historia luzea da. Historia guztiek izaten omen dute irakurketa modu bi gutxienez. Horregatixe ez zaigu interesatzen orain, berriro, ez bata, ez bestea. Horregatixe izan behar du euskaltzale denon desideratua, desideratum gutxienez, kultur inizatiben ugaritasun libreak, administrazioak herri-ekimen horren zerbitzuan diharduela, beti ere kulturgileen beren protagonismoa sustatuz, goi-koordinazio orokorra eta finantziaketa ziurtatuz, eta ez oro bere zakuan hartuz.

Esatea da errazena, halere, kulturgintzako batentzat oroz goitik. Ez da hori boterearen eta politikaren kontzeptu tradizionala (nahiz eta Sailburuak "Ministrari" deitu). HBrentzat ere signifika lezake problemarik. Eta problema bat partikulariki hain zuzen HBrentzat apika. Izan ere aspaldiko joera eta konfusioa da Europa-n, sozialismoan eta ezker batean batez ere hain zuzen, publikoa eta estatala (instituzionala) kontzeptuak nahastea. Berdinketa arras faltsua. Ikastolen eta eskola "pribatuen" arazoan, adibidez, gera liteke nahasketa engainagarria, publikotasuna indartu nahirik Estatua potentziatuz. Nolanahi ere orain

ez zait adibidea bera axola (hilargia seinalatzen duen hatza), filosofia orokorra baino, publikotasuna eta Estatua ez konfunditzeko. Oker berdina, ridikuluagoa bakarrik, publikotasuna eta instituzio autonomikoak berdintzea da. Batzuek horretantxe espezializatuak ematen dute.

Estatua, neure gusturako, gutxiena ere, beti gehiegi. Kulturgingintzan, esan nahi dut. Hortik bigarren arrazoia, politika ez enpresari, baina plangile eta laguntzaile baten alde. Goazen martxan, euskal kulturarekin nazka-nazka eginda bukatu behar dugu bestela euskaltzaleok. Euskara mengelto dago. Babestu eta zaindu egin behar da. Indartu egin behar da. Horregatik AEK erkin bat dagoen tokian, HABE mardo bat sortzen da. Irrati batzuk euskaraz bazeuden, lan polita egiten zuten (baina "pribatuak"): haiei lagundu ordez, berriak sortzen dira, "nazionalak" (lehengoen pertsonala sakeatuz). Telebista sortzen da. Sariketak. Bekak. Negutegiko kultura artifiziai aterpetar bat sortzen da. Kristalezko kanpai aseptiko batean desarroilatzen da euskara. Dena babestua. Garbia, neutroa, instituzionala, batadun txurixuria. Antzua. Mortal aspergarria. Pentsamendu eta konpostura ofizialaren liturgia eliztarra. UZEI zegoen, baina "freinatu" egin behar zen, K. Mitxelena-ren proiektu (falta)ri preferentzia emateko. Gauzak ez dira presaka egin behar. Gero laguntzea tokatu zen, baina aldatu egin da: UZEI gaur ez da sortu zen hartarako (sortzaileek emigratu egin behar izan dute proiektutik). *Bateginik* kanpaina entseiatu zen, Alderdiek lardaskatu bakarrik egin zuten dena. Okerrena da, Alderdiak gabe ezer egiterik ez dagoela, eta Alderdiekin ez gehiago. Kulturgingintzako hemengo politikari zerbait egozten badiogu, beraz, dena absorbitu nahia da, irentsi, urrupatu, protagonizatu, edo anulatu. Orain Ikastolekin dago problema. *Ibilaldia*-ren istilu horiek, hementxe Bizkaian. Historiarik ridikuluena beharbada *Euskararen Eguna*-rena izan da. Gerra aurreko tradizioa zen (1927-1936). Berriro ekin zitzaion gerraostean. Urte pare batean ondo egin zen. 1985ean norbaiti bururatu zaio, egun horrek instituzionala izan behar duela. Ez dago betiko endredatzaileen eskuetan uzterik. Oso ondo: Legebiltzarrak bapatean 20 milioi libratzen du, instituzionala izango da eguna, diskurtsu hunkigarriak egin dira.

Etortzen da eguna eta ezer ez. Ia hurrengo urtean akordatu ere inor ez da egin arazoarekin. Kito. Horrelaxe galdu da Euskararen Eguna. Eskuetatik inori kendu, instituzioek hartu eta, umeak panpina bezala, utzi. Euskal Egunkariarekin dauzkagu oraintxe berriro buruhaustekak. *Prawda* eta *Osservatore Romano* arteko beste buletin ofizial bat izango ote dugu hori ere? Intzentsu eta kloroformo usainezko euskal kultura hau jasateko modurik gertzen ez zaigunean, zein subkulturatarara ihes egin beharko dugu euskal kultura normal bat ikusi nahi genukeen euskaltzaleok, ez "Europako hizkuntza zaharrena" museo batean, edo indio batzuk erreserban?

Nolanahi ere, gogoeta guztion sentido betea, baldintza bat aurretiaztzuz bakarrik atzeman daiteke. Baldintza hori gogoratuz hasi ditugu hitzok: oraino badagoela gure guztion mundu eskuar edo komun bat, guztion helburua Euskal Herriaren bizitza dela azken finean, euskal kultura bat irrikatzen dugula denok, euskarak denok elkartzen gaituela nolabait oraindik. (Seguru, ez atzo bezala: dena kanbiatzen da, eta hori ere bai). Izan ere, euskarak ere iada, egia balitz, elkartzen ez gaituela, gutxiago gaituzte geografiak, instituzioek, odolak, arrazak edo ez dakit zerk, elkartzen. Ezerk ez gaitu elkartzen orduan. Engoiti aitortu beharra dago, nazionalismoa definitiboki gainditurik eta sentido gabeturik geratu dela. Naziorik ez dago. Helburu nazionalik ez dago. Amaitu da, betiko Arana Goiri-ren zikloa, karlisten eta liberalen periodo berri bat hasten da, eskuin-ezker, hots, problema ez da Euskadi, Europa da, edo "eskualde ekonomiko" atlantiko bat.

Beharbada justu horixe bait da batzuei gertatu zaiena. Hainbeste amorr, hira, sumin gaitzekin, hainbeste instituzio, demokrazia, legalitatearekin, Euskadi-rik gabe geratu dira. Beren Euskaditxoarekin. Bunker barruan itxita, Europa-ra begira. Beste inorekin ez dute elkarrizketarik ere nahi. "Euskarak ere ez gaitu elkartzen", esaten dute: alegia, euskararen ere ez dugu elkartu nahi.

Mundu honetan, aginteak eta botereak ezin eman dituen gauzen artean, badago bat, sofritzeak eta borroka egiteak para-

doxa batez hobeto irakasten duena nonbait: askatasuna da. Bakoitzak barnean daramagun askatasun askatzailea. Bihotz pozoinduak, alferrik da: ez daukanak, ez du ematen. Izpiritu askatasuna, askatasun publikoen arima, kreatiboak izan daitezzen. Argiarenganako eta munduarenganako samurtasuna. Bihotz apalaren zabaltasun konfiatua, gizonarekin, geroarekin.

Eta alaitasuna, kulturgintzak bizitza argitzeko behar duen alaitasuna, libertatearena bakarrik izan daiteke lorea.

Ezin ukatuko dugu, inoiz baino zailagoa dagoela, eta problematikoago bihurtu dela. Halere inportantea da, euskararen arazoan batasuna aitortzen jarraitzea, batasuna exigitzea, batasuna egiten ahalegitea. Euskarak bat gaitzala (eta ez euskarak bakarrik: euskarak sinboliza dezala, batzen gaituen guztia). Izpiritu doilorra izaten da, bere barrunbeko kaldarkeria beltz gaintezinean, kontrarioari bere zeintasanaren uko egitera makurtzen dena, ez hitz, ez arrazoi, ez elkartasun hari onartuz. Izpiritu nobleak ez ditu diferentziak fronteratzat hartzen. Fronterak ez ditu gaintezintzat hartuko.

Zuci, HBkoei, gogoeta kritiko bat eskatu didazue eta eskerrik asko, zilegi badut oraindik azken desideratum bat adieraztea, desideratum honekintxe bukatuko nizueke: beste inork egin nahi ez badu herri honetan, zuen izenagatik bederen, errebindika ezazue zuek batasuna. Errebindika ezazue itxaropena.

*J.A.*

# JAKIN

## **ALEMANIA BERRIA** **Europa Berrian**

**Euskal prentsa 1936an  
1989ko hauteskundeak prentsan  
Euskarari buruzko ideiak XVI. mendean  
Euskara Unibertsitatean  
Preso politikoaren sakabanaketa  
Politikatik zer itxaron kulturaren**

Maiatza  
Ekaina

**58**

1990

**Tolosa hiribidea, 103, 1-C – 20009 Donostia**  
**Tel.: (943) 21 80 92**